

Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz

RICARDO GÓMEZ
(EHU, Gasteiz)

Abstract

This paper attempts to summarize what is currently known about the History of Basque Linguistics. The first section tries to explain what is precisely meant by the term "euskalaritza" (Bascology) and proposes a provisional periodization of the History of Basque Linguistics. The second section outlines the factors which triggered the development of Basque Linguistic Historiography from the mid 80's —mainly the new interpretation of the 18th century Jesuit M. Larramendi's works— and shows some of its consequences. The third section carries out the chief goal of the paper; the principal authors, works, and ideas emerging from the History of Basque Linguistics are there briefly noticed, and historiographical works concerning each one of them are mentioned along; special emphasis is laid on the most recent findings. Finally, a bibliographical appendix is provided containing the works by the old authors referred to throughout the paper.

0. Sarrera¹

Lan honetan euskalaritzaren historiaz egun arte dakiguna laburbiltzen saiatuko naiz. Lehenengo atalean "euskalaritza" kontzeptuaren definizioa ekarriko dut gogora; bigarren atalean azken urteetan euskalaritzaren historiaren ikerketen bultzadan zein eragilek parte hartu duten aipatuko dut; hirugarren atalak, lanaren muinak, azken urteotako ikerketen ekarpenei berrikusia emango die.

1. "Euskalaritza" zer den

Aski ezaguna gerta badaiteke ere, "euskalaritza" definitzen hasiko naiz. Termino honen barruan euskararen inguruko ikerketa eta hausnarketa guztiak bildu ohi dira, hala hizkuntzaren jatorriari buruzkoak nola gramatika, hiztegi eta hizkuntzalaritza-

(1) Testu honen zirriborroa irakurri eta beren iruzkin eta oharrez nabarmenki aberastu duten Agurtzane Elordui, Endrike Knörr, Beñat Oyharçabal, Blanka Urgell eta Koldo Zuazori mila esker. Nire eskerrona, orobat, Joseba Lakarrak zuzendutako "Euskararen historia: arazo zahar, bide berri" EHU-ren Donostiako XVI. Uda Ikastaroetako entzulegoari. Lan hau Eusko Jaurlaritzaren PI97/49 ikerketa-proiektuaren barruan kokatzen da.

ren gainerako arloei buruzkoak ere. Nahiago bada, "hizkuntzalaritza" berbari *bizkuntza* ezabatu eta *euskara* sartu, horrelaxe lor dezakegu euskalaritzaren edukiaren ideia argi bat ("hizkuntzalaritzaren" beraren mugek ezartzen dituzten arazoak gorabehera, jakina).

Hots, funtsean aspaldiko "vascología" edo "euskarología" terminoen ordaina litzateke eta, Urkizuk (1991) dioskunez, "euskal ikerketak" terminoak baino eremu murritzagoa besarkatuko luke.

"Euskalaritza" berbaren bitartez euskarari buruzko ikerketen multzoa ezagutzen dugu. Baina "ikerketa" hitzarekin ez dira soil-soilik ikerketa "zientifikoak" kontuan hartu nahi, argi baitago azken hamarkadetatik gibelera joanez gero nekez aurkituko dugula geure artean halakorik. Hortaz, euskalaritzaren historiaz ari garelarik, euskarari buruzko hausnarketak zentzu zabalean hartu ohi dira aintzakotzat. Honako ikerketa-eremu hauek bereiz daitezke (euskalaritzan sortu ahala kronologikoki zerrendatuak):

- euskararen jatorriari buruzko ideiak;
- hiztegi gintza;
- gramatikagintza;
- euskararen eta beste hizkuntza batzuen arteko konparaketa (sarri lehenbiziko eremuarekin lotua).

2. Euskalaritzaren historiografiaren bultzaldia

Hizkuntz ideien historia bide laburra jorratu duen arloa dugu, hizkuntzalaritzaren beraren bide luzearekin alderatzen badugu behinik behin. Gure artean euskalaritzaren historiarekiko interesak azken bi hamarkadetan baino ez du garapen jarraikirik izan, aurreragoko lan bakanek jite bio-bibliografikoa izan dutelarik, gehienbat. Ordea, laurogeietako hamarkadan liburu eta artikulu multzo aski handia kaleratu zen eta, garrantzitsuagoa dena, euskalaritzaren historiografiaren ereduak zeharo aldatu ziren, zenbait euskalariren lanak ikuspuntu berri batetik aztertu eta atzerriko hizkuntz tradizioak kontuan hartzen hasi baitziren.

Izan ere, hamarkada Tovarren *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* (1980) liburu ezagunarekin hasten da. Bertan hutsune batzuk nabari badira, azaltzen diren zenbait puntu zaharkiturik geratu badira eta beste batzuek berrikuspen sakonaren premia badute ere (ik. Mitxelena 1980), ezin da ukatu Tovarrek euskararen apologiaren eta euskararen jatorriaren gaineko ideien laburpen baitezpadakoa eskaintzen digula. Hala eta guztiz ere, euskalaritzaren historiografiaren bultzada markatzen duen gertaera aipagarriena hamarkadaren erdian kausitzen dugu: Larramendiri buruzko ikuspegiaren aldaketa sakona, hain zuzen (ik. §3.2.). Zinez uste dut harrezkero euskalaritzaren historiari buruzko ikerketek norabide berri bat hartu dutela, lan honetan zehar erakusten saiatuko naizenez.

Bultzada honen erakusgarri deritzet handik urte gutxitara UPV/EHuren Donostia-ko Uda Ikastaroen barruan antolatu ziren bi ikastaro monografikoei: "Euskalaritza XVIII eta XIX. mendetan" (1988an) eta "Euskalaritza XX. mendean" (1989an), biak Joseba A. Lakarrak zuzenduak. Bestalde, artean aurkeztu ziren lan gehienak ASJU

aldizkarian argitaratu ziren eta geroago Gómez eta Lakarrak 1992an argitaraturiko liburuan bildu, beste zenbait artikulu zaharrago eta berriagorekin batera. Liburu hau ezin dugu euskalaritzaren historiak inoiz behar lukeen sintesi-lantzat hartu, nik uste. Aintzakotzat har litezkeen bakarrak goraxeago aipaturiko Tovarren eta Urkizuren liburuak ditugu. Baina lehenaren mugak ezagun ditugu eta bigarrenak, ikerketa berri askoren emaitzak sartzeko ahalegin handia aitortu behar diogun arren, bibliografia berrienari emandako garrantzi horrek berorrek nolabaiteko desoreka sortarazi dio tamalez; izan ere, garrantzi handiko euskalari batzuek liburuan duten lekua aurreko urteetan ikertuberrria edo "berraurkitua" izan den bigarren mailako egileren batek duena bezain luzea da, laburragoa inoiz edo behin (bide batez, neuk ere bertan aitortu behar dudana errua).

Goraxeago aipatu lan bio-bibliografikoen aldean, azken hamabost urteotan zenbait euskalariren lanak sakonago aztertu dira. Aipa ditzadan hemen, zerrenda inondik ere agortu nahian, Pozari buruzko Juaristiren lanak (Juaristi 1991, 1992), Oihenarti buruzko ugaritxoak —Euskaltzaindiaren XII. biltzarrean aurkeztutako zenbait lan (Euskaltzaindia 1994), kasu—, Pouvreau (Kerejeta 1991; Lakarra 1995), Urte (Urki-zu 1990; Lakarra 1994b, 1994c), Larramendi (Gómez 1991a, 1991b; Lakarra 1985a, 1985b, 1992; Sarasola 1986; Urgell 1991, 1997, 1999), Martin Harriet (Lakarra 1991, 1994a), Astarloa (Gómez 1999; Laka 1989), Bonaparte eta ingurukoak (Granja Pascual 1986; Gómez 1989), edo Azkue gaztea eta Arana-Goiririkikoak (Laka 1986a eta ondoko argitalpenak). Orobat, euskalarien arteko konparaketa-lan batzuk burutu dira, Oihenart eta Larramendiren gramatika-lanen artekoak, esaterako (Oyharçabal 1993), baita zenbait euskalariren lanak Europako Mendebaleko hizkuntz tradizioaren testuinguruan kokatzen saiatu ere: Larramendi aurreko hiztegi gintza (Lakarra 1993, 1997) edo Astarloaren teoriaren oinarriak (Gómez 1999).

Amaitzeko, bultzada honen azken ondorioa dateke —eta ondorio berrien eragilea, apika— EHUKo Euskal Filologiako ikasketa plan berrietan 1993-94 ikasturtetik aurrera euskalaritzaren historiari buruzko ikasketek hartu duten lekua.

3. Euskalaritzaren historiografiaren azken ekarpenak

Jarraian, euskalaritzaren historiari gainbegiratu laburra egingo diot, azken urteotako ikerketen emaitzetan arreta berezia ipintzen saiatuko naizelarik. Ezinbestean, lanen hautapen bat egin behar izan dut eta zenbait autore kanpoan geratu dira. Hautapenaren zer-nolakoak ulertzeko, aintzat har bitez historialari honen subjektibotasuna (lan bakoitzari emandako garrantzian nabari dena) eta ezjakintasuna (pisuzko lanen batean irristarazi didana, segurki); halaber, atalen tamaina desberdinak ikerketen beren interesguneen pisua nolabait islatu nahi luke.

Hizkuntzalaritzaren historiaren garai desberdinen bereizketa, oro har, hertsiki samar dihoakio zientziaren historiarenari (Greene 1974: 493); honako garai hauek bereizi ohi dira:

- Antzinatea,
- Erdi Aroa,
- Errenazimentua,

- XVIII. mendea (1660-1790 bitartean luzatu ohi dena),
- XIX. mendea (1880 arte, nonbait),
- XX. mendea.

Euskalaritza beranduxe abiatu zen eta, Erdi Aroko hitz zerrendatxoren bat kenduta, Errenazimentuan hasten dela esan dezakegu. Bestalde, garai desberdinen arteko urte mugarrak ez dira oraino ziurtasun guztiaz finkatu, eta ondoren datozen lerroek, noski, ez dute halako helbururik. Hortaz, lasai jokatu dut euskalaritzaren historiako garai bakoitza zorrozki zehaztu gabe, nahiz eta —atalen antolaketatik idoki daitekeenez— zenbait euskalari garai berrien abiapuntu izan daitezten proposatuko ditudan.

Ikus ditzagun laburki, bada, euskalaritzaren historiako garai bakoitzeko gertakari nagusiak. Esan bezala, aldioro azken urteotako ikerketek ekarri dituzten aurrerapenetan arreta berezia ipiniko dut.

3.1. Errenazimentua: Euskalaritzaren hastapenak

Antzinatetik eta are XVIII. menderarte hizkuntza arruntak —euskara barne— basati eta barbarotzat hartu izan ziren. Europako Mendebaleko tradizioan kultur hizkuntza bakarra, *Hizkuntza*, latina zen. Latina zen, hortaz, noblezia eta aberastasuna frogatu behar ez zituen hizkuntza bakarra, haren literatur tradizioaren prestigioak berez frogatzen zituelako. Prestigiodun beste hizkuntza batzuk hebraiera (arrazoi erlijiosoengatik) eta grekoa (arrazoi kulturalengatik) ziren.

XVI. mendean, bestalde, Europan nazio modernoek sorrera hasten da. Nazioa nolabait justifikatzeko hizkuntza zen baliabide garrantzitsu bat. Izan ere, hizkuntza noblea eta prestigioduna izateak nazioaren noblezia eta prestigioa ere bazekartzan. Era berean, hizkuntzaren antzinatasuna frogatzea lortuz gero, nazioaren antzinatasuna eta, beraz, nazioaren justifikazioa lortzen zen.

Hauek guztiak erdiesteko, aldi hartan Europako hainbat lurraldetan sortu zen bertako hizkuntzen apologia egiteko beharra. Gainera, latina hizkuntza noble bakarra zenez, gramatikadun hizkuntza bakarra ere bazen. Horregatik, hizkuntza arrunt baten gramatika egin baino lehen, hizkuntza haren noblezia nolabait frogatzea ezinbestekoa suertatzen zen. Hori dela-eta, hizkuntz apologiak egitea ez da inolaz ere Euskal Herriaren eta euskararen berezitasuna. Euskal Herrian gertatzen zena, hortaz, ez da Europan gertatzen zenaren oso bestelakoa. Beharbada, eta ohi bezala, gauzak beranduxe gertatu ziren gure artean; Europako beste herri batzuetan baino goizago, hala ere. Bestalde, euskal apologiak ez dute zehazki Euskal Herria nazio bihurtzeko helbururik, jakina; aldiz, Espainiaren barruan euskal lurraldearen lehentasuna aldarrikatu eta frogatu nahi dute: lehentasun *genealogikoa* (euskaldunak dira lehen espainolak, Iberiar Penintsulara heldu ziren lehen biztanleak baitira) zein lehentasun *genetikoa* (euskaldunak dira espainolenak, ez baitituzte beste herriek kutsatu, inoiz ez baitituzte inbaditu).

Eta testuinguru horretan XVI eta XVII. mendeetan ia apologi lanak baino ez ditugu euskalaritzaren esparruan; gramatika eta hiztegi gutxi daude. Eta azken hauen artean ez dago lan sistematiko askorik, Oihenart salbuespena izan daitekeelarik.

3.1.1. Apologiak

Lehen garai hauetako euskararen apologietan azaltzen diren iritziak, baita kontrako iritziak ere, oso ondo jaso zituen Tovarrek (1980); geroago Zubiaurrek (1990) euskal apologilari nagusien ideien azterketan sakondu du. XVI eta XVII. mendeetako euskararen apologi lanak hiru euskarri nagusitan oinarritu ziren: tubalismoa, kratilismoa eta kantabrismoa. Ikus ditzagun banan bana.

(a) *Tubalismoa*: Beronen arabera, euskara Iberiar Penintsulako lehen hizkuntza izan zen, Tubalek, Noeren ilobak, Babelgo Dorrearen hizkuntz barreiatzearen ondoren Iberiar Penintsulara ekarria. Ideia hau San Jeronimoren testu batetik abiatzen da, gaizki ulertze batean oinarritzen den testu batetik, hain zuzen ere, itxuraz Kaukasoko Iberia eta Mendebaleko Iberia nahastu baitzituen (Tovar 1980: 16). Harrezkero, iberokoak eta euskaldunak Tubalen ondorengoak zirela pentsatu zen eta, ondorioz, euskara eta iberiera bat bera zirela aldarrikatu. Beherago ikusiko denez, identifikazio honek bizi luzea izan du euskalaritzaren barruan, garai batzuetan bereziki punta-puntako gai bihurtu delarik.

Espainiako Errenazimentuan antzinako hizkuntz egoeraren gainean erabili zen eztabaida gartsuenetariko bat honako hau izan zen: ea Antzinatean —zehazkiago, erromatarrak heldu aurretik— Iberiar Penintsulan hizkuntza bakarra ala hizkuntza asko mintzatu ziren eta, bakarra izanez gero, zein izan zen Iberiar Penintsulako lehen hizkuntza hura. Ikuspegi desberdinak azaldu ziren orduko autoreen artean, nahiz eta, antza denez, tubalismoaren aldeko joera nagusi gertatu zen. Autoreak honelaxe sailka ditzakegu, auzi honi buruzko iritzi desberdinez Tovarrek dioskunean oinarriturik:

i. Hizkuntz aniztasunaren aldekoak: Alonso de Madrigal “El Tostado” (ca. 1400-1455), Ambrosio de Morales (1531-1591), Juan de Mariana (1536-1623), Gregorio López Madera (1602) eta Bernardo Aldrete (1560-1641).

ii. Hizkuntz batasunaren aldekoak. Euren artean, baina, Penintsulako lehen hizkuntzari buruz ez dago adostasunik:

- Euskara: Lucio Marineo Siculo (1460-1533), Juan Zaldibia († Tolosa 1575), Esteban Garibay (1533-1599), Andrés Poza (1530-1595), Baltasar Echave (1607).
- Grekoa: Juan de Valdés (1500-1542).
- Zehaztu gabe: Rodrigo Ximenez de Rada (ca. 1175-1247), Fr. Jacinto de Ledesma y Mansilla (1626).

iii. Jarrera kritikoa: Arnauld Oihenart (1592-1668), Joseph Moret (1615-1687).

Ikusten denez, euskal apologigileen artean Oihenart dugu heterodoxo bakarra; tarteko jarrera bat hartzen du. Izan ere, haren ustez, euskara Antzinatean Penintsulako iparralde guztian hedatuta zegoen, baina, antza, ez du onartzen Penintsula osora zabaldu zenik (ik. orobat Gorrochategui 1985).

Bestalde, hizkuntz aniztasunaren aldeko batzuk Tubalen etorreran sinisten zuten. Esaterako, itxura denez, “El Tostado”k eta López Maderak Tubalek Penintsulara ekarri zuen hizkuntza gartzelera izan zela uste zuten. Teoria honek hainbat jarraitzaile izan zuen XVII. mendean (Correas, besteak beste).

Kontuan hartu behar da garai hartan Biblian esandakoak eta handik garaturako mito eta ideiak hitzez hitz sinisten zirela. Honakoak, hizkuntzaren jatorriari, aniztasunari eta aldaketari dagokienez:

- Hizkuntza Jainkoak Adami eman zion.
- Lehen hizkuntza hura hebraiera izan zen.
- Hizkuntz bereizketa Babelgo Dorrean gertatutako hizkuntz barreiatzearen ondorioa da. Han sortuak hizkuntza matrizeak edo lehen-hizkuntzak (72, iritzi zabalduenaren arabera) deitu ziren.
- Gizahizkuntzan hitzen eta esanahien arteko erlazio bat dago.

(b) *Kratilismoa*: Pentsamolde honek Platonek idatzitako *Cratilo* elkarrizketan azaltzen diren ideiak ditu abiapuntu: lan honetan eztabaidatzen da ea hitzen esanahia arbitrarioa ala "naturala" den, hots, hitzen formaren eta esanahiaren arteko berezko loturarik baden ala ez. Egia esan, ez dago garbi zein den Platonen iritzia, baina ondoko tradizioak pentsatu zuen Platonek naturaltasunaren alde jokatu zuela. Ideia zabalduna zen Jainkoak Adami eman zion hizkuntza baino ez zela naturala izan —hebraiera, gehienen ustez—. Sineskera honen beste aldaera baten arabera, hizkuntza matrizeak izango ziren hitzen eta esanahien arteko lotura naturala erakusten zutenak; haietatik eratorritakoek, aldiz, ez. Horregatik, norbait hizkuntza batean lotura natural hori frogatzeko gauza bazen, delako hizkuntzaren antzinatasuna ere frogatuko zuen, eta asmo horrekin jokatu zuten euskal apologilari batzuek beren etimologiak proposatzerakoan.

Euskal apologilarien artean Poza dugu kratilismoaren jarraitzaile garbiena, Juaristik (1991, 1992) erakutsi duenez. Pozak euskararen lehentasuna frogatu nahi izan zuen eta horretarako administrazio-lanak betetzeko haren etsaiak ziren judu konbertsoen arma berberak erabili bide zituen: metodo kabalistikoa, kratilismoak bezala hizkuntzaren eta munduaren arteko lotura zuzenean sinisten duena.

Poza hizkuntza matrizeak naturalak direlako ustearen aldeko agertzen zaigu; Babelgoetatik eratorritako hizkuntzak, aldiz, kutsatuak izan dira eta, ondorioz, arbitrarioak dira, lotura naturala galdu egin dute. Pozak euskara Babelgo hizkuntzetariko bat izan zela frogatu nahi du eta horretarako euskal hitzetan formaren eta esanahiaren arteko lotura naturala badela erakutsi behar du. Hitz baten *benetako* esanahia, esanahi ezkutua, azaltzeko ondoko urratsok jarraitzen ditu:

- i. Hitza errotan banatu.
- ii. Erro bakoitzaren esanahietatik hitzaren *jatorrizko esanahia* atera.
- iii. Ezkutuko esanahi hori beste hizkuntza batzuetako esanahiekin konparatu, lotura naturala euskararen bakarrik aurkitzen dela ondorioztatzeko.

Pozak darabilen metodo hau Astarloak hiru mende geroago baliatuko duenaren oso antzekoa da, nahiz eta Astarloa euskararen sorlekua Babelgo Dorrea baino antziago eramaten ahaleginduko den.

(c) *Kantabrisma*: Euskaldunak erromatarren garaiko kantabroen ondorengoak direla aldarrikatzean datza. Beraz, euskaldunak erromatarrek inoiz konkistatu ez zuten herriarekin lotuko lirateke eta, hortaz, beren hizkuntza inolako aldaketarik gabe gorde ahal izan dute.

Oihenartek teoria hau kritikatu bazuen ere, beste gai askotan bezala ez zuen eragin handirik izan (Moret kronikagile nafarra izan zuen irizkide ia bakarra) eta euskaldunen eta kantabroen arteko identifikazio honek XVIII. menderarte iraun zuen, Flórez-ek (1702-1773) erabat deuseztu zuen arte. Guztiarekin ere, literatur irudi gisa bederen askoz jarraipen luzeagoa izan zuen, bertsolari batzuen erretorikak eta leien-da foruzaleek erakutsi legez.

3.1.2. Gramatikagintza

Larramendiren gramatika izan zen, jakina denez, lehen euskal gramatika argitaratua; alabaina ez idatzitako lehen euskal gramatika-lana. Horrela, bada, Larramendiren *Artearen* aurrekoak aztertu dituelarik, Oyharçabalek (1989) ondoko hiru atal hauetan sailkatu ditu, lanon helburuak aintzat harturik:

- (a) Ikuspuntu historiko edota apologetikoa duten obretan sarturikoak: Oihenart.
- (b) Helburu didaktikoa dutenak: Voltaire (1620), Rafael Micoleta (1611-).
- (c) Euskararen deskribapena egin asmo dutenak: Jacques de Bela (1586-1667), Pouvreau (1665 b.l.), Dominique Bidegaray (†1679), Melchor Oyanguren (ca. 1688-1747), Urte (1664-).

(a) *Ikuspuntu historiko-apologetikoa*: Oyharçabalek albo batera uzten dituen Garibayren gramatikazko ohar bakanak ez ditut nik hemen iruzkinduko; ikus, dena den, Zubiaurren (1989) oharrak. Hizpide dugun beste historia liburua Oihenarten *Notitia* da, lehenik 1638an argitaratua eta bigarrenik, gehiketa eta zuzenketa garrantzitsuak sartu zituelarik, 1656an. Historialaria izanagatik, euskal gramatikagintza zaharrean Oihenartek leku berezia merezi du, zalantza izpirik gabe; Oihenart da lehen euskal gramatikarietarik analisi zorrotz eta orijinalenak eskaini zizkiguna, esan bezala ondoko euskalariengan eragin nemiñoa izan bazuten ere. *Notitian* euskal gramatikari eskainitako XI. eta, bereziki, XIV. kapitulu labur eta mamitsuetan Europako Mendebalean eredu nagusia zen gramatika greko-latindarraren menpekotasuna nabarmena da; hala eta guztiz ere, aldi behin Oihenart gauza da eredu klasikoa gainditzeko eta euskararen deskribapen beregaina eta egokiagoa burutzeko.

Aipagarri da Oihenarten ideien artean gaur egun erabateko balioa duten hainbat ere aurki daitezkeela; ekarpen hauek, dena den, denbora luzea beharko zuten euskalaritzaren barruan arrakasta eta onarpena lortzeko —batzuetan Oihenarten aitzindarietasuna ezezagun edo isilpean gertatu zelarik— eta, ikusiko dugunez, baten bat eztabaidagai zen oraindik XIX. mendearen hondarrean. Hona ekarpen horietariko batzuk:

i. XI. kapituluaren gaia *-a* eta *-ak* singularreko eta pluraleko artikulua diréla erakustea da. Garaiko iritzi nagusiaren arabera (Marineo Siculo, Merula, Garibay; geroago Pouvreau, Urte, Etxeberri Sarakoa), aldiz, izenkien bukaerak ziren. Hala ere, uste hau ez zen euskalaritzatik zeharo baztertuko Larramendik *Artean* zorrozki kritikatu zuen arte.

ii. Oihenartek euskal deklinabide mota bi bereizten ditu, artikuluduna eta artikulugabea, egun *mugatu* eta *mugagabe* deituz ezagutzen ditugunak, hain zuzen; lehenbizikoa singularra edo plurala izan daitekeela ere adierazten du. Alabaina

mugagabea ez zen berriz euskal gramatikagintzan azalduko Astarloaren eta Humboldtten lanak iritsi arte. Geroxeago Darrigolek (1827) mugagabeaz ohartu den lehena izan dela baieztatu zuen, eta uste oker honek Villasanteren *Historia de la literatura vasca*-raino irau zen, Mitxelenak (1973) salatu bezala.

iii. Deklinabidearen arloan jarraituz, euskararen kasuen artean latinaren paradigmatak kanpo geratzen diren kasu ergatiboa (*casus agendi*) eta partitiboa (*casus negandi seu dubitandi*) identifikatu zituen. Berriz ere, euskal kasu-sistemaren ezaugarri hauek Astarloaren eta Humboldtten lanen zain geratu beharko dute ezagutza eta onarpen zabala izan dezaten.

iv. Aditzaren azterketari dagokionez, euskararen berezko aditz-jokoa trinkoa dela, (*coniugatio propria*), eta ez perifrastikoa (*coniugatio impropria*), proposatu zuen. Ondoko gramatikariek, Larramendi buruzagi, perifrastikoaren jatorrasuna eta antzinatasuna aldarrikatuko dute eta Oihenarten iritzia ez da XIX. mende hondarrera arte berragertuko, garaile berragertzeko ere (jarrera bakoitzaren aldekoen zerrenda ez oso baterako, ik. Gómez [1989: 361]).

v. Laguntzaileen sistema aski ongi eman zuen, lau laguntzaile aipatu zituelarik (*nais, dud, adi* eta *esac*) eta modu eta denboren arteko euren banaketa egoki bereizi. Van Eys-en proposamenak iritsi arte, ez zen eskema hau berragertuko.

(b) *Helburu didaktikoa*: Gramatikari buruzko hausnarketan iturri baliagarriak dira hizkuntz irakaskuntzan laguntzeko eskuliburuak. Euskal tradizioako zaharrenak Micoletaren eskuizkribua eta Voltoireren liburu hainbestetan berrargitaratu eta, hala ere, hain ezezaguna ditugu. Bi lanek antzeko egitura erakusten dute: gramatikari buruzko informazio laburra, batez ere aditz-jokoek osatua; hiztegia (gaztelera-euskara Micoletarena eta frantses-euskara Voltoirerena), eta elkarrizketak (gaztelera-euskara Micoletaren kasuan eta gaztelera-frantses-euskara Voltoirerenean). Diferentziarik bada: Voltoirek errefracuak dakartza eta Micoletak, metrikari buruzko atal bat.

Honelako irakaskuntz eskuliburuen tradizioa luze eta ugaria da Europan; merkataritzaren eta bidaien premiek bultzatu zuten hizkuntzak ikasten laguntzeko materialen sortzea. Helburu praktikoa gure lanen zenbait ezaugarritan ere antzeman daiteke: esaterako, elkarrizketak batez ere merkataritzaren gainean aritzen dira; edo Micoletaren eskuizkribua Ingalaterran aurkitzea bera (euskaldunen eta ingelesten arteko merkatal erlazio estuen adierazgarri).

(c) *Euskararen deskribapena*: Lan hauetariko gehienei dagokienez, asko galdu egin dira, batzuetan zeharkako berriak ditugu, edo zati txiki batzuk baino ez ditugu ezaugarritzen. Banan bana iruzkindu ditzagun: Jacques de Belaren gramatika galdua da; Sylvain Pouvreauren lanaren zati batzuk gorde dira; Dominique Bidegarayren lanak, galdu badira ere, Nafarroako Gorteetako aktetatik euren helburu eta edukiei buruzko berriak idoki daitezke, argitaratzeko dirulaguntza eskatu baitzuen; Melchor Oyangurenaren kasuan, tagalozko artearen ale bat Parisko Biblioteka Nazionalan dago eta japonierazko artea, aresti arte galdutzat jo izan dena, Jaliskoko Biblioteka Publikoan aurkitu berri da; Oyangurenak berak euskarari buruzko zenbait lan idatzi zituela diosku, baina ez dugu horien arrastorik.

Osorik gorde zaigun obra bakarra Pierre Urterena da. Ingalaterrara erbesteratu baitzen, haren eskuizkribuak —gramatika, hiztegia eta zenbait itzulpen— bertan dira eta XIX. mende bukaera arte ez ziren argitaratzen hasi; gramatikaren edizioa W. Webster-ek burutu zuen 1896-1900 urteen bitartean. Urteren gramatika oso luzea da, datu ugariz horniturik dago. Definizio eta teorizaziorik ez da kasik, lanaren funtsezko zeregina datuok zerrenda eta paradigmetan sailkatzea delarik. Antza denez, eskuizkribua ez zen inprimategirako erabat prestatua eta, gainera, eskuizkribuaren orrialdeak desordenaturik egon litezke; honek guztiak, partez bederen, Urteren gramatikaren itxurazko desordena azal lezake. Oyharçabalek azpimarratu duen bezala, Urteren gramatika ez da analisi-lan bat, are gutxiago gramatika orokor bat ere (egileak hitzaurrean halako helburu bat aipatu arren); ordea, irakaskuntz liburuaren tradizioaren pisua somatzen da nagusiki.

Larramendiren aurreko gramatikagintzari buruzko atal hau amaitzeko, Etxeberri Sarakoaren gramatikazko ideien azterketa baten falta azpimarratu nahi nuke.

3.1.3. *Hiztegiintza*

Gramatikekin gertatu bezala, hiztegiintzaren esparruan ere Larramendik marcatzen du, nolabait, Errenazimentua deitu dudan aroaren muga. Hasierako lanetatik Lakarrak (1985a, 1985b) erakutsi du Larramendiren lanek izugarritzko aldaketa eragin zituela euskal literaturan; ondoko lanetan Larramendiren aurreko hiztegiintza miatu du, Mitxelenaren (1970) lana osatu nahian andoaindarraren iturri berriak kausitzeko asmoz; bereziki Martin Harrieten (1741) gramatikako hiztegiak anitz baliatu zituela frogatu du (Lakarra 1991, 1992, 1993, 1994a). Lakarraren doktorego-tesiak (1993) Larramendiren aurreko hiztegi guztien azterketa —egitura, tipologia, iturriak— eta zenbaiten edizioa eskaintzen dizkigu. Halaber, Larramendiren aurreko hiztegien sailkapena ematen du, bertan irizpide tipologikoa eta kronologikoa uztartzen direlarik:

- (a) Hitz zerrendak eta hiztegiñoak: Aimery Picaud (XII. m.), Arnold von Harff (XV. m.), Lucio Marineo Siculo (1533), Leizarraga (1571), Venturino (1572), Vulcanius (1597), Ibagüen-Cachopín-en kronika (1600-1605), Oihenart (1638, 1657), euskara-islandiera hiztegiak (XVII. m.), Lhwyd (1707), Manier (1726).
- (b) Hizkuntz eskuliburuaren tradizioa: Voltaire (1620), Micoleta (1653), Urte (1712).
- (c) Galdutako hiztegiak: Etxeberri Ziburukoa, Bela, Bidegaray, Etxeberri Sarakoa, Oyanguren, Duhalde.
- (d) Gordetako hiztegiak: Landucci (1562), Pouvreau (1665 b.l.), Urte (1715).
- (a) *Hitz zerrendak eta hiztegiñoak:*

Euskal Herrira etorritako bidaiari batzuk dira lehen euskal hitz zerrendak egin zituztenak: Aimery Picaud XII. mendean, Arnold von Harff XV. ean eta Marineo Siculo XVI. ean, esate baterako. Hiru zerrenda hauek Mitxelenak (1964) argitaratu eta iruzkindu zituen. Beste hiztegiño batzuk literatur lanen barruan aurkitzen ditugu: Leizarragak *Testamentu Berriari* erantsiak, edo Oihenartek neurtzitetako hitz batzuen

azalpenez atondua. Bereziki aipagarria deritzet euskal arrantzaleen eta islandiarren artean sortu zen pidgineko hitz eta esaldiak biltzen dituzten zerrende; lehenbizi Deenek 1937an argitaratu zituen eta Gidor Bilbaok kaleratu ditu berriz, azterketa osagarri batzuk lagun (ik. Bakker *et al.* 1991).

(b) *Hizkuntz eskuliburuaren tradizioa:*

Autore hauetaz gorago aritu naizelarik, diodan orain Micoletaren eskuizkribuak edizio bi izan zituela XIX. mende bukaeran eta beste berriago bat Angel Zelaietak 1988an prestatua eta 1995ean berrargitaratua. Voltoireren liburuak, aldiz, argitalpen askotxo ezagutu zituen XVII. mendean bertan, nahiz eta laburtuak eta oso aldatuak izan. Lakarrak Urteren gramatikako hiztegiak argitaratu ditu (1994c) eta laster Voltoireren lehen edizio moderno osoa (1997-98) emango du.

(c) *Galdutako hiztegiak:* Joanes Etxeberri Ziburukoaren hiztegiaren berri dakigu Pouvreaux berean erabili zuelako (*E* laburduraz adierazia) eta Oihenartek *L'art poétique*-n aipatu zuelako. Jacques de Belaren kasuan, gramatikaz den bezala, ez dugu hiztegiaren arrastorik. Bidegarayren hiztegiak ere Nafarroako Gorteen aktei esker dakigu. Melchor Oyangurennek berak esaten digu tagalo-gaztelera-euskara hiztegia idatzi zuela. Duhalde jesuitaren hiztegiak P. Delattre-k (1949-56: 1.478) emandako oharra ditugu (ik. Lakarra 1992: 282): Bordelen bibliotekari zelarik, hiru liburukitako hiztegia burutzen ari zela, XVIII. mendekoa zela eta, Bordelen xerkatu arren, aurkitu ez duela. Halaber, Humboldttek hiztegiaren berri izan zuen, nahiz eta ez zuen eskuartean izan. Esaten digu, orobat, hiru liburukitako eskuizkribua zela eta letramolde irakurgaitzekoa oso (Humboldt [*ca.* 1810-1814]: 143). Haatik, Larramendiren aurreko hiztegia denentz jakite aldera, datu kontrajarriak ditugu: Humboldttek Duhalde 1743an hil zela dioskularik, Delattre-k 1762an Bordelen eri bizi zela baieztatzen du.

Etxeberri Sarakoak (1668?-1749) hiztegi laukoitza ondu zuen (euskara-gaztelera-frantsesa-latina); Larramendik berea egiteko eskuartean izan zuela diosku hitzaurrean. Bada XVIII. mendeko beste hiztegi laukoitz bat, Sbarbi-Urquijo izenarekin ezagutzen dena eta zenbaitek pentsatu dute Etxeberriren galdua zela. Ordea, gaur egungo iritzi zabalduna da Etxeberriren hiztegiaren birmoldaketa bat dela, moldatzaileak —Etxeberrik berak edo beste norbaitek— Larramendiren hiztegiko hitzak sartu zituelarik (eztabaidaren laburpenerako, ik. Lakarra 1992: 293-296).

(d) *Gordetako hiztegiak:* Niccolao Landucci-rena (1562) da tamaina handiko lehen euskal hiztegia. Arabako euskara jaso zuen eta, itxura osoz, hiru laguntzaile izan zituen (A, B, C hizkiez ezagunak). Zuazok (1989) erakutsi duenez, Arabako euskararen barneko azpieuskalkiak ere islatzen dira. Agud-ek eta Mitxelena 1958an lehen aldiz argitaratu bazuten ere, ez zen ezezagun. Larramendik eta Azkuek ezagutu eta arbuiatu egin zuten, erdarakadaz beterik zegoelako; hala ere, Larramendik hitz batzuk jaso zituen *Hiztegi Hirukoitzaren* eranskinean, Azkuek, zeharka, berean sartu zituenak (Mitxelena 1970).

Pouvreauren euskara-frantses hiztegiak oraindik argitaragabe dirau. Eskuizkribua Parisko Biblioteka Nazionalean dago, bi kopia desberdinetan (A, B). Bada hirugarren kopia laburrago bat (C), euskara-frantses-latin-gaztelera, Gidor Bilbaok (1992) argitaratua. Mari Jose Kerejeta bere doktorego tesia egiten ari da Pouvreauren hiztegia-

ri buruz, baina aurreko lan batean (1991) jada Oihenartek Pouvreauri bidalitako ohar-
 rarak eta Pouvreauk erabilitako laburdurak (*H bereziki*) aztertu zituen. Izan ere, Pou-
 vreauk euskal idazleek —Axular, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Harizmendi eta
 Haranburuk— erabilitako hitzak sartu zituen, batzuetan adibidez horniturik. Bestal-
 de, askotan atzizkiez baliatzen da hitz berriak sortzeko. Seguru da hitz gehienak ez
 zituela testuetan aurkitu; aitzitik, ondo ezagutzen zuen hizkuntzaren ahalmenaz baliat-
 u zen. Hau garai bateko Europako hiztegi-gintzaren ezaugarria bide da, Lakarrak
 (1993, 1995, 1996) erakutsi duen bezala. Esanguratsua da zentzu horretan hiztegia-
 ren antolakuntza: ez zaio erabateko ordena alfabetikoari jarraitzen; interesgarriena
 da oinarritzko hitza agertzen dela eta haren ondo-ondoan hitz horretatik sortzen diren
 eratorriak (antolakuntza hau Maurice Harrieten hiztegi eskuizkribatuan eta honen
 zordun zuzena den Lhanderenean [1926-38] ere aurkituko dugu). Pouvreurena ez da,
 Mitxelenak (1961) uste izan zuen bezala, “autoritateen” hiztegia; Pouvreau sortzaile
 azaltzen zaigu, biltzaile bainoago.

Urteren latin-euskara hiztegia (1715) Urkizuk argitaratu du, bai eta euskara-fran-
 tses-gaztelera-latina moldera berregituratu eta osatu ere (Urkizu 1989). Urkizuk,
 lehenago Mitxelenak (1961) bezalatsu, uste du Urte Donibane-Lohizuneko eta ingu-
 ruko hizkeretako hitzak biltzera —hango “hitz kutxa” jator eta herrikoia ematera—
 mugatu zela (ik., esaterako, Urkizu 1989: 109, 134). Lakarrak (1993, 1994b, 1996),
 aldiz, hitz eratorri eta elkartuen maiztasun handia ikusirik, Pouvreuren kasuan ikusi
 dugun bezalaxe, horietariko hitz asko Urtek berak sortu zituela diosku; eta ez guz-
 tiak oso modu “jatorrean” eratuak, bidenabar esanik.

3.2. XVIII. mendea: Larramendiren garaia

3.2.1. *Larramendiren kultur proiektua eta hiztegia*

XVIII. mendean Larramendiren “iraultza” dugu euskalaritzaren gertakari nagusi.
 Gorago (§2.) esan bezala, Larramendiren garrantziaz jabetzeak markatzen du, nire
 ustez, euskalaritzaren historiari buruzko ikerketen aro berria. Gauzak horrela, egoki
 deritzot hurrengo bost puntuetan Larramendiri buruzko aurreko ikuspegia laburki
 aurkeztu eta hurbilketa berriaren ikuspuntuarekin kontrajartzeari (ik., besteak beste,
 Lakarra 1985a eta Gómez 1991a). Puntu bakoitzeko lehen paragrafoan aurreko iri-
 tzia azaltzen da; bigarrenean berria:

(a) Bere lana teoriko eta apologetiko hutsa da, kanpotarrei zuzendua, berauei eus-
 kararen antzinasuna, perfektzioa eta aberastasuna frogatzeko asmoz egina.

Honen aurrean hurbilketa berriak Larramendik kultur proiektu bati ekin ziola
 azpimarratzen du; alegia, Larramendik euskara kultur hizkuntza bihurtu nahi zuen.
 Horretarako, apologia, gramatika eta hiztegia idaztea ezinbesteko urratsak zituen.
 Euskararen apologia idaztea aurrepauso bat zen hizkuntzaren duintasuna frogatzeko:
 hizkuntzaren antzinasuna frogatu behar zuen (noblezia); euskara gramatika-araue-
 tara molda zitekeela frogatu behar zuen (perfektzioa), eta, azkenik, edozein gairi
 buruz aritzeko lain hitz-altxorra bazuela frogatu behar zuen (abertasuna). Europa
 guztian aurkitzen ditugu honelako saioak eta gehienetan Larramendik jarraitutako
 ordena berbera errepikatzen da: apologia-gramatika-hiztegia.

(b) Hiztegian erabili zuen gaztelera-euskara ordenak (Espainiako Akademiaren *Diccionario de Autoridades* artean argitaratu berriari oinarritua) hainbat hitz berri eta etimologia barregarri asmatzera behartu zuen, gaztelera hitz bakoitzari bere euskal ordaina emateko; berak, aldiz, hiru hitz baino ez zituela asmatu aitortu zuen (*godaria* 'txokolatea', *surrautsa* 'tabako-hautsa' eta *sutumpa* 'kainoia').

Larramendik nahitaezkoa zuen ordena hori erabiltzea, euskara behar zituen hitz tekniko guztiez (*voces facultativas*) hornituko bazuen. Larramendik sartu zituen hitz berriak, hain zuzen ere, horrelako hitz teknikoak dira, zientzia, teknika eta arteetan beharrezkoak direnak eta euskarari faltatzen zirenak, peitu zirenak.

(c) Euskal hitzetan ez zuen euskalkien erreferentziarik eman, gero Azkuek egingo zuen moduan.

Ez zuen hala jokatu, helburuak desberdinak zirelako, hain zuzen. Azkuek euskarari dagoen hitz oro justifikatu nahi du; Larramendik, aldiz, euskarari hitz berriak eman nahi dizkio, aberastu egin nahi du eta horretarako bide bat euskaldun guztiek euskalki guztietako hitzak erabiltzea da, bereziki beren euskalkian kontzeptu bati dagokion euskal hitz jatorria ez dagoenean eta beste euskalki batean aurkitzen denean —eta azpimarratu behar da garbizaletasun mota hau ez zela berria euskal hiztegiileen artean, Lakarrak (1993, 1994b) erakutsi duenez—.

(d) Gainera, berak ere euskaraz idaztean ez zituen asmatutako hitz berriak erabiltzen.

Bai erabili zituen, behar zituen neurrian baina, ondoko idazleek bezalaxe: gaiak hala eskatzen zuen bakoitzean.

(e) Larramendi garbizaletasunaren aitzindaria izan zen. Haren jarrerak Hegoaldeko literaturan joera teoriko (gaztelera idatzia eta apologetikoa) eta garbizale bat abiarazi zuen, Iparraldeko literatura praktikoa (euskaraz) eta herrikoia goaren aldean.

Garbizalea izan zen, ezin ukatu, baina ez geroago Arana-Goiri izango zen zentzu berean. Larramendik euskarari sustraiturik dauden latinetik eta erromantzetikoa maileguak onartu zituen. Arana-Goirik, aldiz, inguruko hizkuntzen arrasto guztiak euskaratik ezabatu nahi izan zituen. Bestalde, Larramendiren hiztegiko hitzek eta gramatikako moldeek euskal literaturaren berrikuntza sakona ekarri zuten, eta ez Hegoaldean soilik (ik. Sarasola 1986). Izan ere, Larramendik euskal literaturari utzi zion emaitza garrantzitsuena euskal idazle izatearen kontzientzia izan zen. Aurrerantzean, idazleek hizkuntzarekiko ardura berezia (bai gramatikan, bai hiztegiari) jarriko dute eta honexek markatzen du, hain zuzen, Larramendiren aurreko eta ondoko euskal literaturaren arteko aldea. Horrela, literatur gipuzkeraren sorrera zuzenki eragin zuen, baita zeharka literatur bizkaierarena ere. Larramendiren itzalak luze iraun zuen euskalaritzan eta euskal literaturan, XIX. mendearen hondarrean Arana-Goiriren nazionalismoak haren lekua hartu zuen arte.

Nolanahi ere den, gogorarazi behar da Larramendirena ez zela euskara kultur hizkuntza bilakatzeko lehen proiektua izan. Lehenagokoak ditugu Bidegarayrena eta Etxeberri Sarakoarena. Baina Larramendiren proiektua izan zen euretari laguntza eta arrakasta lortu zituen bakarra.

3.2.2. *Larramendi apologilari*

Larramendiren apologi lana —*De la antigüedad y universalidad del bascuenzen* (1728) eta *Hiztegi Hirukoitzaren* (1745) hitzaurrean batik bat islatzen direnak— Tovarrek (1980) laburtu du. Euskararen apologiaz ari delarik, Larramendi ideia tradizionalen jarraitzaile hutsa azaltzen bide zaigu, hau da, Penintsularen Antzinateko hizkuntz batasunaren eta kantabrismoaren aldeko. Larramendiren ideiak funtsean ondo biltzen baditu ere, ikusi dugun bezala andoaindarraren azken helburuei dago-kienez Tovarren lanak berrikusketa bat behar luke.

3.2.3. *Larramendiren gramatikagintza*

Gramatikagintzaz den bezainbatean, Larramendiren eredu posibleak aurkeztu dira eta euskal gramatika bat egiterakoan eredu greko-latindarrari atxikitzeak Larramendiri sortarazi zizkion egokitasun eta desegokitasunak azpimarratu (Gómez 1991b). Izan ere, oso gutxitan agertzen zaigu Larramendi eredu klasikoaren gainetik, euskal gramatikaren alderdi bat beregain azaltzeko; ostera, gehienetan ereduarekiko atxikimendu itsua dela-eta euskal gramatikaren zenbait ezaugarri era desegoki batean emango ditu (edo ez ditu emango).

Ildo honetatik Oyharçabalek (1993) Oihenarten eta Larramendiren gramatika-lanen arteko konparaketa aberasgarria burutu du. Larramendik bere *Artean* askoz datu gehiago sartzen baditu ere, Oihenarten analisiak zorrotzagoak dira eta eredu klasikoarekiko askeagoak.

3.3. XIX. mendea: lehen eztanda

3.3.1. *Euskalaritza atzerrira*

XVIII. mendearen bukaera eta XIX.ekoaren hasiera bitartekoa euskal kulturaren berebiziko garaitzat jo zuen Gáratek (1936). Hala izan edo ez izan, aski garbi dago orduantxe hasi zirela atzerriko ikerlariak euskarari buruz arduratzen, aurreragoko aipamen zenbait baziren ere (Urkizu 1986). Hervás eta Humboldt dira interes hau erakusten duten pertsonaia nagusiak. Nahiko egile serio eta kritikoak izan arren, euskararekin topo egin zutenean nolabaiteko lilurak lausotu bide zituen eta gehiegi fidatu ziren euskal informatzaileez: Larramendi Hervásen kasuan (Tovar 1986 [1980]); Mogel eta, bereziki, Astarloa Humboldten kasuan (Mitxelena 1973).

Nolanahi ere den, Humboldten euskarari buruzko lanen ikerketa sakonak prestaketan dagoen prusiarraren lan guztien edizio berriaren zain geratu behar du (Hurch, Kerejeta & Vollmann (arg.) prestatzen), material berri askotxo —eta ezagun zirenen edizio oso eta zuzenak— agindu baitzaizkigu. Bien bitartean, euskal gramatikaren puntu batzuei buruzko iritzi eta analisiak aztertu dira (Gómez 1996), Humboldtek jorratu zituen beste arloen gaineko lanak biltzen dituen liburu baten barruan. Bestalde, Hervás eta Humboldten obrak mundu zabaleko hainbat hizkuntzari buruzko informazioa luzatu zien bertako euskalariei. Batik bat —baina ez soilik— Astarloaren lanetan nabarmentzen da datu horien erabilera.

3.3.2. *Astarloa*

Larramendiren ondoren, badirudi Astarloa izan dela euskalarien “zerrenda beltzetik” atera nahi izan den hurrengoa. Horretarako lehen urratsak Lakak (1989) eman ditu; Lakak Astarloaren hizkuntz filosofo irudia nabarmentzen du eta hizkuntzaren jatorriari buruzko haren ideiak, bereziki hizkuntz ahalmenari buruzkoak, egungo gramatika sortzailearen begietatik aurkezten dizkigu.

Aldi berean, Alberdik (1989a) euskal gramatika zaharren deklinabideari buruzko azterketei so eginik, Astarloaren ekarpena arreta bereziz aztertzen du, eta aurreneko aldiz, nik dakidala bederen, durangarraren eredu greko-latindarrarekiko haustura azpimarkatzen du. Orobat, Frantziako razionalistekin lotzen du; baina uste dut tronpatzen dela, orduko joeren artean hautatzerakoan, Du Marsais eta Beauzée entziklopedistekin parekatzen baitu, Court de Gébelin bezalako sentsualistekin bainoago.

Berriki, nik neuk ekin diot azken eraginbide hau aztertzeari (Gómez 1999), Astarloaren hizkuntz ideien oinarriak eta, bereziki, aditz teoriarekikoak Frantziako enpiristekin (edo, nahiago bada, sentsualistekin) alderatuz: De Broses eta oraintsu aipatu Court de Gébelin izan litezke erreferentziarik gertuenak. Astarloak gizakien lehen hizkuntza euskara izan zela frogatu nahi izan zuen; alabaina frogabide gisa erabili zituen metodoa eta oinarriak dira, ene iritziz, interesgarriagoak, helburua bera baino. Bestalde, saio horretan Astarloak erakusten dituen sistematikotasunak eta sakontasunak euskal morfologiaren ezagutzan aurrerapauso handiak ekarri zituela nabarmendu nahi nuke; esate baterako, euskal adizkien morfema-zatiketa berak abiatu zuen. Guztiarekin ere, Frantziatik zetorren gramatika orokor eta filosofikoaren itzalak ez zituen gure artean Astarloaren lanak soilik estali. Darrigol (1827) eta d’Abbadie eta Chaho (1836) dira beharbada beste adibide garbi batzuk.

3.3.3. *Euskararen irakasliburuak eta gramatika deskribatzaileak*

XIX. mendeak euskararen irakasliburu eta gramatika didaktikoen egundoko gorakada ikusi zuen, XVII.ean abiatu zen tradizioari jarraiki. Hainbat eta hainbat dira, zein luze zein labur, Euskal Herrian edo atzerrian argitaraturik, euskararen deskribapen, arau, paradigma, hiztegiño eta adibideak eskaintzen dituzten lanak, euskararen ikaskuntzan laguntzea edota euskararen deskribapen soila ematea helburu dutenak: Añibarro [ca. 1820], Lécuse (1826), Hiriart (1840), Iturriaga (1841), Zavala (1848), Archu (1852, 1868), Lardizabal (1856), Inchauspe (1858), Fabre (1862, 1873), Eguren (1868, 1876), Gèze (1873), Jauregui (1883), Campión (1884), Ithurry (1895), Epalza (1896), Huici (1899), etab.

Zerrenda osoa aurkeztea luzeegi gertatuko litzaziguke, baina bat edo beste nabarmendu behar bada, Astigarragarena honetara nahi nuke. Luis Astigarragaren lana, gaurko euskalari askori erabat ezezagun bazaio ere, 1825eko lehen ediziotik ezagutzen dudana azkena den 1935ekorarte, 40 bat argitalpen izan zituen. Bestalde, lan hau interesgarria da Larramendiren eraginak noiz arte iraun zuen eta Arana-Goirirena noiz gailendu zitzaion miatzeko. EHUko Euskal Filologiako ikasle batzuk (Alonso & Bernal 1997) zenbait edizioaren arteko erkaketa burutu dute eta bakoitzean erabiltzen den hiztegian —hiztegi teknikoan batez ere— bi eraginbide desberdinen aztarnak aurkitu eta aztertu dituzte. Bitxia bada ere, ezer gutxi dakigu Astigarragaren bizi-

tzaz. Lehenbiziko argitalpenaren izenburuan “miembro de la Sociedad de Instrucción elemental de París” zela agertzen da. Bidenabar, 1920tik aurrera izenburuek Euskaltzaindiaren ortografiari atxiki zaiola aipatzen dute.

3.3.4. *Hizkuntz eztabaidak*

XIX. menderarte ez da Europan hizkuntzalaritza modernoa sortuko, Humboldt delarik aitzindarietariko bat, eta mendearen bigarren erdian sartuko dira ideia eta metodo berriak Euskal Herrian zenbait hizkuntzalari atzerritarren eskutik: Bonaparte Printzea, Vinson, van Eys, besteak beste. XIX. mende honetan gramatika konparatzailea —maiz tipologiarekin nahastua— edo dialektologia bezalako arloek lehen urratsak egin zituzten euskalaritzan. Bestalde, eusko-iberismoaren teoriak behera egin ahala, euskararen jatorriari buruzko galderak berriz ere aurkitu zuen axola handiko lekua, garaiko ildoetan barrena abiatu euskara hizkuntza eta hizkuntz familia anitzekin konparatu baitzen. Lehenengo belaunaldi atzerritarrekoen artean eztabaida luze eta gogorak egon ziren, beraien fruitu izan zelarik 70 eta 80etako hamarkadetako bibliografi ekoizpen itzela.

Granja Pascual-ek (1986) Vinsonen eta Campionen arteko eztabaida sonatua jaso du: euskara gizarte eta bizimodu berrietarako egokia zenentz izan zuten hizpide. Nik (Gómez 1989) bereziki Bonaparte, Luchaire, van Eys eta Vinsonen arteko hizkuntz eztabaidetan erabili ziren gaiak aztertu ditut: lehenbizi, gramatika konparatzailearen eragina —batez ere Schleicher-en teoriak Vinsonengan izan zuten eragina— aztertu dut; bigarrenik, eztabaidetan parte hartu zuten autoreek hizkuntzalaritza berriari eta beronen metodoari buruz zituzten jarrera desberdinak bereizi ditut; hirugarrenik, autoreok euskararen eta mundu zabaleko beste hainbat hizkuntzaren artean proposatu zituzten erkaketak aipatu eta iruzkindu ditut; azkenik, eusko-iberismoaren arazoz, euskararen bizitzari buruzko iritziez eta euskalkien auziaz esan zituztenak jaso ditut.

3.4. XX. mendea: normalizaziorantz

3.4.1. *Euskalaritzaren atzerapena gainditu nahian*

Mende honen hasierako euskalaritzaren egoera —haren aurrerapenak, mugak eta eginkizunak— aski ongi seinalatu zuen Urquijok (1911, 1918); berrikiago, morfologiari dagokionez, Alberdik (1989b) aztertu du. Mende hasierako euskalarien artean bi talde nagusi bereiz daitezke:

- (a) Jarrera aprioristikoa dutenak.
- (b) Jarrera zientifikoa dutenak.

(a) *Jarrera aprioristikoa*: Euskara aztertzeko metodo aprioristiko eta logikazaleak baliatzen dituzte. Eskuarki autore hauek euskara ustezko lehengo egoerara bihurtzen saiatzen dira (aditz trinkoen paradigmak “berreskuratzeko” ahaleginen kasuan, esaterako; ik. orain Plazaola 1999). Jarrera honen abiapuntua Astarloaren irakurketa itsu batean, erregularitasun eta logikarako gehiegizko atxikimenduan bila daiteke. Talde honen fruitu nabarmenena Mitxelenak hiperbizkaiera deitu zuena izan zen. Honela definitu zuen Mitxelenak hiperbizkaiera:

algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida en que tiene menos copartícipes o, en otras palabras, en la medida en que no es vasco común. (Mitzelena 1981: 300)

Hiperbizkaieraren historia da, bestalde, Lakaren (1986a) tesina bikainaren gaia, gero zenbait artikulutan zatika argitaratu zena (Laka 1986b, 1987a, b, c). Lakak erakusten du hiperbizkaieraren iturburua Azkue gaztearen *Euskal Izkindea* gramatikan (1891) eta bertan proposatutako aditz-sistema berrian dagoela. Halaber, Lakak frogatzen du *Izkindearen* iturri nagusia Astarloaren lana izan zela. Arana-Goirik Azkue-ren proposamena jaso zuen eta aranatarren eskolakoek bereziki —baina ez soilik— onartu, erabili eta hedatu egin zuten. Areago, aranatar zenbait (Arriandiaga, Etxaide edo Soloeta-Dima, kasu) bizkaierarekiko joera garbizalea euskara osora zabaltzen saiatuko ziren.

(b) *Jarrera zientifikoa* erakusten zutenen artean gehienak atzerritarrak ziren, Urquijok berak markatu zuenez: Schuchardt, Uhlenbeck, Saroihandy, Gavel,...; baina bertako batzuk ere baziren: Azkue heldua, Altube edo Urquijo bera. Hauek guztiak dira, hain zuzen, Urquijok bere *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (RIEV) aldizkarian idazteko bilatzen zituenak, atzerritaren prestakuntza teorikoaren eta bertakoen euskararen ezagutza sakonaren elkarlanaren bitartez euskalaritzaren maila jasotzeko asmoz. Autore hauek dira, halaber, I. eta III. Eusko Ikaskuntzako Kongresuetan (Oñati 1918; Donostia 1923) parte hartu zutenetarik, Menéndez Pidal, Amado Alonso eta Navarro Tomás espainarrekina batera.

Mende hasiera honetako bi aztergai azpimarratu nahi nituzke: eusko-iberismoa eta pasibismoaren teoria.

- *Eusko-iberismoa*: Eusko-iberismoak tradizio luzea zuen, ikusi dugunez, *tubalismo* deiturapean lehen apologigileen lanetan bertan aurkitzen baitugu; XIX. mende hasieran Humboldték euskaldunak iberoen ondorengoak egiten zituen teoria berpiztu, jantzi zientifikoz hornitu eta Europan ezagutarazi zuen. XIX. mende bukaeratik —eta, neurri handi batean, Humboldtén ospearen itzalean— Schuchardtek eta beste zenbaiték iker-lerro honi ekin zioten berriro. 1925ean Gómez Morenok iberieraren irakurketa zuzena aurkitzean, urak aski baretu ziren; geroztik, Bähr-en tesiak eta, ondoren, Mitxelenaren eta Tovarren lanek euskararen eta iberieraren arteko erlazioak dakiguna (eta batez ere ez dakiguna) ondo zehaztu dute. Gaur egun, ostera ere ikusten ari gara euskara eta iberierari buruzko lan berrien uholde bat, baina horien iruzkinak lan honen neurrietarik at eramango gintuzke.

- *Pasibismoa*: Euskal aditza pasiboa zelako teoriaren historiaz Alberdi (1989b) eta Oyharçabal (1991) aritu dira bereziki. Teoria hau euskalaritzan sartu zutenak Müller (1885), Stempf (1890) eta Schuchardt (1893) izan ziren eta 1960 arte-edo nagusitu zen euskalaritzan —gogora bedi Sarasolaren lan batek (1977) oraindik pasibismoaren kontrako argudioak erakusteko beharra islatzen duela—. Ideia hau hizkuntza ergatiboan egitura interpretatzeko modu bat zen, absolutibodun argumentuak beti subjektutzat hartzen zituena, eta hizkuntza kaukasikoei buruz aldarrikatu zen lehen-bizikoz; egungo —edo atzoko— gramatika sortzailean haren antzeko proposamenak

ageri dira, Murasugirena (1992) kasu. Pasibismoak bi taldetan banatu zituen euskalariak: atzerritar gehienak eta bertakoren bat (Albert Léon, Urquijo) alde; euskaldunak eta atzerritarren bat (Vinson, esaterako) kontra, nahiz eta etxeko gehienak beldurrez-edo eztabaidatik kanpo geratu ziren (Oyharçabal, a.e.). Oyharçabalek (1991), orobat, pasibismoaren teoria eta XIX. mende hasieran Chahok euskalaritzan sartu zuen aditz bakarraren teoriaren arteko loturak aztertu ditu.

3.4.2. Gramatika dialektalak eta arauemaileak

Lehen mende erdi honetako gramatikak gehienbat euskalkien datuak biltzera eman ziren, batzuk jarrera arauemaile bati ere lotu zitzaizkiolarik. Ene iritziz, aipagarrienak hauek dira: Azkueren *Morfología Vasca* (1923-25), Gavel eta Lacomberen *Grammaire Basque* (I, 1929; II, 1937) eta Lafitteren izen berekoa (1944). Lehenak eta azkenak arrakasta eta eragin aparta izan bazuten ere, badirudi tartekoak ez zuela hain sona handirik lortu eta oraingoz euskalari askorentzat zeharo ezezagun da. Garai honetako gramatikagintzaz ez dut azterketarik ezagutzen, Alberdiren (1989b) artikuluz kanpo.

3.4.3. Hiztegi gintza

<p><u>adiera zabala</u></p> <p>literatur testu bat zuzen interpretatzeko ezagutu behar diren gauza guztien azterketa</p> <p>(Wolf 1777)</p>	<p><u>adiera hertsia</u></p> <p>filologia = testukritika (kritikoki aztertutako testuak egoki argitaratzeko teknika edo metodoa)</p>
---	--

euskal filologiaren hastapenak

20

UPV. EHU.

BI ADIEREN ARTEKO DIFERENTZIARIK?

Testua finkatzea: forma

Testua azaltzea: edukia


Testuaren azterketa kritikoa (ikuspuntu estetiko, kultural, ideologiko, etab. erabiliz)

euskal filologiaren hastapenak

21

UPV. EHU.

ADIBIDE BAT: BARRUTIAREN *GABONETAKO IKUSKIZUNA* (XVIII. M.)



euskal filologiaren hastapenak

22

UPV. EHU.

BESTE ADIBIDE BATZUK

- izen propio bat itxuraldaturik (Laz. B33 *Oereanic jagui ninçan...*: “Pullal”, “Cicilia”...)
- kultur edota literatur aipamenak (Laz. “Itsaso hori tinta baledi...”, A6: 19-22)
- forma berbera duten bi hitz (Laz. “naç”, AL: 1152r)

→ filologoak egilearen eta haren garaiko kultura, hizkuntza eta estiloaren ezaugarriak ezagutu

euskal filologiaren hastapenak

23


UPV. EHU.

ONDORIOAK

- Testuaren finkatze zuzen eta egokia
→ testuaren azalpena eta azterketa kritikoa ditu barruan
- Testuaren forma finkatzeko ezagutza batzuk erabili behar (filologiaren adiera hertsia eta adiera zabala elkarrengandik hurbil)

euskal filologiaren hastapenak

24

 UPV. EHU.

EUSKAL FILOLOGIAREN BI ADIERA

<u>adiera zabala</u>	<u>adiera hertsia</u>
<ul style="list-style-type: none">o euskal literaturao euskal hizkuntzalaritzao euskal dialektologiao Euskal Herriko historia, geografia, kultura...	<ul style="list-style-type: none">o euskal testuak finkatzeao euskal testuen azterketao euskal testu zaharretako hizkuntza aztertzea

euskal filologiaren hastapenak

25

2. gaia: Bibliografia materialaren eta liburuaren historiaren hastapenak

1 Sarrera

Liburuek ez dute beti itxura bera izan. Are gehiago, beti ez da libururik izan.

Kontuan hartu beharreko beste gauza bat: literatura liburua baino lehenago sortzen da; hasieran literatur lanak ahoz ematen ziren ezagutzera —Homeroren lanak, esaterako, askoz beranduago finkatu ziren idatziz—; geroago, testuaren idatzizko bertsio bat egin zen, erreferentzia gisa erabiltzeko.

Bestalde, liburuaren itxurak (materiala, forma, tamaina, etab.) eta idazkerak eragin handia izan dute testuen transmisioan. Ikusiko dugunez, testuak denboran zehar, transmisioaren poderioz, aldatu egiten dira eta filologoaren lana da testuak beren jatorrizko egoerara bihurtzea.

Lehen gaian ikusi genuenez, filologia testuez arduratzen da. Paleografia, aldiz, idazkera aztertzen duen jakintza da, eta kodikologia liburuen (bereziki eskuizkribuen) alderdi material guztiak hartzen ditu kontuan: materialak, forma, tamaina, egiteko prozedurak, etab. Azkenik, bibliografia materiala (lehenik, Ingalaterran aztertua) inprimatuen alderdi materialak aztertzen ditu: tinta, papera, tipoak, formatua, inprimatzea, argitaraldiak, egitura, etab.

Seguruena idazteko erabili zen lehen materialetako bat zuhaitz-enborren azala izan zen. Izan ere, ‘liburu’ adierazteko bai grezieraz eta bai latinez erabiltzen diren hitzek jatorriz ‘zuhaitzen azala’ esan nahi dute: gr. *byblos* eta lat. *liber*.

2 Egipto: papiroak eta bilkariak

DIPOSITIBA: papiro landarea

Papyrus izena grekoek eman zioten Egipton sortzen zen landare bati (*Cyperus papyrus*).

DIAPPOSITIBA: nola egiten zen papiroa

Nola egiten ziren papiroak: landarearen zurtoina erabiltzen zen; tira finetan mozten zen eta lehortu egiten ziren. Gero, horizontalki antolatzen ziren geruza desberdinak eratuz, bakoitza hurrengoaren ertzetan gainjarriaz. Ondoren, tira gehiago eransten ziren gainean, baina hauek bertikalki. Kolpeak eman eta urez bustita, materia konpaktu eta iraunkorra lortzen zen. Tirak orriak moldatzeko konbinatu ondoren, kolaz estaltzen ziren (tinta ez zabaltzeko), eguzkitan lehortu eta leundu. Papiroa prest zegoen.

Papiroetan normalean tirak horizontalki zituen aldean bakarrik idazten zen.

DIAPPOSITIBA: papiro bilkaria

Papiroa bildu egiten zen, idatzi gabe zegoen atzeko alde kanpoaldean geratzen zelarik eta idatzia, barruan. Beraz, liburuaren forma bilkari edo erroilua zen.

Liburua irakurtzeko zabaldu behar zen, horrela idatzitakoa agerian utziz. Normalean ez zen bilkari guztian zehar jarraian idazten, baizik eta zutabetan; horrela, bilkaria “orrialdeak” bezalako ataletan bereizten zen. Orrialde hauek papiroa zabaldu ahala agertzen ziren. Testua eskuin muturrean hasten zen eta “orrialdeak” eskuinetik ezkerrera irakurtzen ziren. Irakurleak ezkerrarekin zabaltzen zuen liburua eta irakurri ahala eskuinarekin bildu. Beraz, berriro irakurtzeko liburu guztia zabaldu behar zen, eta berriz osorik bildu.

Bilkariak gordetzeko buztinezko ontziak (pitzarrak) edo egurrezko kutxatilik erabiltzen ziren.

Bestalde, papiroan idazteko ihia erabiltzen zen eta geroago kanabera zati zorroztu bat (lat. *calamus*).

DIAPPOSITIBA: papiro puskak

Papiroa ez zen, dena dela, oso iraunkorra. Askotan intsektuek jaten zuten. Hala ere, kalte handiena hezetasunak sortzen zion. Ez da kasualitatez ezagutzen ditugun papiro gehienak Egipton aurkitzea (ez Grezian edo Erroman) eta hor ere ez Niloko deltan, baizik eta barruko basamortuan. Bereziki ondo kontserbatu dira egiptoarren hilobietan.

Izan ere, oso ohitura zabaldua zen hilkutzaren ondoan testu sakratuak, otoitzak eta bestelako testuak uztea, hildakoek beren bizi berrirako bidean erabil zituzten.

3 Txina

DIPOSITIBA: dortoka oskol batean idatzitako txinerazko karaktereak

Oso zaharra da idazkera Txinan, K. a. III. milurtekokoa edo. Hasieran erabili ziren materialak hezurak, dortoken oskolak eta, geroago, egurrezko taulatxoak izan ziren.

Taulatxoetan, eskuineko goiko angeluan hasten zen idazten, goitik behera eta zutabeak eskuinetik ezkerrean antolatuz, gaur egun bezala.

Ia ez zaigu garai hartako egurrezko eskuizkriburik gorde. Izan ere, K. a. 213. urtean enperadoreak liburu guztiak erretzea agindu zuen, idazle batzuek bere politika kritikatu zutelako.

Baina erreketaren ondorioz, literatur ekimen handia hasi zen. Salbatu zen guztia bildu eta berrargitaratzeari ekin zitzaion, baina oraingoan, egurra erabili beharrean, setaren gainean idatzi zen. Seta askoz ere malguagoa zen eta azala leunagoa; bestalde, askoz garestiagoa zen.

4 Mesopotamia: buztinezko taulatxoak

DIPOSITIBA: Mesopotamiako mapa eta idazkera kuneiformea

Mesopotamia, Tigris eta Eufrates ibaien arteko lurraldea, gaurko Irak-en.

Akadioek K. a. III. milurtekoaren amaieran idazkera kuneiformea zabaldu zuten. Akadioen ondorengoak ziren babiloniarrek eta hauek, asirioekin batera, Ekialde Ertaina menperatu zuten Alejandro Handiaren konkista arte (K. a. IV. m.).

DIPOSITIBA: Eblako taulatxo bat eta Hammurabi kodea

Buztinezko taulatxoak erabiltzen zituzten gehienbat. Mesopotamian ez zegoen harri ez egur askorik (palmondoarena bai, idazteko kalitate txarrekoa); horregatik buztina erabiltzen zuten: ugari, merke, idazteko eta gordetzeko erraza.

Idazteko metalezko, marfilezko edo egurrezko tresna bat erabiltzen zuten. Honek triangelu forma zuen eta horregatik ikurren forma kuneiformea. Buztina bigun zegoenean idazten zen eta gero eguzkitan lehortzen ziren edo labe batean egosi.

Taulatxoaren bi aldeetan idazten zen.

Idatzi gehienen gaiak: inbentarioak, kontuak... Tamaina txikiko taulatxoak ziren hauek.

Taula handiagoetan: testu erlijiosoak, legeak, literatura... Horietako batzuk beste euskarri batzuetan (zilarra, basaltoa...).

Ospetsuenetakoa Hammurabi kodea da, basaltozko bloke batean idatzia (2,5 m x 1,9 m). Eguneroko bizitza arautzen zuten legeak biltzen ditu.

5 Greziako papiroak

DIAPPOSITIBA: Platon, Errepublikak (K.a. IV. m.)

Dirudienez, papirozko bilkariak K. a. VII. mendean sartu ziren Grezian; V. menderako erabat zabaldurik bide zeuden.

Grekoek papirozko orriari *chartes* (χάρτης) deitu zioten, eta horretarako latinez *charta* erabili zen. Bilkariari, aldiz, *kylindros* edo *tomos* deitu zioten; erromatarrek *volumen* edo *tomus* deitu zioten.

DIAPPOSITIBA: Alexandriako Liburutegia

Alexandriako Liburutegia K. a. III. mendean sortu zen, Alexandro Handiaren inperioa desegin ondoren. Ptolomeo I.ak, Egiptoko erregeak eta lehenago Alexandroren jenerala izandakoak eraikiarazi zuen. Helburu nagusia literatura greko guztia biltzea zen, ahalik eta kopia hoberenak eginez, sailkatuz eta komentatuz eta horretarako ikertzaile eta idazlari edo eskriba talde bat bildu zen.

Jakina, bibliotekara iristen ziren testu batzuk hondatuta zeuden edo irakurgaitzak ziren. Gainera, testu baten kopien artean aldaerak aurkitzen zituzten. Zailtasun hauek guztiek ikerketa metodoen aurrerapen handia ekarri zuten (adibidez, ikur kritikoen

sistema bat asmatu zuten).¹ Horrela, irakurleek erabili ohi zituzten testuen oinarrizko bertsioak finkatzeko ahalegin guztiak egin zituzten. Bestalde, testuen azterketak edo iruzkinak ere idatzi zituzten, aparteko liburuak osatuz. Iruzkin hauek mende batzuk geroago (K. o. IV-V) testuaren margenetan kopiatzen hasi ziren; eskolioak deitzen dira.

Pentsatu izan da Alexandriako Liburutegiaren lehen sute handia Julio Zesarrek Alexandria konkistatu zuenean (K. a. 48-47 urteetan) gertatu zela [Cleopatra, Mankiewicz]; hala ere, badirudi orduan portuan zeuden biltegi batzuk erre zirela, hainbat bilkari suntsituz (40.000 inguru), baina Liburutegiaren eraikina ez zen erre. Ziurrenik, bibliotekaren suntsiketa nagusia III-IV. mendeetan gertatu zen, erromatarren arpilatzeen eta garai hartako lurrikaren ondorioz. Azkenik, batzuen ustez, Liburutegiaren azken aztarnak 391. urtean suntsitu ziren, kristau koptoen matxinada bat izan zen-eta [Ágora (Hipatia), Amenábar].

DIPOSITIBA: grekozko idazkera zaindua eta arrunta

Literatur lanak idazteko ia bakarrik letra larriak (*capitales*) erabiltzen ziren; hitzak segidan idazten ziren eta ia puntuatu gabe (*scripta* edo *scriptio continua*); letrak kontuz eta elkarrekin lotu gabe idazten ziren. Aldiz, idazkera arruntean arin eta letrak loturik.

Testuak ez ziren ia puntuatzen; K. a. II. mendera arte bertsoak ez dira lerrotan banatzen; antzezlanetan pertsonaia bakoitzaren mintzaldia ez da bereizten. Alexandriako taldeak puntuazio sistema bat eta azentuazio sistema bat asmatu zituen. Dena dela, X. mendera arte puntuazio sistemak ez ziren orokortu.

DIPOSITIBA: idazlaria

Idazlariarena lanbide garrantzitsua zen eta horretarako hezkuntza ona behar zen. Idazlariak idazten zituzten lerroen arabera kobratzen zuten, edo eskuizkribu motaren arabera. Idazlariak lana amaitu ondoren, testua zuzendu egiten zen; idazlariak berak zuzendu zezakeen, edo bestela zuzentzaile batek.

¹ Pasarte bat hondatuta zegoela adierazteko, edo faltsua zela, edo irakurleari abisatzeko pasarte horren iruzkina aurki zitekeela liburuari buruzko azterketan.

Izenbururik egotekotan, testuaren bukaeran agertzen zen. Horrela babestuago zegoen, bilkariaren barne-barnean. Gainera, izenburuak oso berandu hasi ziren erabiltzen. Hala ere, bilkariak bereizteko izenburu bat behar zen eta, horretarako, bilkariaren goiko partean etiketa bat eransten zen eta bertan izenburua idatzi. Izan ere, latinezko *titulus* hitzak —eta grezierazko *sillybos* hitzak— ‘etiketa’ esan nahi zuen jatorriz.

6 Pergamoko Liburutegia eta pergaminoak

DIPOSITIBA: Pergamoren mapa

Pergamo hiria gaurko Turkiaren kostaldean zegoen. K. a. II. mendean lurralde hura kultura helenistikoaren eraginpean zegoen. Kondaira batek dioenez, garai hartan Egiptoko erregeak papiroaren esportazioa debekatu zuen, Pergamoko Liburutegiak Alexandriakoaren ospea estali zezakeen beldurrez. Ez da ziurra kondaira hori egiazkoa den, eta aditu askok uste dute Pergamon pergaminoa erabiltzea hobetsi zutela arrazoi praktikoengatik, papiroa baino iraunkorragoa zelako.

Oso antzinatik erabiltzen zen larrua idazteko material bezala. Baina K. a. III. mendean larrua modu berezi batez tratatzen hasi zen, idazteko euskarri egokiagoa bihurtzeko asmoz. Teknika hauxe da Pergamon asmatu omen zena. Segurua da, edonola ere, material berriak hiri horretan ekoizpen handia izan zuela eta ‘pergamino’ izena Pergamorekin lotzen dela (lat. *charta pergamena*, gr. *pergamene* ‘pergamotarra’, fem.).

DIPOSITIBA: nola egiten zen pergaminoa

Nola egiten zen pergaminoa: Arkumearen, txahalaren edo ahuntzaren larrua erabiltzen zen normalean. Ilea kendu, azala karrakatu eta kare-uretan sartzen zen koipea kentzeko. Ondoren, lehortu, igeltsu-hautsaz igurtzi eta leundu (pulitu) egiten zen.

Lortutako materialak azal leun-leuna eta erregularra zuen, bai aurreko aldean, bai atzekoan. Idazteko oso egokia, beraz. Gainera, papiroa baino askoz ere iraunkorragoa zen.

DIPOSITIBA: palimpsestoak eta bilkariak

Baina dudarik gabe pergaminoaren arrakastaren gakoa azala urratzeko aukera izatea zen. Hortik sortzen dira palimpsestoak. Palimpsestoak dira eskuizkribu batzuk, non jatorrizko idazketa ezabatu den (urratuz) eta gainean berriro idatzi den. Erdi Arokoak dira gehienak, pergaminoa oso garestia zelako garai hartan.

Hasieran, papiroa zen material “noblea”, liburuetarako erabiltzen zena eta pergaminoa eskutitzak, agiriak edo idazki laburrak egiteko erabiltzen zen. Mende batzuetan bi materialen arteko borroka izan zen eta K. o. IV. mendean papiroaren erabilera beheraka hasi zen. Geroztik, oso bakanka erabili zen, agiri garrantzitsuenetarako bakarrik, Aita Santuenak esaterako.

Pergaminoa ez da papiroa bezain malgua, baina hasiera batean pergaminozko liburuek ere bilkariaren forma hartu zuten.

7 Codex edo kodizearen sorrera**DIPOSITIBA: egurrezko taulatxoak**

Bilkariak bazituen akats batzuk, ordea. Nabarmenena, aurreko pasarte bat kontsultatu nahi zenean, berriz zabaldu behar zen; eta, jakina, bilkaria oso luzea zenean mugimendu hori nahiko deserosoa zen. Askotan maniobra hori ez egitearren eta horrela liburua hondatzeko arriskua saihestearren, testuetako aipamen batzuk buruz egiten ziren eta, jakina, ez ziren beti erabat zehatzak.

Pergaminoarekin beste liburu mota bat moldatu ahal izan zen. Oso antzinate grekoek egurrezko taulatxoak —argizagiz estaliak edo estali gabe— erabili zituzten. Taulatxo hauek ohar laburrak, ikasleen “apunteak” edo merkatarien kontuak idazteko erabiltzen ziren. Sarritan taulatxo bat baino gehiago lotzen ziren koaderno modukoak eratuz. Pergaminoa zabaltzen hasi zenean, honelako koadernoen forma eman zitzaizen pergaminozko liburuei (K. o. I. mende bukaeran edo). Liburu hauei *codex* izena eman zitzaien.

DIPOSITIBA: kodizea

Hasieran pergaminozko kodizeak papirozko bilkariak baino maila baxuagokoak ziren eta edizio merkeak argitaratzeko erabiltzen ziren. Papirozko kodizeak egiten ere saiatu zen, baina material hori ez zen oso egokia forma berrirako. Beraz, papiroa bilkarietarako eta pergaminoa kodizeetarako erabili zen nagusiki. Bien arteko borroka luzearen ondoren, V. menderako papiroa eta bilkari-liburuak ia erabat desagertu ziren. Horrela, adibidez, Elizaren idazki zaharrenek kodize forma dute eta oso gutxi dira bilkariak. Zergatik? Bada, lehen kristauak ez zirelako aberatsak eta pergaminoa papiroa baino merkeagoa zen.

Gaur egun ere bilkariak tradizioaren prestigioa izaten jarraitzen du. Pentsa, bestela, agiri batzuk, tituluak edo diplomak, bilkari formarekin egiten direnak ospe handiagoa emateko asmoz.

Barneko itxuran bilkariak eta kodizeak ez zuten diferentzia handirik:

- Bilkarietan bezala, kodizeetan ere margen handiagoak zeuden goi-mailako eskuizkribuetan, eta eskuizkribu apalagoak, aldiz, ertzeraino testuz beteta zeuden.
- Izenburua bukaeran jartzen jarraitu zen, arrazoi praktikoak desagertu baziren ere. V. mendera arte ez zen orokortu izenburua hasieran jartzea.

Berrikuntza bat kodizeen orrien zenbakikuntza eta aurkibidea sartzea izan zen. Bilkarietan ez zen beharrezkoa, testu guztia “orri” bakarrean loturik zegoelako eta zutabeak ezin ziren bere tokitik mugitu. Baina kodizeetan orriak askatu ahal ziren. Hasieran orriak zenbakitzen ziren (*recto* edo aurkia / *verso* edo ifrentzua), ez orrialdeak.

Bestalde, kodizeak erabilgarriagoak ziren; kontsultatu nahi ziren pasarteak errazago bilatzen ziren bilkarietan baino, eta kodize batean askoz ere testu gehiago sartzeko, testu-bildumak egiteko aukera zabaldu zelarik.

Liburu mota berriak arrakasta lortu zuenean, bilkarietan zegoen literatura zaharra kodizeetara kopiatu zen. Prozesu honetan testu asko galdu ziren. Seguruenik, gutxi irakurtzen ziren liburuak ez ziren kodizeetara kopiatu, eta haien bilkariak denborarekin desagertu ziren.

8 Idazkeraren bilakaera Erroman

DIPOSITIBA: idazkera kapitala, etzana eta untziala

Idazkera motak: Grezieraren kasuan bezala, Erroman ere liburuen idazkera eta eguneroko zereginetarako idazkera desberdinak ziren. Liburuetarako ia bakarrik letra larriak erabiltzen ziren. Bi idazkera mota nagusi zeuden: idazkera kapitala —lerro zuzenekin eta ertz askorekin: kapital karratua eta kapital arrunta— eta idazkera etzana edo kurtsiboa —kurtsiba zaharra, letra larriz (I-III. m) eta kurtsiba berria, letra xehez (III.etik VII.era)—.

DIPOSITIBA: idazkera untziala eta erdiuntziala

Ziurrenik erromatar kurtsibatik, idazkera untziala eta erdiuntziala sortu ziren geroago, borobilagoak. Erdiuntziala letra xehez idazten zen eta batez ere testu kristauean agertzen da. Bi tipoetan laburdurak erabiltzen ziren, eta eta IV. mendetik VIII. mendera arte iraun zuten.

Inperioaren azken garaian hiru idazlan mota ugaritu ziren: testu-laburpenak (*compendius*), iruzkinak eta gramatikak. Lan hauek, neurri handi batean, tradizio klasikoa Erdi Aroan ezagutarazteko bidea eman zuten, are gehiago galdu ziren liburuen kasuan. Erdi Aroko kultur jendeak askotan lan hauek baino ez zituen ezagutzen, ez Antzin Aroko jatorrizko liburu osoak.

9 Paperaren asmakuntza Txinan

DIPOSITIBA: Txinako paper zaharra

Erromatar Inperioaren garai berean, papirozko bilkariak eta pergaminozko kodizeak borrokan zeuden bitartean, Txinan liburuen historiarako asmakizun ezin garrantzitsuagoa sortu zen: papera.

Lehenago esan bezala, Txinan liburuen erreketaren ondoren seta erabiltzen hasi zen. Baina, jakina, oso material garestia zen. Hortaz, metodo merkeagoak bilatzen hasi ziren.

Tradizioak dioenez, arazoa K. o. 105. urtean konpondu zen, Ts'ai Lun-ek papera asmatu zuenean. Landareen azalak, kotoia, arrantzarako sare zaharrak, eta abar erabiltzen ziren lehengai bezala.

Paperak berehala lortu zuen arrakasta Txinan. Dena dela, txinatarrek mende askotan sekretua gorde zuten; baina VIII. mendean arabiarrek sekretuaz jabetu ziren eta geroztik arabiar munduan zabaldu zen. Europara XI. mendean heldu zen, Iberiar Penintsulan sartu ondoren.

10 Erdi Aroa

10.1 Elizaren eragina

DIPOSITIBA: <i>scriptorium</i>

Europako Erdi Aroan liburuaren ezaugarri nagusia Elizaren eragina da —Eliza katolikoarena bereziki—. Erromatar Inperioaren desagertzearekin, eta barbaroen inbasioekin, liburuak, hezkuntza eta, oro har, Antzinateko kultura ia monasterioetan bakarrik gorde ziren, XIII. mendean unibertsitateak sortzen hasi arte.

Gainera, arabiarrek papera ez ezik, Greziako klasikoak ere sartu zituzten Europan. Garai hartan oso jende gutxik zekien grezieraz Europako Mendebaldean. Baina arabiarrek Greziako klasikoak arabierara itzuli zituzten eta itzulpen hauek gero latinera itzuli ziren. Lan honetan berebiziko garrantzia hartu zuen Toledoko Itzultzaile Eskolak (XII. mendetik): arabiera → erromantzea → latina.

Liburuaz gehien arduratu zen erlijio-ordena beneditarrena izan zen. Ordenaren arauen artean garrantzia handia ematen zitzaion irakurketari —noski, literatura erlijiosoa irakurri behar zuten—. Baina monasterio askotan honekin batera literatura klasikoa aztertu eta kopiatu egin zen (libururik gabe ezin irakurri). Literatura klasikoarekiko interesa zuten greziera eta latina ikasi eta praktikatzeko, gero izkribu eklesiastikoak irakurri ahal izateko.

DIAPPOSITIBA: Irlandako fraideak

Fraideen artean aktiboenetakoak irlandarrak izan ziren. Nahiz eta urrun egon, Erdi Aroaren hasieran Irlanda Antzinateko kulturaren gordelekurik garrantzitsuena zen. Irlandako fraide askok grezieraz zekiten. Erromara erromes zihoazenean eskuizkribuak lortzen zituzten, baita Frantziako eta Italiako monasterioekin trukatu ere. IX eta X. mendeetan bikingoek Irlandako monasterio guztiak erre zituzten eta, ondorioz, bertan zeuden eskuizkribu guztiak galdu ziren. Baina ordurako irlandarrak misiolari etorriak ziren kontinentera eta monasterio batzuk sortu zituzten Frantzian, Italian, Alemanian, Suitzan, etab. Hauetako eskuizkribuak bakarrik gorde zaizkigu eta oso gutxi.

10.2 Idazkeraren bilakaera**DIAPPOSITIBA: idazkera karolinjioa eta gotikoa**

Monasterioetako kultura garatu ahala, idazkeraren bilakaera ere gertatu zen. Erromako idazkera untzialak eta idazkera etzanak nazio bakoitzean ezaugarri bereziak hartu zituzten.

Baina VIII. mendean Karlomagnoaren (Karol Handiaren) Inperioak, hein handi batean, Europako idazkera estilo horiek bateratzea lortu zuen.² Izan ere, Inperioaren administrazioak funtzionario asko behar zituen. Monasterioei eta katedralei loturiko eskolak eraiki ziren jendea prestatzeko, eta horretarako liburuak behar ziren. Bestalde, Karlomagnok idazlari talde bat mantendu zuen bere gortean eta horrela biblioteka handi bat bildu ahal izan zuen. Literatura klasikoa eta teologikoa kopiatu zituzten. Honek guztiak Antzinateko kulturaren berpiztea ekarri zuen eta latinezko literatura gehiena salbatzea lortu zuen. Mugimendu honek X. mendera arte iraun zuen.

Esan bezala, garai hartan idazkeraren aldaketa gertatu zen, aldaera nazionalak desagertzeko asmoz. Horrela, idazkera karolinjioa edo erromanikoa erabili zen (letra xehez). Baina denborarekin monasterio bakoitzean ezaugarri bereziak sortu ziren, nahiz eta nolabaiteko batasuna gorde. XII eta XIII. mendeetan zehar idazkera-mota hau aldatu

zen, lerro lodien eta meheen arteko diferentzia areagotuz eta ertz askotakoa bilakatuz. Azken hau da idazkera gotikoa deitzen dena.

Idazkera hauetan laburdura ugari zegoen, gero eta ugariago. XII-XIV. mendeetan laburdura-sistema nahiko orokortua erabiltzen da. Laburdura-hiztegiak ere moldatu ziren, laburdura bakoitzaren esanahia azaltzen zelarik.

10.3 Kopiagintza

ANIMAZIOA: [The making of a medieval manuscript](#)

Fraideak *scriptorium*-ean idazteko jarraitzen zuen prozesua:

- pergaminao aizto batez eta erregela baten laguntzaz moztu.
- orriak “marratu”. Horretarako, pergaminoaren ertzetan lerroen arteko distantzia zulotxo batzuen bidez markatzen zen; marrak punta batez, tinta gorriaz edo lapitzez egiten ziren.
- idatzi. Batzuetan eserita, bestetan zutik.

DIPOSITIBA: [kolofoia](#) eta palimpsesto

Eskuizkribua kopiatzen bukatu ondoren, lerro batzuk idazten ziren, beste datuen artean liburuaren izenburua, non eta noiz egin zen kopia, norentzat eta kopiagilearen izena aipatzeko. Hau da izenpetzea edo kolofoia deitzen dena. Kolofoiak honelaxe hasi ohi ziren: *explicitus est* edo *explicit* (lit. ‘zabaldurik dago’, ‘destolesturik dago’), liburuak bilkariak ziren garaiko aztarna bat alegia.

Kopiagintza hau gorabehera, Erdi Aroaren lehen mende hauetan literatura klasikoaren zati handi bat galdu zen. Elizgizonek oraindik mesfidantzaz begiratzen zioten literatura paganoari, erlijiorako arriskugarria izan zitekeelako. Egoera honen erakusgarri dira VII. eta VIII. mendeetan berriro aurkitzen ditugun palimpsestoak. Literatura klasikoaren lanak ezabatu ziren pergaminao berrerabiltzeko, eta gainean lan

² Funtsean, Karlomagnoaren batasunetik kanpo geratu ziren idazkera nagusiak Iberiar Penintsulan erabilitako idazkera visigotikoa eta Irlandakoa izan ziren.

irakurriagoak idazteko. Pergaminoa oso garestia zen eta lan klasiko horiek ez zitzaizkion orduan inori interesatzen.

10.4 Eskuizkribuen apaintzea

DIPOSITIBA: inisiala

Erdi Aroko eskuizkribuetan ohikoa zen paragrafo bakoitzaren hasierako letra, inisiala, apaintzea. Letra hauek handiagoak izaten ziren (Erromako Inperioaz geroztik) eta gorritz apainduak. Apaingarriak gero eta konplikatua goak bihurtu ziren.

DIPOSITIBA: miniatura

Bestalde, irudiak ere agertzen dira. Irudiok miniaturak deitzen dira, latinezko *minium* hitzetik (gorria lortzeko erabiltzen zen berunezko oxidoa). Gehienetan testua idazten zuena eta irudiak eta inisialak egiten zituena ez ziren pertsona berbera. Idazlariak zuriuneak uzten zituen eta pergaminoaren ertzean irudiei buruzko azalpenak idazten zituen letra fin batez, gero ezabatu ahal izateko.

Idazterakoan ere sarritan fraide batek baino gehiagok lan egiten zuten testu batekin, bakoitzak kapitulu bat kopiatzen zuelarik. Batzuetan eskuizkribu baten kopia osoa urtetako lana izan zitekeen (ad. Biblia bat).

10.5 Unibertsitateen sorrera eta monasterioen gainbehera

DIPOSITIBAK: ikasgai bat Bolognako Unibertsitatean (XV. mendea)

Lehen unibertsitateak XIII. mendean sortu ziren, zenbait erlijio-ordenak bultzatuak, frantziskotarrek eta domingotarrek bereziki. Famatuena Bolognako (1088, 1317), Oxfordekoa (1025etik irakasten zen) eta Parisko Sorbona (1275), Robert de Sorbon-ek sortua, izan ziren.

Antzinako Erromako literatura zen oraindik hezkuntzaren oinarritzko gaia. Baina helburu berri bat zegoen: gizartearen interes profesionalei erantzutea eta, beraz, medikuntza, zuzenbidea, erretorika eta logikazko liburuak dira interes gehien pizten

dutenak. Berriz ere palimpsestoak ditugu aldaketa honen erakusgarri: garai honetako palimpsestoetan Antzin Aroko idazleak hasten dira maizago goiko testuan agertzen.

Unibertsitateekin liburuaren merkaturak ezarri zen, Erdi Aroan oso apal egon baitzen. Liburu saltzaileek konpromisoa hartzen zuten unibertsitatean erabiltzen ziren liburuaren edizio zuzenak izateko eta, diru baten truke, ikasleei uzten zizkieten berauek kopia zitzaten. Badirudi negozio ona zela, unibertsitateen inguruan liburu-merkatu oparora sortu zelako. Bestalde, beste unibertsitatei eta atzerriko jakintsuei ere saltzen zizkieten eskuizkribuak.

DIPOSITIBA: liburu kateatuak

Monasterioetan bezala, unibertsitateetako liburategietan ere liburuak *in situ* erabiltzen ziren eta katez loturik zeuden. Maileguz eraman nahi izanez gero, beste liburu bat utzi behar zen bahian.

10.6 Liburutegi pribatuak. Paperaren hedakuntza

Erdi Aroan, elizak, monasterioak, unibertsitateak eta nobleak kenduta, liburuak ez ziren gehiegi zabaldu. Hau da, liburu bidezko kultura goi mailako gizarte klaseen kultura izan zen. Beste arrazoi bat zegoen horretarako: pergaminoa gero eta garestiagoa zen.

XIV-XV. mendeetara arte burgesiak ez zuen lortu liburuak biltzeko adinako kultura, gizarte eta ekonomia maila. Burgesak liburuak biltzen hasi zirenean, koadernaketak eta irudiak monasterioetatik kanpo egiten hasi ziren.

Liburua burgesen artean hedatzeko oso lagungarria izan zen pergaminoaren ordean papera erabiltzen hastea. Gogoratu arabiarrek sartu zutela papera Espainian, eta handik Europara zabaldu zela.

DIPOSITIBA: [papera egiteko metodoa](#)

Papera egiteko paper-orea molde batean sartzen zen. Moldea egurrezko marko bat zen, letoizko alanbrezko sare tinko bat barruan zuena (armazoa edo bastidorea). Feltro batez orria bustitzen zen eta gero prentsatu, lehortu eta, azkenik, kolaz estaltzen zen.

DIPOSITIBA: ur-markak

Letoizko alanbreek marra batzuk uzten zituzten paperean. Marka hauek papera argiari begira jarritz gero ikus zitezkeen. XIII. mendean hasi ziren alanbre batzuk okertzen forma bereziak emateko, filigranak edo ur-markak deitzen direnak; sarri papergilearen izenak edo laburdurak ere sartzen ziren (ad., galgoa edo gaurko billeteak).

Ur-markak askotan laguntza handikoak dira datatu gabeko lan bat noizkoa den jakiteko. Papergilearen berri ematen digute, baita papera noizkoa den ere.

XIV. mendean paperean idatzitako eskuizkribuak orokortzen hasten dira eta XV.ean gero eta arruntagoak bihurtzen dira. Papera pergaminaoa baino askoz ere merkeagoa zen eta oso kalitate onekoa zen.

10.7 Liburuen tamainak**DIPOSITIBA: liburuen tamainak**

Tamaina erabilienak:

- folio handia: 40 cm baino luzeagoa
- folio nagusia: 35-40 cm
- folioa edo plegu-erdia: 34 cm
- folio txikia: 30-33 cm
- laurden nagusia: 27-30 cm
- (plegu-)laurdena: 26 cm
- laurden txikia: 23-25 cm
- zortziren nagusia: 19-22 cm
- (plegu-)zortzirena: 18 cm
- zortziren txikia: 14-17 cm

10.8 Humanismoaren hasiera

DIPOSITIBA: *Divina Comedia*, XV. m.

Monasterioetako kultura gainbehera zihoan aldi berean, mugimendu bat sortu zen liburuei buruzko interesa eta, oro har, Antzin Aroko kulturari buruzko interesa piztarazi zuena: Humanismoa. Italian sortu zen XIII. mendearen bukaeran eta XVI. menderako Europa osoan zabaldurik zegoen. Mugimendu hau Errenazimendu edo Berpizkunde izenekin ezagutzen den garaia izan zen, beraz.

Izpiritu berri horren eragina literatura, arte eta zientziaren arlo guztietan nabaritu zen. Monasterioetan autore klasikoen azterketa eta irakurketaren azken helburua erlijioari laguntzea izan baldin bazen, humanista italiarrek, aldiz, bere-berez ezagutu nahi izan zituzten Antzinateko idazleak, haien artea, filosofia eta pentsaeraren alderdi guztiak sakonki ezagutzeko.

Antzinateko kulturari buruzko interes honek, besteak beste, ondorio onak izan zituen: humanistek testuen iturrietara heldu nahi zuten eta horretarako metodo filologikoak zorrotz zituzten.

DIPOSITIBA: idazkera humanistikoa

Idazkerari dagokionez, idazkera humanistikoa izenarekin ezagutzen dena erabili zen, idazkera karolinjioan oinarriturik, eta gotikoari kontra egiteko. Idazkera humanistikoa da gaur egun erabiltzen dugunaren jatorria.

11 Txinako xilografia eta Europako liburu xilografikoak

DIPOSITIBA: Txinako inprimatu zaharra

Liburu baten hainbat ale ateratzeko sistema, dirudienez, Txinan aurkitu zen K. a. II. mendean. Orri bakoitzari harri baten gainean ematen zitzaion forma. Geroago, egurra erabili zen horretarako, ikurrak kanporantz ateratzen zirelarik. Taula tintaz igurtzen zen eta, gero, zenbait kopia atera zitezkeen papera gainean jarriz.

DIPOSITIBA: xilografia

Europar ere horrelako metodo bat garatu zen, baina ez dago nahiko arrazoirik suposatzen Txinako inprimaketa xilografikoaren eta Europakoaren artean loturarik izan zenik. Europan, xilografia orri solteetan irudiak inprimatzeko ere erabili zen: santuen irudiak, kartak, egutegiak.

1430 urte inguruan egin bide ziren Holandan eta Alemanian lehen liburu xilografikoak. Oso gutxi gorde dira, besteak beste asko erabiltzen zirelako, irudiak behin eta berriro begiratzuz, erabat suntsitu arte.

Liburu xilografikoek 40-50 bat orrialde izaten zituzten, gehiena irudiz betea, eta erlijioari buruzkoak ziren.

Genero arraskatatsu bat izan zen *Biblia pauperum* izenekoa ('Pobreen Biblia'). Egitura hau zuten: lau izkinetan testu pasarte laburrak zeuden; erdian Jesukristoren bizitzaren eszena bat, goian eta behean profeten irudiak eta alboetan Testamentu Zaharreko bi eszena, Jesusen bizitzarekin lotu nahi zirenak. Orriak alde batetik bakarrik inprimatzen ziren eta gero bi orri itsasten ziren, bi aldeetan inprimatua agertzeko.

DIPOSITIBA: Durero

Halaber, geroago ere liburu inprimatuetako irudiak teknika xilografikoa erabiliz egin ziren. Garai hartako egile ospetsuena Albert Durero (1471-1528) izan zen.

12 Tipo mugikorren erabilera Txinan eta Europan

DIPOSITIBA: tipo mugikorak Txinan

Txinan gaur egun ere erabiltzen da egurraren gaineko inprimaketa. Hala ere, XI. mendetik tipo solteak erabiltzen hasi ziren. Ikur bakoitzerako tipo bat egiten zen, hasieran buztinezkoak eta gero metalezkoak. Tipoak elkartzen ziren orrialde bakoitza konposatzeko. Liburua amaitutakoan, tipoak bildu eta beste liburu baterako erabili ahal ziren.

Metodo honek ez zuen arrakasta handirik izan Txinan. Arrazoia da txinatarrek ikur gehiegi erabiltzen dutela idazteko, lau edo bost mila ikur desberdin liburu bakoitzeko.

DIPOSITIBA: Gutenberg eta inprenta

Tipo solteen asmakizuna ez zen Txinatik Europara iritsi, paperarekin gertatu zen bezala. Europan erabat independenteki asmatu zen; jakina denez, Johann Gutenberg alemaniarra (c. 1398-1468) asmatu zuen tipo mugikorrez inprimatzeko sistema ospetsua, nahiz eta Europako zenbait herrialdetan aitzindari batzuk aipatu ohi diren; horietatik egiantzekoena dateke Herbehereetan Gutenberg baino lehentxeago tipo mugikorrak erabili izana.

DIPOSITIBA: tipo mugikorrak Europan

Gutenberg-ek tipoak egiteko metal-aleazio egoki bat asmatu zuen (gaur egun erabiltzen den berbera!). Urtzeko erraza zen, eta behin hoztuz gero oso iraunkorra. Aleazioak osagai hauek zituen:

- beruna: %75
- antimonioa: %20
- eztainua: %5

DIPOSITIBA: Gutenberg-en Biblia

Ez dakigu gauza handirik Gutenberg-en bizitzari buruz. Dirudienez, 1438rako bere asmakizunean lan egiten ari zen. Bibliaren inprimatzea 1456an bukatu zuen, Europan inprimatutako lehenengo liburu handia (*42 lerroko Biblia* izenaz ere ezaguna, zutabe bakoitzak 42 lerro dituelako). Berak inprimatu omen zituen liburuetan ez da inoiz agertzen ez bere izena, ezta urtea ere. Baina erabilitako tipoak aztertuz eta irizpide historiko eta kronologikoak erabiliz, Gutenberg-i egotzi zaizkio. Gaur egun, Gutenberg-en Bibliaren 50 bat ale kontserbatzen dira, baina denak ez daude osorik.

13 Lehen liburuak eta inprentaren hedatzea

Laster hedatu zen asmakizun berria Alemanian zehar eta inprimategiak zabaldu ziren.

DIPOSITIBA: letra-tipo erromatarra

Lehenengo liburu inprimatu horietan letra-tipo gotikoa erabili zen.

Inprenta Italiara heldu zenean, letra-tipo berri bat erabiltzen hasi ziren: tipo erromatarra, humanisten idazkeran oinarritua.

letra xehea erromatarra → xehea karolinjioa → humanista → tipo erromatarra

Erromatarra idazmolde gotikoa baino borobilagoa da, ertzik gabekoa, eta beraz tipoak grabatzea errazagoa gertatzen zen. Argiagoa eta dotoreago da.

DIAPPOSITIBA: inprentaren hasiera Frantzian

Frantzian 1470 urte inguruan ezarri zen lehen inprimategia, Sorbonan, Parisko Unibertsitatean. Unibertsitaterako latinezko testu batzuk inprimatzeko enkargua zuten hiru inprimatzaile alemaniar heldu ziren Parisa.

Oso azkar hedatu zen inprenta eta 1500 urterako Parisen 70 inprimategi zeuden. Garai hartan oraindik tipo gotikoak erabiltzen ziren Frantzian.

Hala ere, 1530ean Robert Estienne inprimatzaile paristarrak Claude Garamond-i eskatu zion tipo berri batzuk asmatzea. Garamonden tipoak Manutius-enetan oinarritu ziren eta Frantzian izugarritzko ospea lortu zuten.

1537an Frantzisko I.a erregeak derrigortu zuen liburu guztien ale bana Erregearen Bibliotekan uztea. Horrela sortu zen gaur egun Bibliothèque Nationale deitzen dena.

DIAPPOSITIBA: inprentaren hasiera Espainian

Espainian ere maisu alemaniarrek sartu zuten asmakizun berria, lehenik Segovian 1472 urtean. Han atera zen lehen liburua *Sinodal de Aguilafuente* izan zen, Johannes Parix Heidelberg-ekoak inprimatua. Geroago, Bartzelonan (1473), Valentzian (1473), Zaragozan (1474), Sevillan (1477) eta Salamancan (1480) ezarri ziren inprimategiak, besteak beste. Espainian lehen liburuek letra-tipo erromatarrak erabili ohi zituzten, baina berehala nagusitu ziren tipo gotikoak.

DIPOSITIBA: Biblia Poliglota Complutensea, 1517-1520
--

Garrantzi berezia du Alcaláko inprimategiak. Hor Cisneros Kardinalaren Biblia Complutense edo Poliglota famatua inprimatu zen, lau hizkuntza erabiliz: hebreera, greziera, latina eta arameoa (“chaldaica”).

14 Liburuen baldintza ekonomikoak, salmenta eta kontrola

Hasierako urteetan konpetentzia gogorra izan zen inprimatzaile berrien eta kopiagileen, irudigileen eta eskuizkribu-saltzaileen artean. Azken hauek unibertsitateen laguntza lortu nahi izan zuten, baina, Parisen kasuan ikusi dugun bezala, gehienetan ez zuten lortu, eta inprimatzaileek irabazi zuten lehia. Geroago, konpetentzia inprimatzaileen beren artean gertatu zen.

Hasieran eskuizkribuek prestigio handiagoa zuten. Antzinatean ere ikusi genuen papiroak pergaminoak baino prestigio handiago zuela, edo gaur egun paperezko liburuek digitalek baino gehiago.

Horrela, bada, liburua inprimatua, ale berdin asko zituena, arruntagotzat jotzen zen eskuizkribua baino. Azken honen kasuan eskuizkribu bakoitzetik ale bakar bat besterik ez zegoen, nahiz eta honen kopia asko egin.

Halaber, lehen inprimatzaileek eskuizkribuen itxura kopiatzeko ahaleginak ere berauen prestigioa areagotzen lagundu zuen.

Hala ere, liburu inprimatuek oso azkar irabazi zuten lehia. Elizak ere erabili zituen eta monasterio batzuetan inprenta-lantegiak jarri ziren kopiagileen lehengo lantegien orde. Italiako humanistak ere berehala konturatu ziren inprentaren abantailez: liburuak mekanikoki errepikatuz gero, huts gutxiago gertatzeko aukera zegoen.

Bestalde, legeak ez zituen babesten argitaratzaileen eskubideak. Arrakasta zuen liburu bat edozein inprimatzailek inprima zezakeen berriz. Egoera hori amaitu zen liburuak argitaratzeko lizentziak eta baimenak eskatzen hasi zenean, baita zentsuratik pasatzen hasi zirenean ere.

DIAPOSITIBA: *Index librorum Prohibitorum*, 1559

Liburuen zentsura ia inprimatzearekin batera jaio zen, estatuetako agintariak eta elizak liburuen argitalpena arautu eta kontrolatu nahi zutelako. Herrialde katolikoetan liburuen aurretiko zentsura Leon X.a Aita Santuak ezarri zuen 1515ean. Esate baterako, Parisen 1546an Etienne Dolet inprimatzailea atxilotu, torturatu eta urkatu eta erre zuten bere liburuekin batera. Salatu zuten liburu heretikoak argitaratzeagatik eta ateoak zelakoan. Izan ere, Luteroren Erreforma lortzen ari zen arrakastak beldurturik, zentsura areagotu zen eta, ondorioz, Espainiako, Frantziako eta Italiako hainbat inprimatzailek Ginebrara edo Herbehereetako iparraldera alde egin zuten.

Herrialde katolikoetan zentsurak indar handia hartu zuen Paulo IV.a Aita Santuak *Index Librorum Prohibitorum* liburu debekatuen zerrenda atara zuenez geroztik (1559). Indizea erregulariki eguneratu zen, noiz eta 1966an desagertu zen arte.

DIAPOSITIBA: *Tirant lo Blanch*, 1497

Liburuak oso merke saltzen zirenez, irakurle gehiago hurbildu ziren liburura. Hori dela eta, herri literatura inprimatzen hasi zen: kronikak, kondairak, otoitz liburuak, beti ere herri-hizkuntzetan idatziak eta irudiz apainduak. Hala ere, irakurle berri hau ez zen hain ugaria eta ezin zuen liburutik gehiegi gastatu. Italian nahiko liburu saltzen ziren, baina beste herrietan inprimatzaile gehienek ez zuten gehiegi irabazten eta lekuz aldatu behar zuten beren material guztiarekin, erosle bila.

Nolanahi ere, liburuekin batera lan xumeagoak ere atara ziren, herri xeheari zuzendua eta plegu solteetan inprimatuak: itsuen koplak, erromantzeak, kondairak, gai erlijiosoak... baina baita kritika politiko eta sozialerako ere erabili ziren. Espainian eta Portugalen arrakasta handia izan zuten (kordeleko literatura). Neurri handi batean, plegu solteak garai hartako literatura sentsazionalista ziren.

Inprentaren lehen garai honetan inprimatzailea bera zen liburu-saltzailea. Baina laster sortu ziren saltzaile mugikorak, hiriz hiri joaten zirenak inprimatzaileei liburuak erosi eta jendeari eskainiz. Azoka, festa erlijiosoak, merkatuak eta horrelako ekitaldiak zeuden lekuetan agertzen ziren. Liburu-merkatuaren gunerik garrantzitsuena Frankfurt

izan zen; gaur egun ere azoka handienetarikoa du. Hiri handietan, dena dela, liburu-saltzaile egonkor batzuk ere bazeuden.

15 Lehen liburuak: inkunableak

DIPOSITIBA: inkunableen mapa

Inkunableak (lat. *cunabulum* ‘sehaska’) deitzen dira inprentaren lehen garaiko liburuak, 1500 artekoak, oro har. Inprenta beranduago sartu zen herrietan 1550 urtera arte luza daiteke epea.

Nahiz eta inkunable guztietan idazkera erromatarra edo gotikoa erabili, garai honetako liburuetako letrek ezaugarri bereizgarriak dituzte, inprimatzaileak identifikatzeko balio dutenak. Izan ere, garai hartako tipoek akats asko zituzten, nahiko irregularrak ziren.

DIPOSITIBA: inkunablea

Inkunableetan eskuizkribuak imitatzen saiatzen da. Zenbait ezaugarri:

- Ez dute azalik. Liburua testuko lehen orriarekin hasten da zuzenean. Halaber, eskuizkribuetan bezala lehen liburu hauek ez dute izenbururik. Liburua hasten zen lehen orrialdean zuzenean, *incipit* edo *hic incipit* hitzekin. 1470 urte inguruan agertzen dira benetako azalak.
- Tamaina handikoak dira (plegu-erdia edo laurdena) eta askotan bi zutabetan inprimatuta daude.
- Orriak zenbakitu gabe daude gehienetan, eta testua kapitulu edo pasartetan banatu gabe.
- Ertz handiak dituzte, glosak eta iruzkinak idatzi ahal izateko.

DIPOSITIBA: inkunableak

- Irudiak eta inzialak eskuz eginda daude. Batzuetan paragrafoetako inzialak falta dira (hutsik geratu ziren, gero eskuz egiteko, eta ahaztu).
- Laburdura ugari erabiltzen jarraitzen da.

- Puntuazio ikurrik ez zaharretan. Laster hasiko dira erabiltzen.
- Kolofoiak erabiltzen dira, eskuizkribuetan bezala: izenburua, egilearen izena, inprimatzailearena, data...

Jakina, gehienak latinez daude.

Bataz beste, liburu bakoitzetik 400-500 ale inprimatzen ziren. Oso gutxitan iristen zen 1.000 edo 2.000 ateratzera.

Inprimatutako liburuek eskuizkribuak imitatzen bazituzten, bazegoen arrazoi ekonomiko bat ere. Eskuizkribuak oso garestiak ziren (gogoratu, askotan urtetako lana). Inprimatuek eskuizkribuen itxura hartzen bazuten, eskuizkribu bezala sal zitezkeen eta prezio berdina eskatu. Adibidez, Gutenberg-en kidea Sorbonan epaitu zuten Biblia inprimatuak benetako eskuizkributzat pasarazi nahi izan zituelako.

16 Letra etzanaren erabilera. Aldus Manutius

DIPOSITIBA: Aldus Manutius eta letra-tipo etzana
--

Aldus Manutius (1449-1515) lehen garai honetako argitaratzaile garrantzitsuena da. Latina eta greziera ikasi zituen, eta hizkuntza hauen gramatika txiki batzuk ere idatzi zituen. Beraz, esan dezakegu heziketa humanistiko nahiko handia zuela.

1490. urtean Venezian hasi zen inprimatzaile lanean, batez ere idazle klasikoen edizioak argitaratzen.

Aldusek zenbait berrikuntza sartu zituen: hasieran ohikoak ziren tamainak erabili zituen liburuetarako: plegu-erdia edo laurdena. Baina 1501ean hasi zen klasikoak zortzirenean argitaratzen. Bestalde, tipo berri batzuk erabili zituen, orrialde txikiago hauetarako egokiagoak zirenak: humanistek erabilitako letra etzanean oinarrituta zeuden (*kurtsiba* deitu izan zaio tipo honi; ingelesez, *italic*). Letra erromatarraren antzekoa zen, baina eskuinalderantz okertua edo “etzana”. Letra-mota hau gaur egun ere erabiltzen da, baina hitz edo zati solteak nabarmentzeko.

DIPOSITIBA: Manutiusen liburuak

Hasiera batean, Aldus bera arduratu zen edizioen prestaketa filologikoaz; baina geroago filologo talde bat bildu zuen lan horretarako.

Aldusen edizio txiki eta erabilgarriari esker literatura klasikoa —eta harekin batera kultura humanistikoa— aski zabaldu zen irakurleen artean. Arrakasta honek imitazioak sorrarazi zituen. Arrakastaren arrazoiak desberdinak ziren: tamaina ez ezik, letra tipo berriak, paperaren kalitate ona, inprimaketa bikaina eta, halaber, testuen bertsio zuzenak emateko ahalegina, hau da, atzean zegoen lan filologikoa.

17 Inprentaren hasiera Euskal Herrian**DIPOSITIBA: Adriano Anbereskoa**

Euskal Herriko lehen inprimategia Iruñean ezarri zen XV. mende amaieran; Arnaut Guilen Brocario (1460-1523) izen zen lehen inprimatzailea (ziurrenik, 1489tik 1502ra). Iruñean 25 bat liburu inprimatu ondoren, Logroñora aldatu zen. Alcalá de Henaresen ere inprimatu zuen, Cisneros kardinalak deitua; han *Biblia poliglota complutense* famatua inprimatu zuen. XVI. mendearen erdialdera, Brocarioen dizipulu batek, [Miguel Egiak](#), Lizarran inprimatu zuen 1546tik 1547n hil arte. Lehenago Egiak zenbait inprimategi sortu zituen Espainian (Logroño, Toledo, Valladolid eta Alcalá), orduko inprimatzaile handi eta onenetakoa izan zelarik. Besteak beste, Erasmoren lanak (horregatik kartzelan egon zen bi urtez), Lucio Marineo Siculorenak eta Nebrixaren gramatika inprimatu zituen. Nafarroako hurrengo inprimatzailea Adriano Anbereskoa izan zen, Egiaren ofiziala izandakoa, bai Lizarran, Egiaren inprimategiarekin jarraituz, eta baita 1568tik Iruñean ere. Adriano Anbereskoa, besteak beste, Eltsoko Santxoren euskarazko dotrina inprimatu zuen Iruñean (1561, Tomas Porralsen inprimategian), Hegoaldean inprimatutako euskarazko lehen liburua; gaur egun ez dugu haren alerik ezagutzen. Aipatu ohi da Porrals 1569an ezarri zela Iruñean, baina Eltsoren lana seguru da 1561ean hasi zela inprimatzen (Urrizola 2006). Tomas Porrals Iruñeko inprimatzaile bakarra izan zen 1591n hil arte, bere seme Pedrok jarraitu ziola.

DIAPOSITIBA: [Poza \(1587\)](#) eta [Betolatza \(1596\)](#)

Bizkaian lehen inprimatzailea Mathias Mares izan zen, jatorriz frantsesa antza. Lehenbizi, 1578an, Askao kalean egon zen, gero Atxurin eta azkenean Abandoko Frantziskotarren komentuan ezarri zen. Besteak beste, *La Celestina* eta Pozaren *De la antigua lengua* (1587) inprimatu zituen. Maresek 1592an Bizkaia utzi ondoren, Pedro Cole Ibarakoa aritu zen; besteak beste Betolatzaren *Doctrina Christiana en Romance y Bascuence* (1596) inprimatu zuen.

Gipuzkoan, XVI. mende amaieran Adriano Anbereskoaren dizipulu batek, Pedro Borgoñak, erlijio-liburu bat inprimatu zuen Donostian (1584-1586), baina gero Iruñera itzuli zen. Lehen inprimategi iraunkorra Martin Huartek (“Ugarte” ere deitua) ezarri zuen Donostian, 1667-1677 bitartean. Gipuzkoan euskaraz inprimatutako lehenengo liburua Nicolas Zubiaren *Doctrina Cristiana en Bascuence* izan zen (Donostia, 1691). Ez zaigu haren alerik iritsi, baina bai zati batzuk zeharka.

DIAPOSITIBA: [Etxepare \(1545\)](#)

Iparraldean inprimatu zen lehen liburua 1642koa bide da: Voltaire-ren hizkuntza eskuliburua. Kontuan izan euskaraz inprimatutako lehenengo liburua, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545), Bordelen argitaratu zela. Gaur ezagutzen dugun ale bakarra Parisko Liburutegi Nazionalan gorde da, lehen aipatu bezala liburu guztien ale bana bertan utzi behar zelako.

Arabian, azkenik, XVIII. mende hasierara arte itxaron behar dugu: Bartolomé Riesgo. Gero, 1735ean Donostiara aldatu zen eta han, besteak beste, Larramendiren *Diccionario trilingüe* inprimatu zuen (1745).

18 Liburu “modernoaren” ezaugarriak. Liburuaren barne egitura

DIAPOSITIBA: liburuaren atalak

Esan bezala, inprimatu ziren lehenengo liburuek eskuizkribuen ezaugarriak imitatu nahi zituzten: irudiak eta inzialak eskuz eginak, tamaina handia, bi zutabe, azalik ez, izenbururik ez, kolofoiak...

Aldiz, 1530eko hamarkadatik aurrera liburuek pixkanaka beren itxura modernoa hartzen dute, ezaugarri eta barne egitura nahiko erregular eta finko bat izateko. Horrela, testu nagusiaren inguruan —aurrean eta atzean— hainbat osagai agertzen dira, **paratestuak** deitu ohi direnak (beti ez dira osagai guztiak agertzen):

1. Atariaurrea: lehen orri inprimatua da. Izenburua eta egilea agertzen dira, maiz laburtuak. Batzuetan grabatu bat dakar (Etxepareren liburukoa, kasu).

DIAPOSITIBA: atariak eta frontispizioa
--

2. Ataria edo izenburu-orria: izenburua, egilea eta inprenta-oina (imprimatze lekua eta urtea, inprimatzailearen izena); eskaintza, edizioa, grabatuak (batzuetan oso landuak eta atari osoa inguratzen zutenak: frontispizioa), inprimatzailearen ikurra, pribilegioen aipamena, etab. Zenbaitetan, izen batzuk faltsifikatzen ziren, zentsura saihesteko asmoz.
3. Atarikoak (liburuaren kontrola erakusten duten agiri administratibo eta eklesiastikoak; literatur testu batzuk ere bai. Ez ziren beti denak agertzen eta ezta beti hurrenkera berean):
 - a. Pribilegioa: erregeak edo erregeorde batek inprimatzaileari emandako baimena zen, liburua denbora zehatz batean eta eremu geografiko batean argitaratzeko eskubideak emanez. Batzuetan baimena egileari, itzultzaileari edo liburu-saltzaileari ematen zitzaion.
 - b. Lizentzia: testu labur bat da, non adierazten zen liburua agintari zibilek edo Elizakoek baimentzen zutela. Lizentziak liburuaren ortodoxia bermatzen zuen, haren edukia egiazkoa zela. Liburua kontrolatzeko beste modu bat zen.

DIAPOSITIBA: tasak eta hutsen zerrenda
--

- c. Tasa: liburua saltzeko agintariak erabakitzen zuten prezioa zen. Prezioa pleguko jartzen zen, eta hortik liburuaren prezioa kalkulatu zen. Espainian 1762an kendu ziren liburuaren tasak.

- d. Oniritzia edo zentsura: pertsona hautatuek adierazitako iritzia zen (agintariek, legegizonek, elizgizonek), inprimatu bat argitaratzeko eragozpenik zegoen ala ez azaltzeko. Lizentzia lortzeko ezinbesteko aurrepauso bat zen.
- e. Hutsen zerrenda: liburuan aurkitutako huts tipografikoak eta haien zuzenketak. Testuen zuzentasun filologikoa hobetzeaz gain, estatuek hutsak begiratzeak balio zuen baita baimendutako bertsioak aldatu ez zirela ziurtatzeko.
- f. Eskaintza: egileak idatzitako testu bat zen, lagundu zion (edo laguntzea nahi zuen) pertsona edo erakundeari eskainia. Eskaintzaren jasotzailearen merezimenduak gorai patzeaz gain, haren arbasoenak ere sar zitezkeen. Batzuetan, kasu horietan, eskaintzaren aurretik eta orri berezi batean, gorai patuaren armarrria edo bestelako irudia agertzen zen, orrialde oso bat betez.
- g. Gorazarreko poemak: sarritan egilearen adiskideek idatzitako poemak sartzen ziren.
- h. Hitzaurrea: testuaren aurkezpena da, haren helburua, edukia, idazteko edo argitaratzeko gorabeheren historia...

4. Testua: zenbait apaingarri izaten zituen, hala nola

- a. Kapituluaren hasierako letra apainduak.

DIAPOSITIBA: fileteak

- b. Tako tipografiko edo xilografikoak: atalak edo kapituluaren hasieran edo amaieran kokatzen ziren, baita liburuaren azalean ere. Batzuetan zenbait tako lerro batean kokatzen ziren, “filete” izeneko bat osatuz.

5. Amaierako osagarriak:

- a. Aurkibidea edo edukien taula.

DIAPOSITIBA: pleguen erregistroa

- b. Pleguen erregistroa: liburuaren osotasuna egiaztatzeko balio zuen.

DIAPOSITIBA: kolofoiak (1556 eta 1602)

- c. Kolofoiak: edizioaren datuak (inprimatzailea, hiria, urtea), egilea, izenburua... Azalean agertu behar duten datuak arautu ziren neurrian, kolofoiak garrantzia galdu zuen.

DIAPOSITIBA: signatura tipografikoak

Beste paratestu batzuk:

- Signatura tipografikoak: letra, numero edo ikur batzuk dira. Koaderno bakoitzaren lehen orriaren aurkian (beheko eta eskuineko angeluan) jartzen ziren eta koadernoak ordenatzeko eta zuzen josteko balio zuten.

DIAPOSITIBA: apeuak

- Apeua: orrialdearen beheko eta eskuineko angeluan jartzen den hitz edo silaba bat da, hurrengo orrialdearen hasiera adierazten duena.

19 Inprimatze teknika eta prozesua

DIAPOSITIBA: [Habit d'imprimeur de lettres](#)

19.1 Inprimategiaren antolakuntza

Inprimategiko lanean hiru zeregin nagusi daude (*arte grafikoak* edo, gaur egun bezala, *industria grafikoak* deitua osatzen dutenak):

- Konposatzea
- Inprimatzea
- Azaleztatzea

Lehenengo biak tipografiari dagozkio (= tipoekin lan egitea).

DIAPOSITIBA: inprimategiaren antolakuntza
--

Gutenberg-engandik 1800 urte ingurura inprimatze lana ez zen asko aldatu; makina bera ere ez, *eskuzko inprenta dei* dezakeguna. Lehenengo inprenta mekanikoak XVIII. mende amaiera eta XIX. mende hasiera bitartean sortu ziren.

Inprimategi batean hainbat jendek parte hartzen zuen, zeinek bere eginkizunak zituelarik:

- jabea edo nagusia: norbanako, enpresa edo erakunde bat izan zitekeen
- arduraduna, jabeak izendatua: inprimategiaren funtzionamendu tekniko eta administratiboa ongi joateaz arduratzen zen
- inprimategiko maisu edo buru bat atal bakoitzean (konposatzea, inprimatzea, azaleztatzea)
- inprimategiko ofizialak eta aprendizak

19.2 Eskuzko konposatzearen metodoa

DIAPOSITIBA: tipo-paratzailearen tresna batzuk

Testua konposatzen hasi baino lehen, ohikoa zen inprimategiko norbaitek (nagusiak, arduadunak edo maisuak) egilearen originala gainbegiratzea, bertan aurki litezkeen zailtasunak neurtzeko eta konposatze lanerako oharrak adierazteko: zein letra-tipo erabili, tamaina, noiz erabili behar ziren letra larri txikiak (1526an asmatuak), noiz letra etzana (XVI. mendetik aurrera), noiz lodia (XIX. mende hasieratik), etab.

Konposatze lanaren arduraduna tipo-paratzailea (gazt. *cajista*) zen. Hasteko, paratzaileak egin beharreko lanaren neurriak eta ezaugarri orokorrak kontuan hartzen zituen: letra-tipoa, tamaina, etab. Ondoren, behar zuen kutxatila komodatik ateratzen zuen kontu handiz eta komodaren gainean edo mahai okertu baten gainean kokatzen zuen.

DIAPOSITIBA: galera eta “divisorio” delakoa
--

Gero, galera kutxatilaren gainean kokatzen zuen, eta originala tresna berezi batean (gaztelaniaz *divisorio* deitzen dena).

DIPOSITIBA: konposagailuak

Paratzaileak konposagailu bat hartzen zuen eta lerroaren neurria markatzen zuen; metalezkoa bazen, neurri zehatza marka zezakeen eta egurrezkoa bazen, aldiz, filete baten tipoa hartzen zuen sobratzen zena betetzeko. Konposagailua ezkerreko eskuarekin hartzen zuen eta eskuinekoarekin tipoak hartzen zituen kutxatilatik, banan-banan, eta konposagailuan biltzen zituen, letra eta zuriuneekin lerro bat osatu arte.

Aintzat hartu lerroa buruz behera konposatzen zela.

DIPOSITIBA: konposagailuak

Paratzaileak konposagailua betetzen zuenean (bizpahiru lerro), filete bat jartzen zuen azken lerroaren azpian (tipoak ez erortzeko) eta, kontu handiz, dena galerara eramaten zuen. Horrela egiten zuen lerroz lerro, galerako molde guztia bete arte.

19.3 Proba tipografikoa edo galerada**DIPOSITIBA: molde, zurmailua eta “tamborilete” delakoa**

Molde osoa amaitzean, paratzaileak hari batez inguratzen zuen, desegin ez zedin. Moldea sorta baten parte bazen (adibidez, liburu baten orrialde bat), orrialdeak eramateko paper gogor edo kartoi baten gainean ezartzen zen, sortako moldeak horrela pilatzen zirelarik. Molde solte bat izanez gero, zuzenean galeran bertan eraman ohi zen probetarako inprimategira.

Hor probatzailea zurmailu batez eta egurrezko pieza batez (gazt. *tamborilete*) molde kolpatzen zuen letra guztiak altuera berean utzi arte.

DIPOSITIBA: molde, zurmailua eta “tamborilete” delakoa

Ondoren, arrabol bat tintaz busti eta moldearen gainean pasatzen zuen zenbait aldiz eta norabide guztietan, letra guztiek tinta berdina hartzeko. Paper zuri bat hartzen zuen eta moldearen gainean jarri; arrabola paperaren gainetik pasatzen zuen eta horrela papera moldeari atxikita geratzen zen. Papera altxatzean, testu inprimatua ikus zitekeen.

Paper honi proba tipografikoa, inprenta-proba edo galerada deitzen zaio, eta testua zuzentzeko prestatzen zen.

19.4 Proben zuzenketa

DIPOSITIBA: inprenta-proba batzuk

Testu bat argitaratu aurretik probak zuzentzea ezinbesteko zeregina da, eta halaxe gertatu da inprimategiaren hasierako garaietatik.

Hasierako garai haietan, batez ere Frantzia eta Italia, testuen zuzentzaileak egiazko jakintsuak ziren, humanistak. Geroago, inprimategiko arduradunak edo maisuak arduratu ziren probak zuzentzeaz; baina askotan tipoparatzaille prestatuenari ematen zitoten lan horren ardura, ortografia eta gramatika ongi menderatzen bazituen.

Probak zuzentzeko metodo ohikoena hauxe zen: pertsona batek originala ozenki irakurtzen zuen eta, aldi berean, zuzentzaileak proba isilean jarraitzen zuen, huts tipografikoak eta testuaren aldaketak bilatzeko asmoz. Egilea bizirik zegoenean, berak irakurtzen eta zuzentzen zituen probak.

DIPOSITIBA: inprenta-probetan erabilitako ikurrak

Probetan aurkitutako hutsak dei eta ikur batzuen bidez markatzen ziren. Deiak testuko hutsa zegoen tokian idazten ziren eta testuaren ertzetan errepikatu; azken hauen ondoan ikurrek zuzenketa adierazten zuten edo, bestela, letra, silaba, hitz edo pasarte zuzena idazten zen. Sistema hori inprentaren aurreko garaian ere erabiltzen zen eskuizkribuak zuzentzeko. Deiak eta ikurrak berdintsuak ziren nazioartean, baina denborarekin aldaera batzuk sortu dira.

Paratzaileak molde tipografikora eramaten zituen zuzenketak. Horretarako, moldea galeran kokatzen zuen eta, pintza batzuk erabiliz, letra okerrak kentzen zituen eta zuzenak jarri.

Ondoren, beste proba bat ateratzen zen, zuzenketak ondo egin zirela egiaztatzeko; hala ere, errata asko pilatu baziren, berriz irakur zitekeen lehengo prozesu guztia. Azken proba batek balio zuen lan guztia zuzen zegoela ziurtatzeko.

19.5 Eskuzko konposatzean gertatutako arazo eta errata batzuk

- Berdinetik berdinerako jauzia: konposatzaileak originalaren pasarte bat irakurtzen du eta konposagailuan osatzen du; baina begiak berriro originalean pausatzean, lehengo tokitik jarraitu beharrean, berdina edo berdintsua den beheragoko beste batetik abiatzen da, bien artean dagoen guztia konposatu gabe geratzen delarik. Falta zen zatiak ez bazuen testuaren haria apurtzen, eta probak ez baziren arreta handiz zuzentzen, hutsa ohartu gabe pasa zitekeen eta testua erratarekin inprimatu.
- Letra okerrak hartu: batez ere konposatzeko abiadura handiagatik.
- Originala gaizki irakurri: dela idazkera zaila zuelako, dela paratzaileak oso azkar irakurtzen zuelako.
- Paratzailearen beraren akatsak: originalean zegoena irakurri beharrean, bere ustez egon behar zuena “irakurtzen” zuen, eta horrela konposatu. Batzuetan egilearen testua zuzendu behar zutela ere pentsatzen zuten.

20 Bibliografia osagarria:

- Arana Martija, Jose Antonio, 1994, “Euskal Herriko inprentaren historia”, *Uztaro* 12, 37-53.
- Castillo, Antonio, 2004, *Historia mínima del libro y la lectura*, Madrid: Siete Mares.
- Cavallo, Guglielmo (arg.), 1995 [1975], *Libros, editores y público en el Mundo Antiguo*, Madrid: Alianza.
- , Roger Chartier & Robert Bonfil, 1998, *Historia de la lectura en el mundo occidental*, Madrid: Taurus.
- Chartier, Roger, 1993, *Libros, lecturas y lectores en la Edad Moderna*, Madrid: Alianza.
- Dahl, Svend, 1970 [1927], *Bogens Historie*, Copenhagen: Haase & Sons. Gazt. itz. *Historia del libro*, Madrid: Alianza, 1987.
- , 1987 [1927], *Historia del libro*, Madrid: Alianza.
- De los Reyes Gómez, Fermín, 2010, “La estructura formal del libro antiguo español”, *Paratextos* 7, 9-59.
- Escobar, Hipólito, 1987, *Historia de las bibliotecas*, Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez-Pirámide.
- Fernández de Casadevante Romaní, M^a Dolores, 2012, “Introducción a la historia de la imprenta en Guipúzcoa (1585-1850)”, *Revista General de Información y Documentación* [online] 22, 67-92.

- <<http://revistas.ucm.es/index.php/RGID/article/view/39662>> [Kontsulta: 2016-01-24].
- Gaskell, Philip, 1999, *Nueva introducción a la bibliografía material*, Gijón: Trea.
- Gelb, Ignace J., 1952, *A Study of Writing*, The Univ. of Chicago Press, Chicago-Londres. Gazt. itz. *Historia de la escritura*, Madrid: Alianza, 1982².
- Haarmann, Harald, 2001, *Historia universal de la escritura*, Madrid: Gredos.
- Hermoso de Mendoza, Javier, 2004: “Miguel de Eguía y la imprenta en Estella en el siglo XVI” [online], *Estella.com.es*. Interneten eskuragarria: <<http://www.sasua.net/estella/articulo.asp?f=imprenta>> [Kontsulta: 2016-01-24].
- Martínez de Sousa, José, 2010 [1987], *Pequeña historia del libro*, Gijón: Trea.
- Maseda Truchado, Esther, 2012, *El libro y sus partes: redacción, estilo y normas ortotipográficas*, Madril: Universidad Complutense. Interneten eskuragarria: <<http://eprints.ucm.es/17257/>> [Kontsulta: 2016-01-24].
- McKerrow, Ronald B., 1998, *Introducción a la bibliografía material*, Madrid: Arco/Libros.
- Moll, Jaime, 1979, “Problemas bibliográficos del libro del Siglo de Oro”, *Boletín de la Real Academia Española* 59:216, 49-107. Berrargit. elektr. Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes: <<http://www.cervantesvirtual.com/FichaObra.html?portal=0&Ref=31883>> [Kontsulta: 2016-01-24].
- Odrizola Pietas, Antonio, 1940, “Libros impresos en Estella en el siglo XVI: doce reproducciones seguidas de breves notas”, *Príncipe de Viana* 1:1, 153-163.
- Reynolds, Leighton D. & Nigel G. Wilson, 1974 [1968], *Scribes and Scholars. A Guide to the Transmission of Greek and Latin Literature*, Oxford: Oxford Univ. Press. Gazt. arg., egileek berrikusi, osatu eta gaurkotua: *Copistas y filólogos.*, Madrid: Gredos, 1986, 1995.
- Sanz de Ormazabal, Iñigo, 1988, “La imprenta en el País Vasco. Sus comienzos”, *Bilduma* 2, 217-222. Interneten eskuragarria: <http://www.erreterria.net/es/ficheros/57_18219es.pdf>.
- , 1992, *De libros y bibliotecas. Sobre Biblioteconomía, Bibliografía e Historia del Libro de Euskalherria*, Gasteiz: Eusko Bibliographia & Eusko Jaurlaritza.
- Urrizola Hualde, Ricardo, 2006, “Sancho de Elso y su doctrina Cristina "en castellano y vascuence"”, *FLV* 101, 109-146.
- Zabala-Vázquez, Jon, 2013, “La imprenta en Bilbao: estado de la cuestión”, *RIEV* 58:1, 132-172.

21 Interneteko baliabide batzuk:

- *Del Rollo al Códice Miniado*: <http://www.iconio.com/ABCD/A/>
- *From Cave Paintings to the Internet*: <http://www.historyofinformation.com/>
- *Composición manual*: <http://www.limprenta.es/tl/tipografia.htm>

3. gaia: Testuen edizioa eta testu-kritika

Nahitaezko irakurketak: Pérez Priego (2011), Urgell (2013).

1. Oinarrizko kontzeptuak.— 2. Originala eta kopia.— 3. Edizio motak.— 4. Hutsak eta aldaerak.— 5. Testu-kritikaren historiaz.— 6. Edizio kritikoa.— 7. Testuak antolatzea eta oharra idaztea.— 8. Laburdurak.— 9. Bibliografia.

1 Oinarrizko kontzeptuak

- Testu-kritika zenbait hizkuntzatan:
 - Gazt.: *crítica textual*
 - Fr.: *critique textuelle*
 - Al.: *Textkritik*
 - It.: *critica testuale* eta *critica del testo*
 - Ing.: *textual criticism* (baina esanahi zabalagoa du)
- Testu-kritikaren helburua:
 - Egileak idatzi nahi izan zuen testura hurbiltzea, egilearen azken borondate testuala (originala) ahal den neurrian berreskuratzea.
 - Testuak editatzea eta aztertzea, testu zaharrak zein modernoak, irizpide zientifikoak erabiliz, testu originala errespetatuz.
 - Ahal den neurrian, testuaren sortze-prozesua eta transmisioa ulertzea eta azaltzea.
- Bi kontzeptu bereizi behar dira:
 - **Testua**: kontzeptu abstraktu bat da, egilearen azken borondate testuala. Haren aurretik **aurretestu** batzuk izan ditzakegu: zirriborroak, eskemak, lehen idatzaldiak, egileak zuzendutako inprenta-probak...
 - **Lekukotasuna**: objektu fisiko bat da, testuen transmisioa ahalbidetzen duena (eskuizkribua —bilkaria, kodizea—, liburua...).

Helburu zehatza testuari buruzko **hipotesi** bat egitea da; izan ere, beti ezin da ziurtasun osoz originaleko testua zein den jakin.

- Gaur egun testu-kritikak hiru arlo hauetan lan egiten du:
 1. Testuaren sortzetik transmisiora doan prozesu konplexua ezagutzea.
 2. Testuen transmisioa aztertzea.
 3. Testuaren harrera aztertzea.
- Testu-kritikan aritzeko beharrezkoak dira (Brambilla Ageno 1984: 10-11):
 - (a) prestakuntza filologiko sendoa (*USUS SCRIBENDI*);
 - (b) testuekiko begirunea;
 - (c) fantasia pixka bat eta zorroztasuna;
 - (d) paleografiaz, bibliografia materialaz eta hizkuntzaren historiaz asko jakitea;
 - (e) testu-kritikarekin berarekin gozatzea.

• Testu-kritikaren aurkako aurreiritziak: jende askok pentsatzen du testu baten edizio guztiak baliokideak direla. Beste batzuek uste dute testu-kritikaren lana alferrikakoa dela eta mespretxatzen dute.

2 Originala eta kopia

- 1) ORIGINALA: egileak sortzen duen testua, bere borondatea islatzen duela.
 - a) AUTOGRAFOA: egileak berak idatzia.
 - b) IDIOGRAFOA: beste batek idatzia eta egileak berrikusi eta onetsia (originala da, baina ez autografoa).

Adibideak:

- [Lazarragaren eskuizkribua](#) autografoa da.
 - Frai Juan Zumarragakoaren gutuna idiografoa da.
- 2) KOPIA: originala edo beste kopia bat errepikatzen duen testua.
 - a) APOGRAFOA: 1. Originaletik ateratako lehenengo kopia 2. Oro har, egilea ez den batek idatzitako kopia.
 - b) ANTIGRAFOA: Kopia bat egiteko erabiltzen den eredua.
 - c) KOPIA AUTOGRAFOA: egileak idazten duen bere lanaren kopia (autografoa da, baina ez originala).
 - 3) Obra inprimatuei dagokienez, beste termino hauek erabili ohi dira:
 - a) *Editio princeps*: lehenengo argitaraldia
 - b) Edizio zuzendua, handitua edo emendatua, laburtua, birmoldatua, berrikusia, faktizioa, etab.

3 Edizio motak

3.1 Edizio mekanikoak edo faksimileak

• Baliabide mekanikoak erabiliz egindako edizioak. Batzuetan tamaina eta materiala ere imitatzen dira.

• Abantailak:

(a) Ez da huts berririk gehitzen.

(b) Jatorrizko alearen itxura berbera duen obra bat.

(c) Liburu eta izkribu zaharrak hondatu baino lehen bere itxura guztiarekin gordetzeko eta ezagutarazteko.

(d) Ortografiaren historia aztertzekeo.

• Desabantailak:

(a) Edizio hauek ez dute jatorrizko lekukotasuna hobetzen; tresna hutsak baino ez dira.

(b) Ez da arrunta klasikoak edizio faksimiletan irakurtzea. Eskuarki horretarako edizio kritiko egokiak prestatzen dira, gurean ia erabat falta direnak.

(c) Edizio faksimileak egoteak lan berberen edizio kritikoak egitea oztopatu ahal du.

3.2 Edizio paleografiko edo diplomatikoak

• Izkribua zehazki eta fidelki transkribatu nahi duten edizioak.

• Argitaratzaileak ez du inongo aldaketarik egiten: ez ditu hutsak zuzentzen (nahiz eta zeharo nabarmenak izan), ez hutsuneak betetzen saiatzen, ez hitzak banatzen edo biltzen. Grafia eta puntuazioa ere ez ditu ukitzen, letra larriak eta xeheak ere ez. Bakar-bakarrik laburdurak zabaltzen ditu (parentesien bitartez, letra etzanez edo markatu gabe).

Eskuarki, lerroen (“/”) eta orrialdeen (“//”, “[]” edo “< >”) banaketa zehazten dira. Orrien zenbakikuntzan *r* eta *v* erabili ohi dira, eta zutabeak egonez gero, *a*, *b*, *c*...

• Testua ematen da ezer interpretatu edo berreraiki gabe. Edizio paleografikoa edizio mekanikotik bereizten duen bakarra irakurtzeko erraztasuna da, ez baita paleografia ezagutu behar. Horregatik deitzen dira **paleografikoak**.

• **Diplomatikoak**: horrela deitzen dira diploma eta historialarien ikergai diren dokumentuak era horretan argitaratzeko ohitura dagoelako.

Hauetatik kanpo gutxi erabiltzen dira. Bakarrik testu zahar ezezagunak eta hizkuntz interes hutsa duten testuak argitaratzeko.

- **Edizio erdipaleografikoak:** grafia erregularizatu (*u / v, i / y / j* balio bokaliko edo kontsonantikoen arabera banatu), puntuazioa sartu, hitz banaketa eta letra larrien erabilera eguneratu.
- **Edizio anizkuna edo sinoptikoa:** testu baten transmisioko lekukotasun guztien (edo batzuen) edizio paleografikoa, aurrez aurre aurkeztuta.
- Edizio kritikoak / paleografikoak: helburu ezberdinak.
 - Edizio kritikoak gorde zaizkigun lekukotasunez gaindi begiratzen du, testu originala bilatu nahi du.
 - Paleografikoa lekukotasun batera mugatzen da eta berau deszifratu eta eskuragarri bihurtu nahi du.
- Testua ahal den gutxiena aldatzea (edizio paleografikoetan egiten den bezala) ez da zuhertasun filologikoaren seinalea. Aitzitik, irakurleari testua zehaztasun osoz ulertzeko aukera oztopatzea baino ez da.

4 Hutsak eta aldaerak

- Transmisio prozesuan testu batek ezinbestez jasaten ditu aldaketak. Arrazoi batzuk:
 - ereduaren ezaugarriak: luzera, letrakera, argia...
 - kopiagilearen trebetasuna
 - kalte fisikoak
 - kopiagileen hutsak
 - nahita sartutako aldaketak.
- Testu-kritikaren helburua: transmisio prozesu hori atzerantz egitea.
- Testu-kritikaren metodoaren oinarriak: (1) testu bat ezin da transmititu huts bat ere egin gabe; eta (2) kopia bakoitza eredu bakar batean oinarritzen da.
- Hutsek berebiziko garrantzia dute, testua nahasgarri eta ulergaitz bihurtu dezaketelako.
 - Literatur testuen kasuan, obraren edukia eta forma aldatzen dituzte.
 - Testu erlijioso, juridiko edo zientifikoetan, haien egia edo “dogma” larriki aldatu ahal dute
 - Eguneroko bizitzan ere testu-hutsek nahasmendu eta kalte larriak sorraraz ditzakete, albiste batean edo publizitate iragarki batean adibidez.

4.1 Kopiatze prozesua eta hutsak

• Autografoetan ere hutsak aurkitzen dira, baina batez ere kopietan dira ugariak. Kalkulatu da kopiagile arrunt batek batzuk beste orrialdeko huts bat egiten duela.

• Kopiatze prozesuaren urratsak:

1. kopiagileak ereduko pasarte bat irakurtzen du (*pericopa*);
2. pasartearen buruz ikasten du;
3. bere buruari diktatzen dio;
4. transkribatzen du;
5. eredura itzultzen da.

• Urrats bakoitzean huts desberdinak gertatzen dira, hurrenez hurren (Roncaglia 1975):

1. bisualak;
2. mnemonikoak;
3. psikologikoak;
4. mekanikoak;

4.1.1 Huts bisualak

• Eredua irakurtzean gertatzen diren hutsak dira.

1. Eredua deszifratzeko zailtasunak:

- a. zenbakiak eta letrak nahastea
- b. laburdurak gaizki ulertzea
- c. letrak nahastea

2. Kopiagilearen axolagabekeria: adinak edo nekeak areagotua. Horren ondorioz, letra batzuen orden beste batzuk irakurtzen ditu, hitz desberdin bat irakurritz.

• Eredua irakurria eta eredu diktatua:

→ Irakurrian: *e / c, u / n, s / f, x / r, q / g...*

→ Diktatuan: *s / z, p / b, b / m, t / d, ts / tz / tx...*

4.1.2 Huts mnemonikoak

• Irakurri duen pasartearen kopiagileak buruz ikasten du gaizki. Ondorioz, testuan aldaketak egiten ditu.

4.1.3 Huts psikologikoak

- Irakurri eta buruz ikasi duena bere baitan errepikatzen duen momentuan, kopiagileak buruan lotura batzuk egiten ditu, nahigabe, bere ohitura, ezagutza eta hizkerarekin. Lotura horien ondorioak kopiara pasa daitezke.

4.1.4 Huts mekanikoak

- Idazteko unean ere huts batzuk gerta daitezke: ikur batzuk idazteko zailtasunagatik, ikurrak errepikatzen direlako...

4.2 Kopiagilearen hutsen tipologia

- Huts mota posibleak Aristotelesen kategoria aldatzaileen arabera sailka daitezke:
 - gehiketa;
 - kenketa;
 - orden aldaketa;
 - ordezkaketa.
- Kopiagile batek ustekabeen edo nahita alda dezake testua. Huts guztiek aldaketa dakarte, baina aldaketa guztiak ez dira hutsak. Lekukotasun bakarra gorde duten testuen kasuan oso zaila da mota bateko eta besteko aldaketak bereiztea, batez ere ordena aldaketak eta ordezkaketak direnean.

4.2.1 Gehiketa (adiectio)

a. Letra baten gehiketa.

TAV 83 (Arrasateko Erreketa, 1448) Preserbal.

ConTAV 134 (Urruñako Udalak Hondarribikoari gutuna, 1680) berhar.

ES 119 *Semel* fidel; 152 harc entçuen zuen.

ZarDot 18 arimaren pontenciatic.

ZarDot 27 seisgarna.

EDot 12 vencitu ciolazcoz.

EDot 13 Aadoratan.

EDot 28 errortra.

b. Silaba bat gehitzea, aurrekoa errepikatuz (*ditografia* edo *duplografia*).

ConTAV 144 (ezkontza prozesu bat, 1664) estutut lequic.

MgPAb 197 ascogagana.

AeDot 35 ellegatuas gueros guarmenturara. (8. eta 36. or. *guarmendura ellegatu*).

AeDot 40 barca daquiquion gatic.

ZarDot 18 eguiten *dendena*.

ZarDot 36 *pentacetcea*. (Aurrekoa zuzendu nahian ibili eta ezabatu gabe utzi, nonbait)

c. Hitz bat edo esaldi labur bat gehitzea, aldamenekoa errepikatuz (*ditografia* edo *duplografia*).

TAV 83 (Arrasateko Erreketa, 1448) Madalenaan *an ey dauça*.

EZMan. II 15 Arranoa hain errachqui nola arid illhantçac Arranoa hain errachqui nola arin illhantçac (beharbada inprenta hutsa, *arid* zuzentzeko lerro osoa berriz egingo zuten eta lehengoa kentzea ahaztuko zitzaien).

ES 97 ala *ciren* haren beharrietan Escuarazco hitçac estrainio eta arrotç *ciren*?

MgPAb. 154 ta *da* zu ta ni baño christiñau obia *da*; 157 Ceruan bezala *bezala*.

EDot 75 zore honra eta *eta* gloriatan.

d. Sinonimo bat gehitzea.

4.2.2 Kenketa (detractatio)

a. Letra baten kenketa.

TAV 76 (Milia Lasturkoaren eresia, Garibaik jaso): Ain ga[c]h andia, Mondr[a]goeri; 112 (Iruñean 1609an saritutako olerkia) ci[n]duquean.

E I 106 [q]hencen.

EZMan 3077 bai[c]en, 3079 er[r]encura.

ES 129 ga[u]cei.

AeDot 21 non declaratcen baita cer bear d[u]en cristioac obratu.

ZarDot 23 edo dudarequin juramentu egui[n] duena.

EDot 13 cruche sai[n]tiuaz.

EDot 39 descub[r]itan.

EDot 52 doloreri[c] edo propositoric edo penitencia cumplitaco intencioneric bague.

EDot 53 bue[l]tataco.

EDot 53 socor[r]i dazala.

EDot 58 Sacramentu Sant[i]simuan.

b. Silaba edo hitz baten kenketa, albokoa berdina edo oso antzekoa delako (*haplografia*).

TAV 83 (Arrasateko Erreketa, 1448 - Iburgüen-Cachopín) Gomez andia [an] çan arren.

Lcc 236 arrebatamiento arreba[ta]ytea; 245 carcajadas de risa dar car[car]ada emon varrez; 308 putañear pu[ta]ñadu.

EZMan 156 Urru[ti]tic.

ES 99 hala[co] guisaz; 253 mai[ta]tu.

ZarDot 26 mal[di]cio.

c. Hitz baten kenketa barne diktaketaren huts batengatik.

ZarDot 23 G. Norc erraten da eguiten [duela] juramentu vanoqui? E. Eguiten duenac juramentu eguiaric bague...

d. *Homoioteleuton* edo berdinetik berdinerako jauzia. Esaldi edo bertso baten kenketa.

Acto (Azkueren edizioan) 177-180 Enaiz atrebitzen gaizki esaten / [Señora virtuosa, —zer esango dot? / gaizki naiar[r]en esan ezin dot—] / Señora virtuosa, ai ene tristea!

Acto (Guerraren kopian eta ondoko edizioetan) 74. lerroaren ondoan ahapaldi oso bat falta da, San Josek esana: Jesusa xaioco da Virgineagainic (*vase*) [// Beti zaode Jauna favoreguinen /... / nigaz gura dozuna eguin eguizu (*vase*)]// Edicto de Zesar....

e. Eduki grafiko txikiko hitz baten kenketa.

AeDot 25 Norc vecatu mortale eiten du gonon contra? [...] socorratcen [ez] tuenac veren necesidadetan.

OrAitor IV, 7, 12 Nerekin ninderaman, nerekin ioan nai [ez] zuken anima, erdiraturik, odoldurik, eta ez nuan arkitzen non egotzi.

f. Esaldi baten kenketa.

Mat 27-28

Zazpi bekatu mortalen erremedioak

Zazpi bekatu hauken kontra badira zazpi erremedio.

1. Uguillutasunaren kontra, humiltasuna.
2. Abariziaren kontra liberaltasuna.
3. Haragizko bekatuaren kontra, kastitatea, emaztetarik apart egoitea.
4. Inbidiaren kontra, onheriztea.
5. Gularen soberaniazko ian edanaren kontra, abstinentzia, neurritz iatea eta edatea.
6. Haserretasunaren kontra, dilijenzia, erne eta iratzarri izaitea.
- [7. bekatu mortalaren, nagitasunaren, erremedioa falta da]

4.2.3 *Orden aldaketa* (transmutatio)

a. Letra batzuen ordenaren aldaketa.

E XI 4 *narçaque* (=nacarque).

EZMan 2677 *niozbait*; 3128 *eaztçao*.

ConTAV (Zubiaren dotrina, 1691) 134 *dues*; 153 *diraen*; 153 *confessionean*.

AeDot 21 *Dira* espiritu puro bienaventuratu vatzuc *gotzacen* daudenac Jangoicoas ceruan.

AeDot 30 *Ar* deiteque colacio vezala conciencia ona duten personec *utsacen* dutena.

ZarDot 8 *Eratcus* zacie nola.

b. Hitzen ordenaren aldaketa.

TAV 176 (Isastiren errefrau bildumak) *Asco* daqui zarrak, eracusi bearrac *B* // bearrac eracusi *C*; 177 *Egoqui* arzari seda beloia *C* // beloia seda *B*.

c. Bertso-lerro eta ahapaldien ordenaren aldaketa.

4.2.4 *Ordezkateta* (immutatio)

a. Letra baten ordezkatzeta, hurbileko batek erakarria (*atractio*).

TAV 113 (Iruñean 1609an saritutako olerkia) *ylcul* (=ytçul).

ConTAV 144 (ezkontza prozesu bat, 1664) *çuru* (=çure); 149 (Zubiaren dotrina, 1691) *trinadeco*.

ZarDot 3 *Jusucristo*.

ZarDot 5 *Jesecristo*.

ZarDot 7 *Lena*, honestea Jangoicoa gauza *guciec gañetic* (=guciez).

ZarDot 16 *corpuz eta arima berequin zoin izaz baicitien*.

ZarDot 33 *zazpigarra*.

ZarDot 49 *Janjoicoari*.

ZarDot 50 *Zomaz* (=Zomat).

ZarDot 55 *resucititu*.

EDot 28 *guc parcatan digun bicala agrabio eta gassqui eguin daiquigurer*.

EDot 45 *obraz edo deseos*.

EDot 57 *becatu mortale confesatiuetarit zomait*.

EDot 53 *conen coinnaiden partetan*.

EDot 67 *haren imagen eta samejanzara*.

OrAitork V, 14, 24 *Batez ere Itun Zarreko zenbait asmakari asmatzen [askatzen] bein ta berriz ikusi nunetik [...]*

b. Hitz baten ordezkatzea, *pericopa* berberean hitz berdina errepikatzen delako.

ZarDot 10 *G. Zoin dra? E. Ssaquitea ginetsi bear duena, otoi eguin bear duena, obratu bear duena eta recibitu bear duena. G. Nola ssaquinen du recibitu bear duena? (ginetsi behar luke)*.

c. Hitz edo esaldi baten ordezkari alboko edo hurbileko *pericopa* batekoa jartzea.

ZarDot 47 *Espiritu Sanduaren frutuac ditzu amabi: [...]* *Bienaventuranzac ditzu amabi* (zortzi baino ez dira).

EDot 43 *Espiritualac edo corpizarenac dra cuec: [...]* *Corporalac edo corpizarenac dra cuec* (=arimarenac).

d. Fonemen ordezkatzea kopiagilearen ezjakintasun historikoagatik.

TAV 79 (Peru Abendañoakoaren kanta, 1443) *jocala* (=joeala); 84 (Arrasateko Erreketa, 1448) *Ama bereac esacusan* (=esaeusan); 91 (Martin Bañez Artazubiakoaren eresia) *yragegura* (=yrageguia); 93 (Sandailia) *atrac* (=ateac); 93 *arcandoa* (=arean doa); 113 (Iruñean 1609an saritutako olerkia) *janturic* (=jauturic); 119 (Iruñean 1610ean saritutako olerkia) *norc ompacen deu / Ceruan çure lecua* (=ocupacen); 120 *Ascotan deneatua* (=desseatua); 184 (Belaren errefrau bilduma) *aritic* (=acitic), *uteiren* (=utciren), *nendiu [birritan]* (=nendin), *gauregui* (=yaurequi).

BerTrat: *Fita* 1881 *Virgina Mariaren bastatik; baytatik* behar genuke (Mitzelena 1981b: 695).

e. Hitz baten ordezkari erabilera-maiztasun berdina duen eta grafikoki antzekoa den beste hitz bat jartzea.

TAV 79 (Peru Abendañoakoaren kantua) *Gorpuceco lau aguinoc* berala (=araguioc).

k. Errazte bategatik gertatutako ordezkatzeari (*lectio facillior*).

TAV 177 (Isastiren errefracu bildumak) Eguic on eta eztaquiala non. Haz bien, y no sepas a quien B // Eguic on, eztaquiala nori C.

RG 4 Norc vere opilari icaça // Aizkibelek *uaça* irakurtzen du eta *uaza* transkribatzen. Areago, Garibairen itzulpena —“Cada uno allega el carbon a su pan”— “Cada uno atiende a su hogaza” bilakatzen du.

RG 11 Arçaiac aserra çiteçen, gastac aguiri çiteçen // Aizkibelek *zituzten* irakurtzen du.

RG 19: Gure mandoa urac engarren eta urac aroa // Aizkibelek *ekarren* transkribatzen du eta itzulpeneko “Nuestro macho, el agua te traxo, y el agua te lleva” “le traxo... le lleva” aldatu behar du.

RS 281 (Azkue) Ator[r]en baxen ur[r]ago narrua “El cuero más cerca que la camisa”, Azkuek *atorra* zuzendu zuen.

Acto 381 Apareja bequio esne nata baguea (=Apareja bequio esse natto baguea).

h. Sinonimiagatik gertatutako ordezkatzeari.

i. Antonimiagatik gertatutako ordezkatzeari.

4.3 Kopia-gileaz kanpoko hutsak

4.3.1 Kalte fisikoak

Arriaren *Anabasis* (II. m.).

BerTrat: Bonaparteren liburutegia / *Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico Español. Siglo XVII* (Camino & Lakarra 1993).

4.3.2 Zentsura

Kardaberaz, *San Inazioaren bizitza* (ik. Bijueska 2010):

Es muy conforme la reflexión de inconvenientes que en su día podría traer la impresión en vascuence de la vida de San Ignacio y el acuerdo tomado por ese Supremo Tribunal para suspender la licencia de imprimir de que V. S. me avisa en carta... en ausencia del Virrey. A esto se agrega el reparo político de no convenir hacer impresiones en otra lengua que en la castellana, inteligible a toda la nación, y así por regla general se denegarán por ese Consejo sin especial noticia mia, archivándose la obra original de la vida de San Ignacio en vascuence con el expediente de su impresión... haciendo entender a los impresores de ese reino para que no aleguen ignorancia castigando severamente cualquier contradicción. (*apud* Mitxelena 1981a: 691-692)

MbBurgDot:

[...] ésta no se puede llamar traducción de Astete, y que de ningún modo se debe imprimir con esse nombre, sino refundiéndola toda de nuevo, con más cuidado, no tan de prisa, con más escrúpulo y atención al sentido y voces de Astete, y no tan al desgairre y a poco más o menos.

AñGGero:

...euqui ditu libru onec non edo an lengo demporetan bere ecachac, bere cérac; onetaraco bidea emon eban, bear etzirian Persona errespetagarriak aotan artzeac, euren utsac aguertzeac eta beste maquiña bat gauza, issilic igaro, estaldu ta gorde bear cirianac zabaltzeac. Dirianac albatenez garbitu dira oraingo onetan; batez ere ogueta-amaca-garren Capitulutic berrogueta laugarrena guiño laburtu dira gauza batzuc, beste batzuc quendu ta beste asco eransi ta gueiagotu, uste izanic convenico ez jaquela era guztico personai; ta bere iracurtzetic on baño calte gueiago etorrico lequiquielaco gazte ascori len leguez geldituco balira (*GGero* 3, *apud Urgell* 1991: 330-331)

Axularren 31, 32, 33 eta 34 = Añibarroren 31 eta 32; 39 eta 40. kapituluak baztertu zituen:

XXXIX: “Haraguiaren beccatutik beguiratceco borzgarren erremedioa, consideratcea cein ttipia eta laburra den hartaco placera.”

XL: “Haraguiaren beccatutik beguiratceco seygarren erremedioa, hartaco placerac cein ondore gaixtoa bere ondotic vizten duen consideratcea.”

JEBur:

Liburu hori, ditaken eskuararik garbienean egina delakotz nahi izan dugu salbatu: bi kapitulu dohakabiez arindurik eta hitz dorpexko bakar batez, zen bezala-bezala agertzen dugu (Lafitte 1941)

AgG:

Antxen lañoz jantzitako zerupe illunean, suinkiro alkartu dira eibartarrik geienak, onenak ez baña 1935 // Antxen lañoz jantzitako zerupe illunean, suinkiro alkartu dira mitinzale asko 1956.

Bego Eibarren bizar biko gizontxoaren erakastea 1935 // Utzi dezagun bizar biko gizontxoaren erakastea 1956.

Euskalerrri guztia, Eibar izan ezik, abadien mendian dago 1935 // Euskalerrri guztia abadien mendian dago 1956.

K. Mitxelena, *EGAN*, 1956: “Zoko-garbitze” hau zergatik? Norbait, eibartarra noski, minduko litzatekeelako? Bai ote? Horren sentikorra ote da oraingo jendea? Ez ote du inork marxistarik Eibartik kanpora ikusi? Lastima da, benetan, horrako zuzentzaile horrek liburua zuzendu duen bezain erraz mundua ezin zuzendu ahal izatea. Ez dakit halare ez ote nukeen nahiago gauden mundu traketsen bizi, berak zuzendutakoan baino.

ACPV:

Como se dijo en el Cancionero manual, pág. 243, la letra original, además de ser chavacana, hiede. Decía así: Boto ninak bolonte / loak artu nai noke / suge utsuak boluntate / abadejo xatan dion apezak / eginen du kaka me. / Boto ninak bolonte / loak artu nai noke. (*ARonc*, 322)

El folklorista, que siempre que extirpa una letra ha creído verse obligado a sustituirla con otra del mismo dialecto o variedad dialectal, trazó en puro y difícil roncalés este poemita, procurando dar al acompañamiento de la melodía este mismo carácter de rareza y acritud del dialecto en cuestión. (*ARonc*, 322)

Margu lili artean
 erleak naro ebiltan dra;
 korien ezitia gore aurrak
 ñola ezin doke murtxa.
 Erleak: aurkoi bazrade,
 fanzte beste lilitra.

MdePr:

Kapitulu bat falta da, Peillen-en bilduman bederatzigarrena izan behar zuena, “Jon Mirande eta politika” deitua. [...] Gure ustez, kapitulu hura literatur aldetik etzen oso baliosa, eta guk liburu hontan batez ere literatur lan baliosak argitaratu nahi genizkion Miranderi. Bestetik, eta horretan zegoen neurri haundi batean kakoa, kapitulu hartan zentsura aldetik ezin argitaratuzko gauza asko zegoen (zoritarrez); beste zenbait gauza, Mirandek honekin eta harekin izantako eztabaidetaz zen; arazo mingarria hauxe, eta gure ustez gaur egun politika aldetik batere probetxurik gabea.

ArtiOC:

Editorearen ohar bat: Hemen dituzun poemak, irakurle, ez dira Gabriel Arestiren poema guztiak, batzuk baztertzeko beharrean aurkitu baikara eta ez, Mitxelenari parafraseatuz, gaizki neurturik daudelako. Dakikizunez (sic), azken urte honetan ez dira nahi genituen gauza guztiak aldatu, eta hots, zenbait eskribu artxiboan geratzen da, garai zoriontsuagoen zai.

4.3.3 Testuaren konposatze edo azaleztatze prozesua

TAV 82 ([Arrasateko Erreketa](#), 1448 - Iburguen-Cachopín): Kronikaren eskuizkribua josita dagoenez, ezin dira ertzetako letra batzuk irakurri. Horietako zenbait, gainera, josturak desagerrarazi ditu:

[G]alidila Vnçqueta ta Vergara.
 [Ç]aldibarrec bere partea debala.
 [Ar]amayo, suac erre açala.
 [T]a sumi a[...]la Gurayarra,
 Cerren ceuren jauna ezcencan empara.

4.4 Aldaerak

- ALDAERAK: testuko pasarte batean lekutasunek ematen dituzten irakurketa desberdinak.
- ALDAERA NEUTROAK, IRAKURKETA EKIPOLENTEAK edo ADIAFORAK: irakurketa guztiak itxura zuzena dutenean, originalekoak izateko aukera dutenean.
- Ediziogileak adiaforen artean aukeratu behar du, gehienbat irizpide filologikoak erabiliz, hala nola *USUS SCRIBENDI* (idazlearen eta haren garaiko hizkuntza, haren estiloa, etab.) edo *LECTIO DIFFICILIOR* direlakoak.

Adibideak:

Axular: *Gero* (1643):

animalia 7 aldiz / *animalia* 4 aldiz. Zaila da hemen erabakitzea (cf. *OEH*, s.v. *animalia*).

ordean behin / *ordea* 260tik gora. Baina *ordean* aldaera badago garai hartako lapurterazko testu gehiagotan. Beraz, Axularren aldaera izan liteke, edo hutsa (hurrengo hitzaren eraginez: “Ordean, nolatan ahal dateke hori horrela?” (Axular 1643: 149).

4.5 Huts poligenetikoak eta huts monogenetikoak

- HSTS POLIGENETIKOA: zenbait kopiatan errepikatu arren, kopiagile bakoitzak bere aldetik egin duena, haien arteko loturarik gabe.
- HSTS MONOGENETIKOA: zenbait kopiatan errepikatzen bada ere, bere ezaugarriengatik ia ezinezkoa dena kopiagile batek baino gehiagok nork bere aldetik egitea.
- Huts poligenetikoek ez dute nahitaez lekukotasunen arteko erlazio bat frogatzen; huts monogenetikoak agertzeak, aldiz, lekukotasunen arteko lotura ziurtatzen du.
- Hala ere, ez da beti erraza erabakitzea huts bat monogenetikoa den ala ez. Hortik etor daitezke, besteak beste, testu beraren edizioen arteko desberdintasunak.

4.6 Egilearen aldaerak

- Egile batek aldaketak edo zuzenketak egin ditzake bere testuan, haren kopiaren bat zabaldu ondoren, baita testuaren idazte prozesuan zehar ere (zirriborroak, originala, kopia autografoa, inprenta-probak, etab.). Kasu horietan testuaren idatzaldi desberdinak ditugu eta haien artean EGILEAREN ALDAERAK daudela esaten da.

Edizio kritiko batean, egileak onartutako azken idatzaldia eskaini beharko genuke. Aldi berean, testuaren sortze prozesuaren eta idatzaldi desberdinen historia azaldu behar da (testuaren historia genetikoa). Horretarako, oharretan egilearen aldaerak hurrenkera kronologikoan aurkeztu behar dira (aparatu diakronikoa).

Adibideak:

4.6.1 Egilearen aldaera txikiak

Leizarraga: *Testamentu berria* (1571); ik. Lacombe (1907) eta Vinson (1907).

<i>diroano</i>	<i>deçaqueano</i>
<i>arthalde</i>	<i>arthequi</i>
<i>ec en</i>	<i>ecen</i>
<i>bain o</i>	<i>baino</i>

deu^s, bil^o, ed^o *deus, bilo, edo*
diotsó *diotsa*

4.6.2 Egilearen aldaera sakonak

Materre: *Doctrina Christianaren* lehenbiziko argitalpena [1617an Bordelen](#) agertu zen (2015ean aurkitua); [bigarrena 1623an Bordelen](#) bertan eta urterik gabe Agenen (Vinsonen ustez, 1648 urte inguruan). Bigarren argitalpenari Materrek hirugarren parte bat gehitu zion, ia aurreko biak bezain luzea. Ohar bedi hirugarren parte honek oniritzi eta lizentziak dituela.

Añibarro: Urgell (1987).

Añibarrok *Escu-Liburuaren* bi idatzaldi egin zituen. Batetik bestera goitik beherako birmoldaketa egin zuen. Lehen idazketa 1802koa da eta bigarrena 1821ekoa. Aldaketa esanguratsuenak ortografian aurkitzen dira, erabat sistematikoak direlako. Añibarroren helburua bikoitza da, baina lotua: (1) Larramendi, Kardaberaz, Erro eta Astarloaren eraginari jarraiki, literatur bizkaiera eratu nahi du eta horretarako ortografia euskarazko ahoskerari egokitu nahi dio; (2) aldi berean, gaztelania idazteko grafia sistema euskaraz erabiltzean sortzen diren arazoak eta inkoherentziak ezabatu nahi ditu.

$x (sh) \rightarrow sh$	$qu \rightarrow k$
$mb, mp \rightarrow nb, np$	$j \rightarrow y$
$ViV \rightarrow VyV$	$v \rightarrow b$
$h \rightarrow \emptyset$	

J. A. Mogel: [Konfesio ta komunioko sakramentuen gañean erakasteak](#) (Iruñea, 1800). Mila bat ale banatu ziren Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaian zehar. Bizkaian kexak liburua gipuzkeraz idatzita zegoelako. Mogelek, bizkaitarrek gipuzkera ulertzea erraza zela erakusteko, gipuzkera-bizkaiera hiztegitxo bat moldatu zuen (1802).

...si en la siguiente Nomenclatura se les hace palpar que los vocablos peculiares inconexos y característicos del dialecto guipuzcoano son pocos y se les presenta su significación, creo se me confesará que en pocos días de trabajo pueden los vizcaínos comprender el gusto y sentido de los libros guipuzcoanos. (Mogel 1802)

Dena dela, hurrengo urtean bizkaieraz argitaratu zuen liburuaren bertsio bat ([Konfesino ona](#), 1803). Hitzaurrean Mogelek berak azaltzen du gertatutako guztia.

Kirikiño: [Abarrak](#) (1918). Liburuko atal gehienak lehenago zenbait aldizkaritan argitaratu zituen, eta Kirikiñok aldaketak egin zizkion liburuan sartzeko; beraz, ipuin gehienek idatzaldi bi dituzte (Laka 1986). Adibidez, *Euskalzale* aldizkarian argitaratuetan, Kirikiñok Azkuek proposatutako grafia, aditz sistema eta joskera erabiltzen zituen. Baina denborarekin Kirikiñok Azkueren itzaletik aldendu zen eta Arana-Goiriren ideietara (politiko zein linguistikoetara) hurbildu zen. Horrela, bada, *Abarrak*-en argitaratutako bertsioetan Arana-Goirik proposatutako grafia, aditz sistema eta hitz berriak erabili zituen.

5 Testu-kritikaren historiaz

Sakontzeko bibliografia: Morocho Gayo (2004), Orduna (2000: 13-96).

Testuak herri baten kultur ondarearen zati bat da. Herri bat, bere ondarearen garrantziaren kontzientzia hartzen duenean, hasten da arduratzen testuak berreskuratzen, ahaztu edo galdu ez daitezen. Halaber, denboran zehar jasandako aldaketa, hondatze eta mozteetatik salbatzeko premia sentitzen du.

5.1 Grezia

- Premia hori Grezia zaharrear, K.a. III. mendean sentitu zen.
- Grezia zaharrear liburua hedatu bide zen Periklesen garaitik aurrera (K.a. V. m.).
- **Alexandrian**, Ptolomeo I.ak Museoa eta Biblioteka eraiki zituen. Gramatikari eta filologo jakitunak aritu ziren aurreko egileen ekoizpenak biltzen, sailkatzen eta beren testu zuzenak lortzeko asmoz lan egiten. Helburua literatura greko osoa biltzea zen.

Egileen testuak zaintzeko zuten jarduera (Reynolds & Wilson 1974):

- a. iraganeko idazleen ahalik eta obra gehien bildu;
- b. testuak finkatu, benetako irakurketa erabakiz, aldaeren arteko konparaketa eta zuzenketa eginez. Kopien bitartez zabaldu.

Testu-kritikaren lehen urratsak:

- a. aldaeren egoeraz jabetzea;
- b. obra baten lekukotasunak erkatzea;
- c. puntuazio, azentuazio eta ikur kritikoen (*seméia*) sistema bat asmatu eta erabiltzea;
- d. ohar kritikoak egiteko, hizkuntz irizpideekin batera, datuetan (*realia*) eta oinarri estetiko eta etikoetan oinarritzea (*usus scribendi* erabiltzea);
- e. aieruak oharretan ematen dituzte, ez testuan.

Oharrak edo iruzkinak (eskolioak) beste liburu batean biltzen ziren.

5.2 Erdi Aroa

- **Bizantzion** gorde ziren kultura klasikoaren arrasto eta iturri gehienak, turkiarrek 1493an hiria konkistatu arte.

Bizantzion, IX-XI. mendeetan, papiro zaharren transliterazio edo letraldatze masiboa egin zen, kopia berriak eginez, pergaminoan eta idazkera minuskula erabiliz. Transliterazio lan hari esker gorde izan ziren gaur egun ezagutzen ditugun Grezia klasikoko testu gehienak.

- **Mendebaldean** kultura klasikoa monasterioetan gorde eta transmititu zen. Geroago, katedraletako eskoletan eta unibertsitateetan. Oso gutxitan izan zuten testuekiko ardura

filologikorik. Gehienbat, zenbait lekukotasun erkatzen zituzten (*COLLATIO CODICUM*) beren kopietan zuzenketak erabakitzeko (*EMENDATIO OPE CODICUM*).

- **Karlomagnoaren garaian** xehe edo minuskula karolingioa hedatu zen. VIII. mendean grafia zaharretan idatzitako obren transliterazioa; kopia berri horien bidez transmititu zen Europako Erdi Aroko kultura.

- **XIII. mendetik aurrera** Europako herri hizkuntzetan idatzitako testuak ditugu. Halako lanak guztien ondare zirela pentsatzen zen eta, beraz, kopiagileak uste zuen testua aldatzeko eskubide osoa zuela, iruzkinak eginez, testua aldatuz, zuzenduz, handituz, etab. Generoen arabera: testu juridiko bat / testu historiko bat.

5.3 Humanismotik XVIII. mendera arte

- **Italiako humanistak** (Petrarca, Boccaccio, Valla, Poliziano...) klasikoen edizio berriak prestatzen hasi ziren.

Kritika-izpiritu aske eta laikoagoa; Antzin Aroko pentsamendua hizkuntza eta literaturaren bitartez eskuratu, iturri originaletan oinarrituz.

Erdi Aroko kopia arduragabeen testuak (inprentak areagotuak) garbitu behar ziren. Ez zen kontrako jarrerarik falta izan:

...querrían que nadie se aficionase a estas letras humanas por los peligros, como ellos pretenden, que en ellas ay, de como enmienda el humanista un lugar de Cicerón, assí emendar uno de la escritura y diciendo mal de comentadores de Aristóteles, que hará lo mismo de los Doctores de la Iglesia. (*apud* J. López Rueda, *Helenistas españoles del siglo XVI*. Madril: CSIC, 1973, 289. or.)

Eliza Katolikoaren kontrako jarrerak Espainian testu-kritikaren garapena gelditu.

- Humanistak saiatu ziren testu klasikoen kodize zaharrenak bilatzen, *CODEX VETUSTISSIMUS*, beren edizioak prestatzeko, gainerakoak baztertuz, *ELIMINATIO CODICUM DESCRIPTORUM*. Ordu arte, testu zahar bat editatzeko kodize berriak, eskuragarriagoak erabili. Bestalde, *TEXTUS RECEPTUS* edo edizio vulgata zuzendurik ematen zuten.

Zuzenketak egiteko ez zuten lekukotasun guztien irakurketa guztiak bildu eta beren arteko lotura eta erlazioak ikusten (= *RECENSIO*). Batzuetan kodize bat baino gehiago erabiltzen zuten (*CODICES PLURIMI*), eta haien erkaketa egin, baina ez zen *recensio* sistematiko bat egiten.

Oinarritzat hartutako testua beste lekukotasun horien bitartez (*EMENDATIO OPE CODICUM*) edota aieruz (*EMENDATIO OPE INGENII*) zuzendu ohi zuten beharrezkotzat zuten pasarteetan (Erasmus, Eskaligero, Poliziano...), baina beti ere humanisten beren orduko jakintzaren, iritzien eta gustuen arabera.

- Humanisten lan filologikoen adibide batzuk:
 - **Poliziano:** eskuizkribuak izendatzeko laburdurak erabili zituen lehenengoa.
 - **Erasmus:** *Testamentu Berriaren* edizioa egiteko gehiegitan erabili zituen bere aieruak testua zuzentzeko.
 - **Robert Estienne:** *Testamentu Berria* argitaratu zuen. Grekozko testuari aparatu kritiko bat gehitu zion, 15 eskuizkriburen aldaerak aurkezteko.
 - **Jose Justo Eskaligero:** Katuloren poemak argitaratzean, saiatu zen frogatzen lekukotasun ezagun guztiak minuskula karolingioz idatzitako eskuizkribu batetik zetozela. Lehen aldiz erabili Erdi Aroko ARKETIPOAREN kontzeptua.
 - **Francesco Robortello:** testu-kritikako lehenengo lan teorikoa, *De arte sive ratione corrigendi antiquorum libros disputatio* (1557):

...restituir el texto de los antiguos escritores en su prístino esplendor y enmendar los pasajes corruptos, ya sea por conjetura o por la consulta de manuscritos o impresos (*apud* Orduna 2000: 33)

- **Jean Le Clerc:** *Ars critica* tratatua argitaratu zuen (1697). Bertan *LECTIO DIFFICILIOR* irizpidearen hatsarrea formulatu zuen.

5.4 XVIII. mendea

• Britainia Handiko *Testamentu Berriaren* testu-kritikari protestanteen bitartez (Bentley, Bengel, Griesbach) aurrerapenak: *textus receptusa* eta *codices plurimiak* utzi, eta **tradizioaren historiaz** eta *lectio difficiliorraz* gero eta gehiago arduratu ziren. Mende horren amaieran eta hurrengoaren hasieran testu-kritika aitzinatu zen:

- **Bentley:** *textus receptus* erabiltzea arbuiatu zuen eta proposatu zuen aieruak baino lehen lekukotasunen erkatzea egin behar zela.
- **Bengel:** *Testamentu Berriaren* lekukotasunak taula genealogiko batean antolatu zituen. Lehen aldiz ezarri zituen lekukotasunen arteko ahaidetasun erlazioak.
- **Wettstein** eta **Griesbach:** *lectio difficilior* irizpidea baliatu zuten.
- **Semler:** konturatu zen humanisten garaiko kodize berri batean irakurketa zaharrago bat egon daitekeela: kodize zaharragoa \neq irakurketa zaharragoa.

5.5 Lachmannen metodoa

• XIX. mendearen hasieran testu-kritikaren atzerakada gertatu zen. Horregatik **Karl Lachmann** (1793-1851) alemaniarrek bere lehenengo lanak kaleratu zituenean, originaltasun handikoak zirela pentsatu zen, nahiz eta aitzindari asko izan

Halere, Lachmannekin identifikatu da testu-kritikako metodo zientifikoa. Lachmannek garaikide eta aitzindariak estali zituen, geroztik testu-kritikaren metodoari “**Lachmannen metodoa**” deitu arte (cf. Timpanaro 1985 eta, kritika baterako, Fiesoli 2000).

Funtsean, honelakoa litzateke metodo hori:

- a. *textus receptus* eta edizio vulgatak arbuiatu eta eskuizkribuetara jo, edizio osoaren oinarritzat izateko (*RECENSIO* zientifikoa);
- b. humanisten garaiko izkribuez mesfidatu, *DESCRIPTI* eta asmaketaz beteak direlako;
- c. testuaren historia berreraiki, heldu zaizkigun eskuizkribuen harreman genealogikoak garbituz, eta
- d. *IUDICIUM* gabe, arketipoko irakurketa **mekanikoki** berreraiki lekukotasunetako irakurketen arabera (*RECENSIO SINE INTERPRETATIONE*).

- Lachmannen jarraitzaile izan ziren XIX. mende bukaerako argitaratzaile gehienak filologia klasikoan, eta Pio Rajna edo **Gaston Parisen** tamainako maisuak filologia erromanikoan ere. Azkenari zor diogu **huts komun** **metodoa** aplikatzea lekukotasunak familietan sailkatzeko.

- Metodoak krisialdi larria pairatu zuen, ordea, XX. mendearen lehen hamarkadetan, batez ere frantziar eta italiar ikertzaileen bitartez.

5.6 Bédier

- **Joseph Bédierrek** Lachmannen metodoa artikulatu batean kritikatu zuen (1928).

Bédier konturatzen da Lachmannen metodoa aplikatuz egin diren Erdi Aroko testu frantsesen edizio guztietan estemak bitarrak direla; honek dakar argitaratzaileak etengabe erabakiak hartu behar dituela, berreraiketa mekanikorako aukerarik izan gabe. Emaitza berreraiketa artifizial bat da; originala ezin berreraiki.

- *Recensioa* albora utzi eta lekukotasun bakar bati atxikitzea aldarrikatu zuen, *codex optimus* irizpidera bueltatzea alegia. Kodize hori editatzea proposatzen du, irakurketak ahal den neurrian mantenduz eta hutsak filologoaren iritziaren arabera zuzenduz (humanisten modura). Honela jotzen du gaur batez ere frantziar eskolak.

5.7 Italiako kritikak

- Italiarrek (Barbi, Pasquali; Avalle, Timpanaro, Brambilla Ageno, Roncaglia, Contini, Segre...) Lachmannen sistemaren (a) mekanikotasunean eta (b) izkribu modernoan erabateko mespretxuan ikusten zuten akatsa.

- a. Batetik, ez zuten onartzen Lachmannen “recensere [...] sine interpretatione et possumus et debemus”. Bédierrek ikusi zuenez, esteman irakurketek aukera bera dutenean, argitaratzaileak hautatu beharra du, hautapen horretarako bere iritzi hutsa erabiliko ez badu ere, eta bai *usus scribendi* eta *lectio difficiliora*. *Iudiciuma* oztopo handia zen bere erabilera arbitrarioagatik eta Lachmannen garaian *recensio* zientifikoa aurrerapausoa izan zen; halere, gaur egun arrazoi hura aspaldi desagertzean, ezin albora dezakegu hain beharrezko —eta hainbat zorrotzu den— *iudiciuma* (Avalle 1978).
- b. Ez zuten onartzen harako “recentiores deteriores”; inoiz izkribu modernoak askoz zaharrago galduen kopia izan daitezke: ezin dira nahastu, beraz, *recentiores* eta *descripti* eta banan-banan eta froga sendoz aztertu behar dira.

Italiarren kritikak ez zuen Lachmannen sistema suntsitu eta humanistenera bihurtu nahi. Sistema sendoturik eta zehazturik atera zen: lehen baino froga eta segurtasun gehiago eskatzen da orain *stemma* onartzeko eta izkribuak *descriptitizat* arbuiatzeko; onartu ondoren ere, Lachmannen mekanikotasunaren segurtasuna utzi da eta *iudiciumarekin* lagundu behar da premia den guztietan. “Neolachmanndartzat” dute beren burua oraingo testu-kritikazko teoriko ia guztiek eta eskola horri lotzen zaizkio testu-kritikari gehienak, teorikoak eta frantziar eskolakoak salbu.

- Neolachmanndarren proposamenak:
 - Lachmannen metodo mekanikoak ez du balio *recensio* “irekia” duten tradizioetarako, funtsean testu klasikoak edo biblikoak ez direnetarako.
 - Ezin da testua berreraiki; horrek ez du kentzen testuari buruzko lan-hipotesiak ezin direnik egin. “Edizio kritiko bat, edozein ekintza zientifiko bezala, lan hipotesi bat besterik ez da” (Contini 1939).
 - Testuaren prozesu guztia ulertzen saiatu behar da, hala testuaren sortzea nola haren transmisioa: zenbat eta datu gehiago izan, hipotesi hobeak egingo ditugu. Testua denboran aurkeztu behar da, batez ere aparatu kritikoa erabiliz.
 - Hipotesi horietan argitaratzailearen iritzia funtsezkoa da.
 - Lekukotasunak ez dira erkatu behar hutsak bakarrik ateratzeko, baita gainerako datuak ere: berrikuntzak, adibidez.
 - Irakurleari material guztia eskaini behar zaio, berak gure edizioa ebaluatu dezan eta, aukeran, gure hipotesia hobetu.
- Testu-kritika lanetarako mesedegarri gerta daitezkeen ezagutza batzuk dira. Ez da inon dena automatikoki konpon dezakeen “errezetarik”, filologia arazoak bakoitzak baitira. Dena

den, kodikologia, paleografia, hizkuntza, literatura, metrika, generoen historia, historia bera eta beste hainbat jakintza ez ezik, gure aurrekoen mendeetako jardunetik ateratako esperientzia ona eta txarra ere oso mesedegarri gerta dakiguke eta komeni da esperientzia horren muina ezagutu dezagun.

- Bazterturik geratu ziren “metodo zaharkituak”:
 - a. *TEXTUS RECEPTUS*: lekukotasunik ezagunena, hedatuena onartu (*editio vulgata*).
 - b. *CODEX VETUSTISSIMUS*, *CODEX ANTIQUIOR*: lekukotasunik zaharrena onartu. Baina zaharrena originaletik urrunago egon daiteke beste berriago bat baino, hau da, bitarteko lekukotasun gehiago izan ditzake (Brambilla Ageno 1984: 50).
 - c. *CODEX OPTIMUS*: lekukotasun bat hoberentzat hartu eta horri jarraitu edizioan (orokorki *vetustissimus*). Testu hobea \neq testu “hobetua” (Brambilla Ageno 1984: 52).
 - d. *CODICES PLURIMI*: lekukotasun gehienek irakurketekin testu bat osatu.

6 Edizio kritikoa

Sakontzeko bibliografia: Bleucia (1983), Orduna (2000: 165-200).

• Edizio kritikoen prozesuan bi atal nagusi bereizten dira, eta bakoitzaren barruan zenbait urrats:

- I. *RECENSIO*: lekukotasunen arteko loturak aztertzen eta euren arteko loturak finkatzen saiatzea.
 1. *FONTES CRITICAE*: testuaren lekukotasun guztiak biltzea, deskribatzea eta azterketa historikoa egitea.
 2. *COLLATIO CODICUM*: lekukotasunak erkatzea aldaerak ateratzeko.
 3. *EXAMINATIO* eta *SELECTIO*: aldaerak aztertzea eta hautatzea.
 4. *CONSTITUTIO STEMMATIS CODICUM* (ahal denean): lekukotasunen arteko loturak zuhaitz genealogikoaren moduko eskema batean (*stemma*) islatzea.
- II. *CONSTITUTIO TEXTUS* (= testuaren zehaztapena): testu kritiko zehatza finkatzea.
 1. *EXAMINATIO* eta *SELECTIO* = *emendatio ope codicum*: testubidezko zuzenketak.
 2. *EMENDATIO OPE INGENII* edo *DIVINATIO*: aieruz egindako zuzenketak, *usus scribendi*-n eta argitaratzailearen *iudicium*-ean oinarrituz.
 3. *DISPOSITIO TEXTUS*: grafia, azentuatzea, puntuazioa, diakritikoak, etab. antolatzea.
 4. *APARATU KRITIKOA*: hautatutako irakurketak eta beste lekukotasunen aldaerak azaltzeko edo testua ulertarazteko behar diren ohar guztiak.
 5. Proben zuzenketa.

- Edizio kritiko onak eta txarrak aurkituko ditugu, baina “kritiko” adjektiboa eramateko helburu jakin bati eta metodologia zehatz bati jarraitzea, eta emaitza batzuk aurkeztea eskatu behar zaio. Gutxienez:

- a. Sarrera bat: lekukotasun guztien deskribapena, euren arteko erlazioak eta *stemma* (lortu bada), edizioaren irizpideak, erabilitako diakritikoak, laburdurak eta bibliografia.
- b. Testuaren beraren aurkezpena, berau ulertzeko elementu guztiak eskaini behar dituen.
- c. Aparatu kritikoa: aldaerak, zuzenketak, ohar linguistikoak eta bestelako oharrak.

6.1 *Recensio*

6.1.1 *Fontes criticae*

- Argitaratzaileak testu baten edizioari ekiterakoan lekukotasun guztiak zuzenean ezagutu behar ditu eta bere lanean erabili.

- a) Lekukotasun guztiak biltzea: eskuizkribuak eta argitalpenak; osoak, osatugabeak, zeharkakoak eta galdutakoak. Ahalik eta zerrenda osoena lortu: katalogoetara ere jotzea komeni da.
- b) Lekukotasun bakoitzaren deskribapen bibliografiko zabala: kanpoko ezaugarriak, edukiari buruzkoak, zein hiri eta liburutegitan dagoen. Kodikologiaren arauak ezagutzea komeni da.
- c) Lekukotasunak aurrez aurre ezagutzea hobe da. Hala ere, erreprodukzio mekaniko bat askotan aski izan daiteke (mikrofilma, digitalizazioa, fotokopia...).
- d) Lekukotasunak ez ezik, editatu nahi den testuaren aurreko edizioak (izatekotan) eta testuari buruzko ikerketak, bereziki testu-arazoei buruzkoak, ere bildu eta ezagutu behar dira (bigarren mailako iturriak).

Adibidea:

Acto 115: Latxagak (1983): “seynonec xaio bear dau xocudi atea”; Mitxelenak (1978): *xo uidi*.

6.1.2 *Collatio codicum* (‘*erkaketa*’)

- Lekukotasun guztien erkatzea, *VARIAE LECTIONES* edo aldaera desberdinak biltzeko. Urratsak:

1. Lekukotasun bat aukeratu (*codex optimus*) eta gainerako lekukotasunen irakurketak harekin konparatu. Transkribatu. *Codex optimus* hautatzeko: aurreko tradizio kritikoa aintzat hartu; edo testuko zati batzuetan erkaketa egin.
2. Lerroak edo bertsoak zenbatu eta beharrezko beste testu-zatiketak (kapitulua, ahapaldiak, etab.) atondu. Zenbakikuntza:
 - a) jatorrizkoaren lerroen arabera. Testu laburretan (*TAV*, *ConTAV*) eta edizio paleografikoetan.
 - b) erkaketa egin baino lehen, argitaratzailea [kaxa](#)ren tamainaz ohartu.
 - c) lerroen zenbakikuntzan izenburuak kontuan hartu ala ez.
3. Laburdurak aukeratu. Lekukotasunak izendatzeko, letra larriak eta etzanak erabili ohi dira. Sistema desberdinak:
 - a) bibliotekaren hasierako letra: *A* = Azkue Biblioteka, *P* = Paris, *J* = Julio Urkixo...
 - b) argitaralekuaren hasierako letra: *A* = Anberes, *B* = Bilbo, *M* = Madril...
 - c) biblioteka edo argitaraleku bereko lekukotasun bat baino gehiago egonez gero, zenbaki bat letraren ondoan: *P*, *P*¹, *P*², *P*³...
 - d) tradizioz eman zaien izena: Pouvreauren hiztegiaren *A*, *B* eta *C* eskuizkribuak, Isastiren *A*, *B* eta *C* errefrau bildumak.
 - e) Sistema konbinatuak
 - hiria + biblioteka: *LB* = Londresko British Library, *PN* = Parisko Bibliothèque Nationale...
 - izenburua + argitalpen urtea: *EL21* = Añibarroren *Esku-liburua*, 1821.
 - f) Originalerako *O* eta arketiporako *X* gordetzea komeni da.
4. Oinarritzko lekukotasuna gainerako lekukotasunekin erkatu, aldaera guztiak bilduz. Aldaera bakoitza bere testuaren laburdurarekin lagundu. Kolore desberdineko tinta ere erabil daiteke lekukotasunak bereizteko.

Lan hau **ikaragarritzko arretaz** egin behar da. Urrats honetan egindako huts batek lekukotasunen arteko erlazioak erabat desitxuratu ditzake eta edizioaren ondorengo lanak baldintzatu.

6.1.3 Aldaeren examinatio ('azterketa') eta selectio ('hautaketa'). Aldaera motak

- Kalitate ezezaguneko ALDAERA multzo bat bildu da. "Aldaera" nozioak ez du ezer esan nahi irakurketa egokiari buruz. Oinarrizko lekukotasunarekiko aldaerak dira, irakurketa desberdinak, besterik ez. Oraindik ezin dugu jakin zein diren originaleko irakurketak.

- Helburua: lekukotasunen arteko erlazioak argitzea. Metodo logiko eta seguru bakarra huts komunak kontuan hartzen dituen da.

- IRAKURKETA ORIGINALA \neq IRAKURKETA ZUZENA:

- a) Originala, ez zuzena: Gogoratu originaleko irakurketa bat okerra izan daitekeela, egileek ere hutsak egiten dituztelako.

- b) Zuzena, ez originala: Alde batetik, lekukotasunek irakurketa itxuraz zuzenak ekar ditzakete, baina originalekoak ez zirenak. Originala galdu bada, orduan gordetako lekukotasun batek ere ez du originaleko irakurketa ekarriko.

- Lekukotasunen jatorria erabakitzeke irizpide baliagarri bakarra **huts komunetan** oinarritzea da: lekukotasun bik edo gehiagok huts berdina ekartzen badute, pentsatzekoa da lekukotasun beretik datozela eta jatorrizko lekukotasun horrek huts hori bazuela (hutsa errepikatu duten guztien ereduia izan dela).

- Errepikatzen diren huts guztiak ez dira **esanguratsuak** eta ez dute, beraz, lekukotasunen jatorria frogatzeko balio. Gogoratu: HUTS POLIGENETIKOAK ditugu: haplografia, duplografia, berdinetik berdinerako jauzia, *lectio facilior*, huts paleografikoa, etab. Huts poligenetikoek ez dute, printzipioz, jatorria ezartzeko balio. Baina ugariak izanez gero, susmagarri gerta daitezke.

- Huts esanguratsuak bi motakoak izan daitezke:

- HUTS KOMUN BATERATZAILEAK (*errores coniunctivi*) eta
- HUTS BEREIZLEAK (*errores disiunctivi* edo *separativi*).

6.1.3.1 Huts bateratzaileak

HUTS KOMUNA EDO MONOGENETIKOA: lekukotasun bik edo gehiagok zeinek bere aldetik ezin egin ditzaketen hutsak. Beraz, lekukotasunak familia batean biltzeko, jatorri bera dutela frogatzeko, balio dute.

Adibideak:

Larramendi-Harriet: Lakarra (1991: 223-224).

- Harriet (1741; Lakarra 1994); Larramendi (1745), *Hiztegi hirukoitza* eta *Eranskina*; Mitxelena (1970):

— 436. “muro, *afantua*”.

H “mur, *afantua, pareta, murrua*”; “maçonner, *asantatcea*”.

<ɰ> / <s> (ordezkatzea)

— E 600: “semejante, *alayo*”. Mitxelena: *alayo* < *(h)ala joa; cf. it. *siffato*.

H “*halaio*, pareil, sembable”.

H “p. 299 *halaio*, l[isez] *halaco*”.

<c> → <e> → <i> → <y> (ordezkatzea)

6.1.3.2 Huts bereizleak

- Kopiagile batek ezin nabaritu dezakeen hutsa da eta, beraz, ezin zuzendu dezakeena, ez aieruz eta ez beste lekukotasunen laguntzaz ere.

Huts bereizleak familia baten barruan azpimultzoak (AZPIARKETIPOAK) bereizteko balio dute:

a) A	b) B	c) α
		/ \
B	A	A B

- Ezin dira segurtasun guztiarekin identifikatu. Argudio historikoetan oinarritu ohi dira.
- Huts bereizleen identifikazioa metodoaren akats garrantzitsuenetarikoa da. Honexegatik sortzen dira obra batzuen jatorriari buruzko zalantzak eta eztabaidak. Beraz, familia baten adarrak bereizteko **ahalik eta proba gehien eta askotarikoenak** aurkeztea komeni da. Zenbat eta gehiago eta zenbat eta mota gehiagotakoak izan, hipotesia sendoagoa izango da

6.1.4 Constitutio stemmatis

6.1.4.1 Original eta arketipo kontzeptuak

- *Original* terminoa erabili da aldi berean kontzeptu erreal bat eta kontzeptu ideal bat izendatzeko:

1. ORIGINAL ERREALA: lekukotasun guztien jatorria. kodize originala edo argitalpen originala. Originaletan ere hutsak. Autografoa bada, egilearen hutsak; kopia apografoa edo argitalpena bada, kopiagileen hutsak. Laburdura: *O* gorde bada, [*O*] galdu bada.


2. ORIGINAL IDEALA: egilearen borondatea islatzen duen testua, eskuizkribu edo argitalpen jakin batekin identifikatzen ez dena. Testu ideal bat da; baina hitzez osatua denez, badu nolabaiteko errealtasuna. Laburdura: Ω .

• ARKETIPOA:


1. Kodize konkretu bat, ondorengo tradizio guztiaren iturri dena (= *originala*). Laburdura: O .
2. Erdi Aroko kodize transliteratu bat, obra klasiko batetik gorde den tradizio guztiaren iturri dena (\neq *originala*). Laburdura: X .
3. Tradizioaren iturria: kodize konkretu bat, gorde dena edo galdu dena, originala edo kopia, bere ondorengoei huts komun bateratzaileak igorri dizkiena;
 - teorian X izendatzen da
 - praktikan, gorde den lekukotasuna bada, dagokion letra erabiltzen da: O , A , B , $C\dots$; galdutakoa bada, X .
4. Funtzio erlazionatzaile bat, huts komunek zehazten dutena (abstraktua).

• Azken buruan, lekukotasun guztiak original konkretu batetik datoz (O edo $[O]$). Originala gorde bada, lekukotasunetarikoa bat izango da. Honek ez du, dena dela, metodoa aldatu behar, huts komun metodoa —teorian behintzat— ukazina delako, froga formal bakarra.

• Huts komuna aurkezten duten lekukotasun bi edo gehiago badaude, lekukotasun horiek huts komun hori sortu zuen iturri beretik datoz. Honegatik, *recensioaren* teorian baliokideak dira hurrengo *stemmata* hauek:




Hirurek aurkezten dituzte erlazio berberak:



X eta α mendekotasun erlazioen maila abstraktuan *arketipo* eta *azpiarketipo* deitu ohi dira. Horrela, bada, goiko lehen *stemma* hartzen badugu, A -k arketipoarena egingo du eta B -k azpiarketipoarena.

Bai O -k baita A -k ere arketipoena egiten dute maila abstraktuan, haietatik hasten baitira lehenbiziko adarrak. Hala ere, arketipoa ez bada gorde eta galdutako originalarekin ($[O]$) identifikatzeko nahiko frogarik ez badugu, X laburdura erabili ohi da, eta azpiarketipoak galdu direnean letra grekoak: α , β , γ , etab.

• Hurrengo *stemma* hauek baditugu, lehenbizikoa errealitatean gerta daiteke, baina maila abstraktu batean bigarrena bezalakoxea da:




Kasu bietan O eta X -k, batetik, eta A eta α -k, bestetik, funtzio berbera betetzen dute (arketipoarena eta azpiarketipoarena, hurrenez hurren). Orain, lehenbiziko kasuan gerta daiteke originalak bere ondorengoei huts komunik ez igortzea. Kasu honetan O -ren funtzioa ez da huts komunaren metodotik erabaki, originala dela dakigulako baizik (bestelako arrazoiengatik: filologikoak, historikoak...).

6.1.4.2 *Stemma codicum*

• Aldaera guztiak aztertu eta hautatu ondoren, argitaratzaileak arketipo eta azpiarketipo batzuk badaudela ziurtasun osoz froga badezake, *stemma* bat egingo du. Bakarrik ziurtasun osoa dagoenean, eta ez edizioari itxura zientifikoagoa emateko. Edizio kritiko baten maila ez da *stemman* neurtzen, aparatu kritikoan baizik.

- *CODICES DESCRIPTI* ere *stemman* sartuko dira:



6.2 *Constitutio textus*

- *Recensioan* lortutako ondorioen arabera:

- RECENSIO CUM STEMMATE*: *stemma* mekanikoki aplikatuz, arketipoa mekanikoki berreraiki daitekeenean.
 - STEMMATA PURA*.
 - STEMMATA IMPURA*: kutsadurak, egilearen aldaerak edo birmoldaketak dituena.
- RECENSIO SINE STEMMATE*: *stemma* bat ezin ezar daitekeenean.


6.2.1 *Examinatio* ('azterketa') eta *selectio* ('hautaketa')

6.2.1.1 *Stemmaren aplikazio mekanikoa*

- *Stemmaren* helburua arketipoa (X edo χ) edo originala ($[O]$ edo Ω) ahal den modurik objektiboenean berreraikitzea da.


Constitutio textus urrats honetan arketipoa kodize KONKRETU batekin identifika daiteke (X) edo testu IDEAL batekin (χ , hutsik ez duena). Azken kasu honetan arketipoa da testu posibleen artean original idealetik (Ω) hurbilen egon daitekeena (kasurik hoberenean, berarekin identifika daiteke, nahiz eta ziurtasun guztia ez izan):

(1)



• *Recensioan* funtsezko kontzeptua hutsa zen. *Constitutio textusen* arketipoa berreraikitzeke oinarritzeko nozioa IRAKURKETA KOMUNA da. *Recensioaren* ondoren, (2)-ko *stemmara* heltzen bagara, azpiarketipo bakoitza, eta gero arketipoa, berreraikitzeke adarren irakurketa komunak hartu beharko ditugu kontuan:


(2)



1. α azpiarketipoa: bi adarrek gutxienez berdin irakurtzen badute (AB, BC, AC, ABC); edo bestela, hirurak desberdinak direnean, hiruretarik batek beste adarren batek bezala irakurtzen badu ($AD, A\beta, AH, AG$, etab.).
2. Arketipoa: bi adarrek gutxienez berdin irakurtzen badute, beste bi adarretarik bakoitzak desberdin irakurtzen duelarik ($\alpha + \beta = X, \alpha + D = X, D + \beta = X, D + H = X, \beta + H = X$).
3. β azpiarketipoa: E eta γ -k irakurketa desberdinak badituzte eta beste adarretan aurkitzen ez badira, β ezin da berreraiki ziurtasun osoz; irakurketa bakoitza β -rena izateko aukera bitik bat delako %50ekoa.
4. α, D, β eta H -k zeinek bere modura irakurtzen badute, ezin izango dugu arketipoa berreraiki, irakurketa bakoitza X -rena izateko aukera lautik bat delako, %25ekoa.
5. I lekukotasunak ez digu ezertarako balio arketipoa berreraikitzerakoan eta bazter daiteke (*eliminatio codicum descriptorum*).

• *ELIMINATIO CODICUM DESCRIPTORUM*: lekukotasun baten kopia zuzena edo zeharkakoa diren lekukotasunak baztertu ahal dira. *Codices descripti* hauek ez dute balio obraren originala berreraikitzeke (originalari buruz eman dezaketen informazio guztia jatorrizko ereduak badakarrelako), baina batzuetan hauek dakartzaten irakurketak baliagarriak dira testuaren historia hobeto ezagutzeko.

• *Constitutio textus* urratsean arketipoa ezin da inoiz gordetako lekukotasun bat izan. Beraz, *recensioan* (3)-ko *stemmetariko* bat ezarri badugu, orduan, *constitutio textusen stemmata* horiek desagertuko dira, kodize deskribatzaileen ezabaketaren ondoren, lekukotasun bakarra (*codex unicus*) geratuz, *O* edo *A* alegia:



• Orain bi aukera ditugu: lekukotasun horiek (*O*, *A*) dauden bezala argitaratu edo dituzten hutsak zuzentzen saiatu (Ω , χ).

• Baina original ideala berreraikitzen dugula esaten dugunean original idealetik ahalik eta hurbilena den testua berreraikitzen dugula esan nahi dugu.

• Praktikan, *stemmaren* aplikazioa ez da inoiz *sine iudicio* (hots, mekanikoki) egin behar. Izan ere, (2)-ko *stemma* berriro hartzen badugu, kontuan hartu behar da adar batzuek HUTS POLIGENETIKOAK aurkez ditzaketela:

- berdinetik berdinerako jauziak
- haplografiak,
- duplografiak,
- huts paleografikoak,
- itxura grafiko txikiko hitzen kenketa
- eta, batez ere, *lectiones faciliores*.

Adibidez: α , *D* eta β -k huts poligenetikoak egin ditzakete, *H*-k egin ez dituenak. *Stemma* mekanikoki aplikatuko bagenu, benetako irakurketak ez direnak onartzeko arriskua izango genuke.

• IRAKURKETA EKIPOLENTEAK edo ADIAFORAK: Zuzena izateko itxura dutenak. Lekukotasun batzuk baditugu eta bakoitzak desberdin irakurtzen badu, argi dago haietako bakarra dela benetakoa, eta gainerakoak ez —edo bat ere ez benetakoa—.

Adibidez: bi lekukotasun badira eta irakurketa ekipolenteak badituzte, ezin dugu mekanikoki bataren edo bestearen alde erabaki. Izan ere, bakoitzak %50ean izan daiteke benetako irakurketa. Baina *A* argitaratzen badugu eta benetakoa *B* bada, orduan gure okerra %100ekoa da.

Aurkitzen ditugunean **probabilitate filologikorik handiena** duena aukeratuko dugu (ez probabilitate matematikorik handiena); gainerako irakurketak aparatu kritikoan azalduko ditugu.

- Laburbilduz: urrats honetan **testubidezko zuzenketa** egiten da (*emendatio ope codicum*), baina ez testuan oinarrituta —humanistek egiten zuten bezala— *stemman* baizik. Beraz, irakurketen azterketa eta hautaketa egiten dugu.

Stemmak gehienetan gure hautaketa berresteko balio behar du. Hautaketa egiteko, filologoak bere adimena (*iudicium*) erabili behar du, batez ere egilearen eta garaiko *usus scribendi*. Arretaz ibili behar da huts poligenetikoak ez sartzeko.

6.2.2 Stemmarik gabeko constitutio textus

- *Recensioaren* ondoren askotan gerta daiteke lekukotasunen arteko huts komunik ez aurkitzea (→ *stemmarik* ez).

Kasu hauetan testu-kritikan **bi joera** daude:

- a. Lekukotasun baten testua ahal den fidelkien gordetzea (*CODEX OPTIMUS*).
- b. Lekukotasun guztien arteko testu kritiko bat eratzea, *emendatio ope ingenii* edo aierubidezko zuzenketaz baliaturik (*CODICES PLURIMI*).

- **Teorian**, joera kontserbadoreak ezin du probabilitateen kalkulu baten arabera irabazi. Izan ere, gehiengoaren irakurketak beti izango du irakurketa zuzena izateko aukera handiagoa.

- **Praktikan**, hala ere, lekukotasun bat (*codex optimus*) argitaratzea da metodorik ziurrena. *Codex optimus* batek baditu hutsak, baina ez dio horregatik *optimus* izateari utziko. Testu bakoitzak bere tradizioa du: lekukotasunen historiak datu baliagarriak eskainiko dizkigu bakoitzari duen balioa emateko.

6.2.2.1 Kopiagileen birmoldaketak eta berrikuntzak

- **BIRMOLDAKETA**: kopiagile batek edo batzuek zenbait pasarte aldatzen dituztenean, funtsezko ezaugarri estilistiko batzuk gehituz edo ezabatuz edo sintaxia aldatuz. Beraz, birmoldaketa nahita egindako ereduaren **aldaketa sakona** da, kopiagileak bere gustuei edo irakurleenei egokitzeko.

1. Gorde den lekukotasun bakarra birmoldaketa bat denean ia ez dago modurik originala berreraikitzeke. Batzuetan kopiagilearen eskua hain da nabarmena, non obra berri bat

konsidera baitaiteke. Kasu hauetan original berri bat balitz bezala har daiteke eta ΩB berreraikitzen saiatuko gara.

2. Bestetan jatorrizko testua gorde da eta baita birmoldaketa bat edo gehiago ere. Kasu hauetan, hainbat ΩB izango dugu nola birmoldaketa: $\Omega B_1, \Omega B_2, \dots, \Omega B_n$.

3. Birmoldaketa pasarte batzuetan bakarrik egin bada, aldaeren aparatuan islatuko dira, oharretan. Aldiz, obra guztia ukitzen badu, hobe da testu berezi gisa argitaratu.

- Tradizio arrunt baten eta birmoldaketa baten arteko diferentzia erabat **kuantitatiboa** da. Azken batean, kopiagile batek hitz bat aldatzen duen bakoitzean kasu konkretu horretan birmoldaketa bat egiten ari da, txikia bada ere eta aldaketa ustekabea gerta badaiteke ere.

- Tradizio birmoldatzailearen adibide garbiena **ahozko tradizioa** da. Hemen testu bakoitza birmoldaketa bat dela esan daiteke. Ez da testu finkorik.

- **BERRIKUNTZAK**: *usus scribendiren* azterketa bati esker nabari daitezke.

6.2.2.2 Egilearen aldaerak

- Bertsioen ordena: Oro har luzeena, irakurketa zehatzenak, estilistikoki zuzenenak eta ereditik urrutien daudenak aurkezten dituen da ondorengoa. Kasu bakoitzean eta garai bakoitzean aztertu behar da, aldaketen arrazoiak mota askotakoak izan daitezkeelako.

- Egilearen aldaerak dituen testu baten edizioak kopiagilearen birmoldaketak dituen testu baten antzeko arazoak ditu. Kasu bakoitzak soluzio bereziak eskatzen ditu:

- a. Honelako testu baten edizioak **exhaustiboa** izan behar du, hau da, argitaratutako testuaren eta aparatu kritikoaren artean irakurleak idatzaldi guztien bertsioak izan behar ditu eskura. Komeni da egilearen aldaerak jasotzeko aparatu kritiko berezi bat prestatzea (APARATU DIAKRONIKOA). Bertan aldaerak kronologikoki antolatu behar dira.

- b. Aldaketak oso sakonak badira, bertsio bakoitza berezirik argitara daiteke.

- c. Komeni da azkeneko idatzaldia oinarritzat hartu eta aurreko aldaerak aparatu kritikoan (diakronikoan) sartu.

- d. Beste kasu batzuetan, aldiz, komenigarria izan daiteke oinarritzat testurik zabalduena hartzea —nahiz eta azkeneko bertsioa izan ez—.

- e. Ez da egilearen bertsio guztien arteko testu bakar bat sortu behar, inoiz inoren buruan existitu ez den testu hibrido bat aterako litzatekeelako.

f. Aldaerak egilearen borondatearen kontra egin badira (adib. zentsura), hobe da aurreko idatzaldi bat aukeratzea. Gerta daiteke, baina, autozentsura izatea, kanpoko eraginik gabekoa.

- EGILEAREN HUTSAK, mekanikoak badira (kopia autografoetan adibidez), besterik gabe zuzendu daitezke, baina aparatu kritikoan haien berri eman beharko da. Huts kulturalak badira, aldiz, komeni da testuan gordetzea (eta aparatu kritikoan adieraztea).

6.2.3 Emendatio ('zuzenketa')

- *Emendatio*: zentzu hertsian, testuen laguntzarik gabe egindako zuzenketa da, hau da, *EMENDATIO OPE INGENII* edo **aierubidezko zuzenketa**.

- Kontuan hartu behar diren irizpideak:

- a. *LECTIO DIFFICILIOR*.

- b. *USUS SCRIBENDI*: egilearen eta garaiko estiloa.

- c. *CONFORMATIO TEXTUS*: testuingurua.

- d. *RES METRICA* (bertsoak edo prosa erritmoduna denean).

Denak bil daitezke *usus scribendiren* barruan. Beraz, aieru posible bat baino gehiago baldin badago, haien artean *usus scribendirekin* konformeago dagoena hautatuko dugu.

- Aierubidezko zuzenketak **arrazoitu eta justifikatu** behar dira *usus scribendiren* arabera. Proposatzen den zuzenketak hutsa nola eta zergatik gertatu zen erakutsi behar du. Halaber, komeni da aierua lehenbiziko aldiz nork proposatu zuen edo pasarte huts bat zela ikusi zuen lehena nor izan zen ere aparatu kritikoan adieraztea (Maas 1958: 23).

- Laburbilduz: aieruz egindako zuzenketa hobe izango da baldintza hauek betetzen baditu (Brambilla Ageno 1984: 120):

1. Pasartearen esanahiarekin eta idazlearen estiloarekin bat badator (*usus scribendi*).

2. Hutsa nola eta zergatik gertatu zen esplikatzeke gauza bada.

- Aieruzko zuzenketa hutsa, testuen batere laguntzarik gabekoa, oso arriskutsua da eta ahalik eta gutxienetan egitea komeni da.

- Dena dela, aieruak komenigarriak dira *locus criticus* ilun bat dugun bakoitzean. Horrela, hari buruzko interesa eta eztabaida filologikoa sortarazi ditzakete, testua hobeto ezagutzeko aurrerapausoa izanik. Batzuetan hutsa dagoela konturatu, baina zuzenketa egokirik aurkitu ez: *crux desperationis*, †. Okerragoa da pasarte txar bat seinalatu gabe gelditzea, pasarte zuzen bat beharrik gabe zuzentzea baino (Maas 1958: 17).

Argudioak erabatekoak ez badira, hobe da aierua aparatu kritikoan utzi. Oharrean huts bat dagoela erakusteko eta, era berean, gure aierua justifikatzeko, argudio eta froga guztiak aurkeztu behar dira, baita **kontrako argudioak** ere. Kontuan hartu behar da aierurik sendoenek ere hondoa jo dezaketela lekukotasun berriek kontrakoa erakusten badute (edizio kritikoa = lan-hipotesia).

Aierua proposatu baino lehen, ziur egon behar dugu *locus criticus* hori benetan eta berez iluna dela, hau da huts bategatik iluna, eta ez gure ezjakintasun filologikoagatik.

Adibideak:

Acto: 115 *xocudi* (=xo vidi), 146 *beatu* (=ucatu); 78 *eztok eg[u]ingo badoa* (=egungo leloa), 133 *aicazaraz* (=arrantzaz?).

Lazarraga:

- *çufridu*: Cf. *DAut*: “ZUFRRIR. v.a. Lo mismo que *sufrir*, que es como se dice”. Eskuizkribuan hiru aldiz *çufri*- (AL: 1154r, AL 1154v eta A23: 11) eta hamabi aldiz *sufri*-.
- *Salamonec* (A6: 53): Gaztelaniaz *Salamón* aldaera; [CORDE](#) datu-basean 380 aldiz dokumentatzen da, azkenekoz 1622an.
- *Lau urtebete, euren gabaquin* (AL: 1144r): Cf. “diciendo que si hubiese de contar sus excelencias no acabaría en cincuenta años **con sus noches**” (Fray Prudencio de Sandoval, 1604-1618, *Historia de la vida y hechos del Emperador Carlos V. apud CORDE*).

7 Testuak antolatzea eta oharrak idaztea

• Helburua: testua irakurleei aurkeztu, funtsezko ezaugarriak mantenduz eta ortografia edo puntuazio txar batek eragin ditzakeen anbiguotasunak desaginez. Puntuazioaren banaketak irakurleari testuaren interpretazio bat eskaintzen dio (Brambilla Ageo 1984: 42, 311).

- Bi arazo nagusi konpondu beharko ditu argitaratzaileak:
 - **Arazo ortografikoak:** Grafia, hitz banaketa, azentuatzea, puntuazio arazoak...
 - **Testuaren itxuraketa eta ikur diakritiko bereziak.**

7.1 Grafia, hitz banaketa, azentuak eta puntuazioa

• Edizio paleografiko edo erdipaleografiko batek testua dagoen-dagoenean islatu nahi du. Edizio kritiko bati funtsezko ezaugarriak interesatzen zaizkio. Zer den baztergarri testu bakoitzaren aurrean ikusi eta erabaki behar da, testuaren ezaugarriak kontuan hartuz.

7.1.1 Grafia

- Edizio kritiko batean grafia **gaurkotu** ohi da, edo **erregularizatu** behintzat, testuaren garrantzia linguistikoagatik mantentzea komeni ez bada. Letra larri eta xeheen erabilera ere gaurkotzen da.

- Hona gaiaz Mitxelenaren pasarte hau (1981: 454):

Aspaldidaniko arazo eta eztabaida-gai da gure artean antzinako autoreak nola argitara genituzkeen erabakitzea. Grafia kontuaz ari naiz, batez ere, hor izaten baitira istiluak. Nori berea ematea litzateke, noski, onena, baina zirt-edo-zarteko jendea omen garenez ez ditugu erdi bidea ez bitarteko zubiak begi onez ikusten. Zaharra berri bihurtzea ez da, ordea, lan erraza izaten beti. Zenbaitetan, ederki xamar molda gaitezke, behar litezkeen letra-aldaketak [...] eragozpenik (eragozpen larririk, behinik-behin) ez dakarrelako. Leizarraga, esate baterako, erraza genuke aldaketa horretarako, baita, nekezago gertatzen badira ere, Axular eta XVII-XVIII. mendeetako lapurtarrak. Bestalde, zail amorratuak dira Tartas eta baita Oihenart bera ere. Alde honetako mende horietako autoreek ere badute orapiloa, *z* eta *tz*, *s* eta *ts*, eta gehienbat bereizten ez dituztelako. Eta gu hasten bagara bereizten, beldur izatekoa da ez ote dugun guk ebakitzen duguna ipiniko haiek, beren ebakeraren arabera, adierazi nahi zutenaren orde.

- Euskal testu zaharretan egin daitezkeen grafia eguneratze nagusiak:

Ip. *ou* → *u*

Ip. *x* → *ts*

Ip. *u* → *ü*

Ip. *ch* → *x*

c → *k* / _ a, o, u, K, #

Heg. *ch* → *tx*

qu → *k(u)*

Ip. *tch* → *tx*

gue, gui → *ge, gi*

ñ, nh, nn... → *ñ / in* ??

ce, ci → *ze, zi*

ll, lh... → *ll / il* ??

ç → *z*

~ → *n*

tc, tç → *tz*

mb, mp → *nb, np*

sh, ss, sc... → *x*

i, y → *j* edo *y / #_*

ss, f → *s*

y → *i / B_B*

- Salbuespen guztiak oharretan. Testuen ezaugarriak beti mantendu behar dira:

(1) Grafia kultistak: Leiz., Tartas... *-ti-* (*gratia...*), Tartas *-mn-* (*damnatu*)

(2) HH-ak ere gorde

(3) Grafia etimologikoak ere gorde behar dira: *Hitztorio, hitzkuntza*

(4) *Ezkutitz* < *ezkut(u)-(h)itz* (Larramendiren etimologia)

(5) *Ardi* (< *a(h)ari*) / *arđi* ('zomoro txikiak', < *(h)ar*) (S. Arana)

(6) Aldera dialektalak: *biraldu, ezautu, gaubeko, bietzetara, beya, egune, etab.*

→ **Arau nagusia:** testuari legokiokeen ahoskera ezin da inola ere grafia gaurkotzearekin aldatu, ezabatu edo ilundu.

7.1.2 Hitz banaketa

- Gaurkotu ohi da inolako oharririk gabe. Dudazko kasuak:

→ Aldaketa morfonologikoak: *egonaiiz, enaiiz... etzara, egintzuen, esaementzion...*

- Deklinabide marken aurreko gidoiak eta apostrofoak ezabatu ohi dira hitz arruntetan (ez izen arrotzak badira, gaurko modura): *Gasteiz'eko, Mikel-en, etab.*

Adibidea:

Jauregiberri (1867):

9

Sendi-zakerran duhala,
Kристо izan bedi hila,
Gu-ganat haren odola
Yautz-dadila. Lauda yauna
(Eskuizkr. BDG m/s B-279-XXIII)

9

Sendi zak, erran du hala:
“Kристо izan bedi hila”.
Guganat haren odola
jauts dadila. (*Lauda Jauna &*)
(Mercero 1997: 28)

7.1.3 Puntuazioa

- Gaurkotu ohi da inolako oharririk gabe. Dudazko kasuak aparatu kritikoan azaldu daitezke.

7.2 Testuaren itxuraketa eta ikur kritiko bereziak

- Testuetan eskuarki atalak, kapituluak, pasarteak, aktoak, eszenak, kantuak, ahapaldiak, bertsoak, etab.

- Bai prosan bai bertsoetan **lerroak bosnaka zenbatu** ohi dira; olerki luzeetan, beste aukera bat da ahapaldiak zenbatu eta bakoitzaren lerroei letrak ezartzea (1a, 1b, 1c, 1d; 2a, 2b...).

- **Ikur diakritiko bereziak:**

- a. *Gehiketak:* aieruzko gehiketetan argitaratzaile klasikoek < >. Erromanistek kasu hauetan [].
- b. Hutsune bat ezin bada aieruz bete: <...> edo [...], erabiltzen den sistemaren arabera. Hutsunean zenbat letra edo silaba zegoen ezagutzen bada, bakoitzaren lekuan puntu bat ezar daiteke: <.> edo [.]

- c. Bertso-lerro bat edo gehiago galtzea puntu-lerro baten edo batzuen bidez adierazten da.
- d. Aieruz zuzendu ezin izan diren lekuetan, †† (*cruces desperationis*) edo ** ezartzen dira.

7.3 Aparatu kritikoa

- Aparatu kritikoa aldaeren zerrenda eta argitaratzaileak beharrezko deritzen ohar guztiak sartu behar dira, bai aldaera baten hautapena arrazoitzekoak, bai aieru baten aldekoak, bai ohar kulturalak, eta abar.

Aparatuaren eginkizuna testuarekiko erlazio bat mantentzea da eta, beraz, ahal den modurik erabilgarri eta erosoenean antolatu eta aurkeztu behar da:

Aunque se supone que un lector capaz de acudir a los aparatos de variantes ha alcanzado un grado alto de paciencia, cortesía es del editor impedir que alcance el grado sublime. (Blecua 1983: 147)

- Aldaeren aparatua bi modutan antolatu daiteke: APARATU POSITIBOA eta APARATU NEGATIBOA.

- a. **Aparatu positiboan** testuan hautatutako irakurketa aurkezten da, zein lekukotasunetan agertzen den adieraziz, eta aldamenen gainerako aldaerak, hauetan ere zein lekukotasunek dakarten zehaztuz:

Adibidea: Ibiñagabeitia (1992):

15,15 itzaltsuz *B* : itzaltzuz *GM*

36,12 eroarekin *B* : eroarekin naasita *G*

- b. **Aparatu negatiboan** testuaren irakurketa lekukotasuna(k) aipatu gabe aurkezten da, edo aldaerak bakarrik aurkezten dira:

36,12 eroarekin : eroarekin naasita *G*

36,12 eroarekin] eroarekin naasita *G*

36,12 eroarekin naasita *G*

- Aldaerak aurkezteko sistemak era askotakoak dira; hurrengo arauak jarraitzea komeni da:
 1. Lekukotasunen laburdurak aldaeraren ondoren ezarri, letra etzanaz ahal bada, bien bitartean ezer idatzi gabe; puntuazio ikur bakarrak aldaerenak izango dira.
 2. Aparatu negatiboan bereziki aldaera aurkeztu beharko da anbiguotasunari atea zabalik utzi gabe:

Testua: “Iur guztiak eta zero guztiak”

34 zero denak *ABE* [ongi]

34 denak *ABE* [gaizki]

3. Nolabait markatu behar da lerro bereko aldaera ezberdinen arteko banaketa:

34 zero guztiak *CD* : zero denak *ABE* mendian *CD* : mendietan *ABE*

34 zero guztiak *CD* : zero denak *ABE* || mendian *CD* : mendietan *ABE*

34 zero guztiak *CD* : zero denak *ABE* ; mendian *CD* : mendietan *ABE*

4. Argitaratzailearen hitzak aldaerena ez den beste letra molde batekin, letra etzanaz, adibidez, aurkeztu behar dira. Ahal bada, laburdura arruntak erabili behar dira (ik. zerrenda Blecuaren liburuan):

67,21 ere *em.* : re *codd.*

76,3 antzu zeuden... egoitzak (arbolak γ : *om. B*)

5. Ez erabili aparatuan testuan erabilitako parentesiak, kortxeteak edo bestelako ikurrak.

- Aparatu egoki batek atal desberdinak izan ditzake:

a.1. adiaforak, egilearen aldaerak eta aieruak;

a.2. lekukotasunetako edo familietako hutsak eta berrikuntzak;

a.3. kopiagileen ustekabeko hutsak (aldaera grafikoak eta puntuazio aldaerak);

b.1. aldaeren hautaketaren eta zuzenketen aldeko arrazoiak;

b.2. ohar linguistiko eta kulturalak.

Batzuetan edizioan leku ezberdinetan koka daiteke ohar mota bakoitza.

- Aparatuan aldaera guztiak, are *codices descripti*ena ere, sartu behar dira. Nahiz eta azken hauek testuaren berreraiketarako erabilgarriak ez izan, baliagarriak izan daitezke testuaren historia eta eragina hobeki ulertzeko.

7.4 Proben zuzenketa

- Teorian zuzentzaile profesional batek egin badezake ere, hobe da argitaratzaileak berak egitea, oso zaila delako originalean hutsik batere ez egotea, eta honelako testu konplexu batean, profesional bati ere oso erraz eskapatu ahal zaio huts bat baino gehiago.

Argitaratzaile batek huts egin dezake *collatio*an eta *selectio*an, baita *emendatio*an ere. Baina onartezina dena errakuntzaz betetako argitalpen bat ateratzea da. Testuko erratek edo aparatu kritiko erabiltezin batek balio gabe uzten du aurreko lan guztia.

8 Laburdurak

ACPV: Azkue, Resurrección M^a, 1919, *Cancionero popular vasco*, Bartzelona, 3 lib. Berrargit. faksim. LGEV, Bilbo, 1968; Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

ARonc: Azkue, R. M^a, 1931. "Particularidades del dialecto roncalés", *Euskera* 2-4, 207-407. (Separata: Bilbo, 1932).

Acto: Barrutia, Pedro Ignacio, ca. 1711-53, *Acto para la Nochebuena*. J. C. Guerraren kopia eskuizkribatua. R. M^a Azkueren argit. "Gabon gaberako ikuskizuna edo Acto para la

- Noche Buena”, *Euskalzale* 1 (1897), 402-405, 412-415. G. Arestiren argit. “Primera aportación para el conocimiento de la vida y obra de Pedro Ignazio de Barrutia y Basagoitia (1682-1759)”, *Euskera* 5 (1960), 273-291. J. A. Lakarraren argit. *Gabonetako Ikuskizuna*, Gasteiz, 1983. Eskuizkribu originalaren berrargit. faksim. eta edizio paleografikoa, Latxagak prestatua, 1983.
- AeDot:** Camino, Iñaki & Ricardo Gómez, 1992. “Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)”, *ASJU* 26:2, 453-581.
- AgG:** Agirre, Txomin, 1912, *Garoa*, F. Elosu, Durango. 2. argit. “hobetua”, M. Lekuonaren argit., I. Lopez Mendizabal, Tolosa, 1935; 3. argit. “hobetua”, Frantziskotar Argitaldaria, Arantzazu, 1956 (1935eko edizioari jarraikiz); L. Villasateren argit. eta hitz., Frantziskotar Argitaldaria, Arantzazu, 1966 (lehen edizioari jarraikiz); B. Zupiriaren argit. eta sarrera, Labayru, Bilbo, 1987; I. Etxebarriaren argit. eta sarrera, Euskal Editoreen Elkarte-Labayru, Bilbo, 1990.
- AñGGero:** Añibarro, Pedro Antonio, [XIX. m. hasiera], *Gueroco gero*, eskuizkribua Hondarribiako Kaputxinoetan dago. 42. kapitularartekoa *RIE* Ven argitaratu zen (1923-25).
- ArtiOG:** Aresti, Grabiell, 1976, *Obra guztiak. Obras completas*, Elkar-Mensajero-Haranburu Altuna, Donostia. I. Sarasolaren hitz. eta argit. eta J. Juaristiren gazt. itz.
- BBizk:** Lakarra, Joseba Andoni, 1984. “*Bertso Bizkaitarrak* (1688)”, *ASJU* 18:2, 89-183.
- BerTrat:** Beriain, Juan de, 1621, *Tratado de como se ha de oyr misa*, C. de Labayen, Iruñea. Berrargit. fasim. Hordago, Donostia, 1980.
- ConTAV:** Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola, 1989, *Textos arcaicos vascos - Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, (ASJUren gehigarriak, 11), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- E:** Etxepare, Beñat, 1545, *Linguae Vasconum primitiae*, Bordele. P. Altunaren ed. kritikoa, Mensajero-Euskaltzaindia, Bilbo, 1980.
- EDot:** Camino, I. & R. Gómez, 1992. “Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)”, *ASJU* 26:2, 453-581.
- ES:** Urquijo, Julio de, 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*, Paris. Berrargit. faksim. *RIE* V 28 eta *LGEV*, Bilbo, 1976.
- Etch:** Haritschelhar, Jean, 1969-70, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, (= *Euskera* 14-15), Euskaltzaindia, Bilbo.
- EZMan:** Etxeberri, Joannes [Ziburukoa], 1627, *Manual devotioñezcoa*, Bordele. Bigarren argit. 1669. Berrargit. faksim., Hordago, Donostia, 1978. P. Altunaren ed. kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo, 1981.
- JEBur:** Etchepare, Jean, 1910, *Buruxkak*, Lekorne-Aldude. P. Lafitte-ren argit., 1941; P. Charritonen argit. Elkar, Donostia, 1980; I. Arrigainen argit. Euskal Editoreen Elkarte-Labayru, Bilbo, 1992.

- Lcc: Landuchio, Nicolás de, 1958 [1562], *Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562)*, (ASJUren gehigarriak, 3), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. M. Agud eta K. Mitxelena argit.
- Mat: Materre, Esteban, 1617. *Doctrina Christiana*. Bordele: Petri de la Court. 2. argit. Bordele, 1623.
- MbBurgDot: Lakarra, J. A., 1986. “Burgosko 1747ko dotrina: I. Testua eta oharrak”, *ASJU* 20:2, 533-594.
- MdePr: Mirande, Jon, 1976, *Jon Miranderen idazlan hautatuak*, Bilbo: Gero. Tx. Peillenen argit.
- MgPAb: Mogel, Juan Antonio, 1881 [ca. 1802], *El doctor Peru Abarca*, J. de Elizalde, Durango. Berrargit. faksim. Gerediaga Elkarte, Durango, 1981.
- OEH: Mitxelena, K., 1987-2005, *Diccionario general vasco. Orotariko euskal hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo. <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>.
- OrAitork: Ormaetxea, Nicolás, 1956, *Agustin Gurenaren aitorkizunak*, Zarautz.
- RG: Zubiaur, J. Ramón & Jesús Arzamendi, 1976. “El léxico vasco de los refranes de Garibay”, *ASJU* 10, 47-144.
- RGAizk: Aizkibel, José Francisco, 1854. “Refranes vascongados, recogidos y ordenados por Esteban de Garibay y Çamalloa, y observaciones hechas a estos refranes...”, *Memorial Histórico Español* 7, 647-660.
- RS, 1569. *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Iruñea: P. Porrallis de Amberes. Berrargit. faksim. W. J. van Eys-en argit., Gèneve-Bâle, 1896. Joseba A. Lakarraren ed. kritikoa eta azterketa, Bilbo: Euskaltzaindia, 1996.
- TAV: Mitxelena, K. & I. Sarasola, 1989, *Textos arcaicos vascos - Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, (ASJUren gehigarriak, 11), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- ZarDot: Camino, I. & R. Gómez, 1992. “Bonaparteren argitaratzeko irizpidez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)”, *ASJU* 26:2, 453-581.

9 Bibliografia

- Avalle, D'Arco Silvio, 1978 [1972], *Principi di critica testuale*, Padova: Antenore. Seconda edizione riveduta e corretta.
- Bédier, Joseph, 1928, “La tradition manuscrite du *Lai de l'Ombre*. Réflexions sur l'art d'éditer les anciens textes”, *Romania* 54, 161-196, 321-356.
- Bijuesca, K. Josu, 2010, “Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra: *Naissance de l'écrivain*”, *Euskera* 55:2, 877-914.
- Blecua, Alberto, 1983, *Manual de crítica textual*, Madrid: Castalia.

- Brambilla Ageno, Franca, 1984², *L'edizione critica dei testi volgari*, Padova: Antenore.
- Bustintza, Ebaristo ("Kirikiño"), 1918, *Abarrak*, Abando [Bilbao]: Grijelmo'ren Alargun-semien irarkolean. <<http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/10118>>.
- Camino, Iñaki & Joseba A. Lakarra, 1993, "Berriain osatuz", *ASJU* 27:3, 1029-1048.
- Contini, Gianfranco, 1939, "Ricordo a Joseph Bédier", *Literatura* III, 145-152.
- Fiesoli, Giovanni, 2000, *La genesi del lachmannismo*, Firenze: SISMELE.
- Harriet, Maurice, 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*, Baiona: Fauvet Alarguna eta J. Fauvet.
- Ibiñagabeitia, Andima, 1992, *Bergiliren Unai eta Alor-kantak* (Klasikoak 55), I. Ruiz Arzalluzen edizioa. Bilbo: Mensajero.
- Lacombe, Georges, 1907, "De quelques différences lexiques et typographiques entre des exemplaires du Nouveau Testament de Liçarrague", *RIEV* 1, 180-182.
- Laka, Itziar, 1986, "Evaristo Bustintza 'Kirikiño'", in *Abarrak*. Bilbo: Euskal Editoreen Elkarte.
- Lakarra, Joseba A., 1991, "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi", in *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, I, 217-258. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- _____, 1994, "Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)", *ASJU* 28:1, 1-178. Berrargit. (*ASJU*ren gehigarriak,18). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995.
- Larramendi, Manuel de, 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latin*, Donostia: B. Riesgo y Montero. Bigarren argit. Donostia: P. de Zuazua, 1853. Lehenaren berrargit. faksim. Donostia: Txertoa, 1984.
- Leizarraga, Joanes, 1571, *Iesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria*, La Rochelle: P. Hautin. Berrargit. Th. Linschmann eta H. Schuchardt (arg.), *I. Leizarraga's Baskische Bücher von 1571*, Strassburg: K. J. Trübner, 1900; berrargit. faksim. Bilbo: Euskaltzaindia, 1990.
- Maas, Paul, 1958 [1927], *Textual Criticism*, Oxford: Oxford Univ. Press. Alemanerazko bigarren argitalpenaren itzulpena, B. G. Teubner, Leipzig, 1949.
- Mercero, Gorka, 1987, *Jaureguiberry abadearen Hommage à Son Altesse Impériale le Prince Lucien Bonaparte*. Edizio kritikoa, eskuizkribu argitaragabea. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- Mitxelena, Koldo, 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbo: Centro de Estudios Históricos de Vizcaya. Azkueren hiztegiaren berrargitalpenean hitzaurre gisa ere emana, Bilbo: Euskaltzaindia, 1984.
- _____, 1978, "Miscelánea filológica vasca (II)", *FLV* 30, 389-413. [Berrargit. *PT*, 387-410.]
- _____, 1981a, "Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak", in *ZZEE, Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 259-278. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. [Berrargit. *SHLV*, II, 680-693 eta *MEIG* IV, 49-72.]

- _____, 1981b, “Euskal literaturaren kondairarako oinarriak”, in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 279-292. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. [Berrargit. *SHLV*, II, 694-703 eta *MEIG*, IV, 73-89.]
- Mogel, Juan Antonio, 1800, *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*, Iruñea. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJAErakusaldiak.htm>>.
- _____, 1802, “Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcainas y castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos”, Tolosa. *Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos* izeneko lanaren 24-31. orrialdeetan dago.
- _____, 1803, *Confesino Ona edo Ceimbat gauzac lagundu biar deutseen Confesinuari ondo eguiña izateco*, Gasteiz.
<<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MogelJAKonfesino.htm>>.
- Morocho Gayo, Gaspar, 2004, *Estudios de crítica textual (1979-1986)*, Murcia: Universidad de Murcia.
- Mujika, Jose Antonio, 2002, *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*, Bilbo: UPV/EHU.
- Orduna, Germán, 2000, *Ecdótica. Problemática de la edición de textos*, Kassel: Edition Reichenberger.
- Reynolds, Leighton D. & Nigel G. Wilson, 1974 [1968], *Scribes and Scholars. A Guide to the Transmission of Greek and Latin Literature*, Oxford: Oxford Univ. Press. Bada gazt. argit., egileek berrikusi, osatu eta gaurkotua: *Copistas y filólogos*, Madrid: Gredos, 1986.
- Roncaglia, Aurelio, 1975, *Principi e applicazioni di critica testuale*, Roma: Bulzoni.
- Timpanaro, Sebastiano, 1985 [1963]. *La genesi del metodo del Lachmann*, Padova: Liviana.
- Urgell, Blanca, 1987, “Esku-liburua-ren grafi aldaketak (1812-1821)”, *ASJU* 21:2, 357-388. Berrargit. eta eranskina in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.) 1992, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*, (*ASJU*-ren gehigarriak, 25), Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, 395-427.
- _____, 1991, “Añibarro, Axularren itzultzaile”, in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri sacrum*, 315-336, (*ASJU*-ren gehigarriak, 14), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Vinson, Julien, 1907, “Observations sur l'article précédent”, *RIEV* 1, 284-287.

4. gaia: Testuen transmisioa

1 Sarrera

• Idazten direnetik, testuak —zaharragoak edo berriagoak izan— denboran zehar transmititzen dira, transmisio horretan mota askotako aldaketak jasotzen dituztelarik. Hau dela eta, guregana iritsi diren testuak ez dira inoiz (edo ia inoiz) iritsi egileen eskuetatik atera ziren bezala. Beraz, fidagarritasun eta egiazkotasun arazoak dituzte.

• Horregatik testu-kritikak testuen transmisioa aztertu behar du, zehaztasun osoz aztertu ere, egilearen borondatea islatzen duen jatorrizko testua (edo hartatik hurbilen dagoen bertsioa) berreskuratzeko asmoz.

• Beste alde batetik, testuen transmisioaren historia aztertzeak datu garrantzitsuak ematen dizkigu edizio-lana zuzenago egiteko eta, oro har, literaturaren historiarako.

2 Tradizio motak

Testu bat guregana irits daiteke:

- 1.1. tradizio zuzenaren edo zeharkako tradizioaren bitartez;
- 1.2. lekukotasun bakar batean edo zenbaitetan, eta hauetako bakoitza
- 1.3. eskuizkribatua, inprimatua edo ahozkoa izan daiteke; tradizio mistoa.

2.1 Tradizio zuzena / zeharkako tradizioa

- LEKUKOTASUNA: Testu baten bertsio bakoitza, eskuizkribatua zein inprimatua.
- IRAKURKETA (*lectio*): Testuaren pasarte jakin bat, lekukotasun baten edo batzuen bidez transmititu zaiguna.
- TRADIZIO ZUZENA: Testu baten lekukotasunen multzoa (originala eta kopiak, bai eskuizkribatuak eta baita inprimatuak ere).
- ZEHARKAKO TRADIZIOA: Besteren aipuen edo itzulpenen bidez, edo antologia eta bildumetan agertzeagatik ezagutzen den testuaren tradizioa.

Adibideak:

1. [Euskal epika eta lirika zaharra](#) (gehienak TAVen argitaratuak):

- **Garibai:** *Beotibarko guduaren kanta, Olasoren kantorea, Salinasgo kontearen kanta, Milia Lasturkoren eresia eta Martin Bañez Artazubiagakoren eresia.*
 - **Ibarguen-Cachopín kronika** (1570-1620): *Martin Ibañez Labierokoren epitafioa, Diego Lopez Harokoren eresia, Akondiako guduaren kantaren hasiera, Arrasateko erreketaren kanta, Butroeko Andrearen Eresia, Salinasgo Kontearen kantua eta Errodrigo Zaratekoaren Kantu Epikoa* (ik. Arriolabengoa 2008).
 - **Zaldibia** (1575 b.l.): *Beotibarko guduaren kanta, Juan Lazkaokoren kanta eta Mosiur Chanfarronen kanta.*
 - **Isasti** (ca. 1620): *Urrexolako guduaren kanta, Sandailiaren kanta.*
 - **Otazu** (1975): *Bretainako kanta.*
2. **RS:** [*Refranes y sentencias*](#), Iruñea, 1596 (Lakarra 1996). Errefrau batzuk Oihenarten koaderno galduan (ez Oihenart 1657; ik. Urquijo 1967; TAV 174-176; Mitxelena 1967a).
 3. **Zubiaren** [*Doctrina christiana*](#) (Donostia, 1691); gaur galdua. Zenbait zati Lezamizek (1699):
 - TAV: *Agur Maria* (162) *Aitagurea* (167-68) eta kopia batzuk (138-39) argitaratu ziren.
 - ConTAV: Artikulu fedezkoen azalpena (146-155).
 4. **Egiategi**, *Aberatztarzun gussién guils Bakhoitza* (1782): Etxeko kontuei buruzko saiakera. Eskuizkribua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegiak erosi zuen 60etan. Mitxelenak (1963) izenburu osoa, hamalaudun bat (“huscaldun Etchéco andériari”) eta zenbait pasarte ematen ditu; eskuizkribua 80etan galdu zen (Oyharçabal 1999a). Eskuizkribua liburu baten kopia bezala aurkezten da (Pabe 1782); aztarrenik ez. XIX. eta XX. mendeko kopia osatugabe bana (Peillen 2012).
 5. **Etxepare (1545):** Isastik (1850 [ca. 1620]) ahozko tradiziotik jasotako bertso batzuk dakartza. Bestalde, Azkuek (1928) Zaraitzun aurkitu zuen balada erlijioso bat Etxepareren bertso batzuekin pareka daiteke.

2.2 Lekukotasun bakarra duen tradizioa / zenbait lekukotasun dituen tradizioa

- Gure artean lehena arruntena. Edizio kritikoa egiteko, dagoen *CODEX UNICUS* erabili behar: kontserbadoreegia izateko arriskua dago.

- Edizio kritikoan: hutsen zuzenketa (*emendatio ope ingenii*), hitzen banaketa zuzena, grafia gaurkotzea, puntuatzea... (*dispositio textus*). Autografoa bada, huts mekanikoak zuzendu daitezke; bestelakoak hobe oharretan adierazi, ez testuan.

- Testua lekukotasun bat baino gehiagoren bitartez gureganatu denean, argitaratzaileak euren arteko erlazioak ezarri beharko ditu. Horretarako lekukotasun guztien arteko erkaketa (*COLLATIO*) egin beharko du eta aldaerak (*VARIAE LECTIONES*) bildu eta aztertu.

2.2.1 Tradizio eskuizkribatua

- *Autografoa*: egilearen eskutik idatzia.
 - [Zirriborroa](#)
 - [Originala](#)
 - [Kopia autografoa](#)

2.2.2 Tradizio inprimatua

- Inprimatuetan lekukotasun bat ez da argitaraldi baten ale bakoitza, baizik eta argitaraldi batetik gorde diren ale guztien multzoa.

- Hala ere, inprimatu zaharretan (XVIII. m. arte) gerta daiteke argitalpen bereko aleen artean aldaerak aurkitzea.

- Hau dela eta, teorian inprimatu zaharren kasuan ez genuke lekukotasun bezala ale bakar bat hartu behar, baizik eta gorde diren ale guztien multzoa. Hala ere, praktikan hori ezinezkoa denez, estatistikoki kalkulatu da 1000 aleko tirada batean gutxienez 30 ale aztertu eta erkatu beharko genituzkeela.

Adibideak:

